

GURE ALTXORRA

Herria ezagutzen



4. UNITATEAREN GIDA PEDAGOGIKOA



GURE ALTXORRA

Herria ezagutzen

LEHEN HEZKUNTZAKO

4.MAILAKO

IRAKASLEENTZAKO

GIDA PEDAGOGIKOA



4. UNITATEAREN GIDA PEDAGOGIKOA: GURE ALTXORRA

1.-EZAGUTZAK ASTINDUZ

Aurreko unitatean herriak izan zituen suntsiketa, sute eta hainbat gerraren ondorioen berri jakin genuen, baita herriak urteen poderioz izan duen biztanleen garapenarena ere.

Bestalde, herriko hainbat kultura esparru aztertzeko eta horien barruan hainbat jairen eta ohituren nondik norakoaren berri jakiteko parada izan genuen.

XX. mendearen hasieratik, industrializazioaren eraginez, herria handitzen joan zen astiro-astiro eta kontrolik gabe 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, eta etxe ugari eraiki zuten, eta zeharo aldatu gure herriaren fisionomia.

XX. mendearen hasierako urte haietan aurrerapen handiak izan genituen, garraioan eta komunikabideetan, esaterako. Beraz, herrian azpiegitura berriak egin behar izan zituzten. Europa osoan gertatu zen antzera, gure herrian ere aldaketa sakonak bizi izan genituen.

Historian aurrera eginez, hortaz, XIX. eta XX. mende hasieran buruhauste franko eman zituzten Deba eta Aramaio ibaiak. Europatik zetorren garapen garai berriari jarraiki, trenbideak eta errepide berriak egin behar izan zituzten. Etxeak eta industrialdeak egiteko, ibaien ubideak ere aldatu zituzten, ibaiak bideratu zituzten bereak ez ziren ibilguetatik. Horretarako, ibaiei handik eta hemendik lurrak kendu eta ibai bazterretan industriak eta etxeak egin zituzten, eta horrek ondorioak izan zituen.

Uholde bortitzak izan ditu herriak sarri.

Auzi horrek emango dio sarrera unitate honi.

Hala ere, aurreko unitateetan egin bezala, lehenik eta behin, landu nahi ditugun gaietan girtzeko, hainbat jarduera proposatuko dizkiegu ikasleei, hausnartu dezaten.

Orain arte herriaren gainean ikasitakoaz eta herriaz dugun pertzepzioan sakontzea proposatuko dugu. Horretarako, herriaren deskribapen testu bat egitea proposatuko diogu ikasleari.

Aurretik, adjektibo zerrenda bat eskainiko diogu. Horietatik herria deskribatzeko zein zaizkion baliagarri aukeratu beharko du lehenik. Nahi izanez gero, emandako zerrenda osatu dezakegu, denen artean adjektibo gehiago gehitzeko.



JARDUERA₁: Ezabatu, zure ustez, herriari ez dagozkion adjektiboak.

Euritsua, lehorra, berdea, eguzkitsua, hezea, jendetsua, kutsatua, zaratatsua, iluna, zatarra, garbia, aberatsa, industriala, atsegina, basotsua, kirolzalea, menditsua, txiroa, koloretsua, modernoa, bizia, zaharra.

Adjektiboak aukeratu dituztenean, eskatu ikasleei azaltzeko zergatik aukeratu duten hori. Beharbada ez da adostasunik egongo aukeratutakoen eta baztertutakoen artean. Aldekoen eta kontrakoen arteko argudio elkartrukea sustatu dezakegu. Ez da beharrezkoa adostasunetara iristea; izan ere, norberak, bizi duen inguruaren eta ezagutzen duenaren arabera, herriaren pertzepzio desberdina izan dezake. Baliarik handiena eman beharko genioke bakoitzak bere aukera arrazoien eta argudioen bidez defendatzeari.

Adjektiboak, batik bat, gauzak deskribatzeko zaizkigu baliagarri. Horregatik, interesgarria gertatu dakiguke hurrengo jarduera egin aurretik ahoz hainbat deskribapen egitea, trebatzen joateko. Deskribapen horiek edozeren gainekoak izan litezke. Lana errazte aldera eta ikasleen adjektiboen bilduma aberaste aldera, hainbat adjektiborekin osatutako zerrenda jarri dezakegu gelan, ikasleek deskribapenak egin behar dituztenean eskura izan ditzaten eta haien gaitasuna aberasten joan dadin.

Jarduera egiterakoan aurreko ariketan aukeratu dituzten adjektibo guztiak erabiltzeko eskatuko diegu. Lan horretan hasi aurretik, kontuan izan beharko dituzte testuaren antolaketa, deskribapenaren haria, eta abar.

Bakoitzak bere testua egin dezake edo bi edo hiru laguneko taldean egin dezakete. Horretarako, alde aurretik adjektibo zerrendak bateratu eta testua adostu beharko dute.

Beste aukera bat izan liteke testuak amaitzen dituztenean elkartrukatzea eta batak besteari testua aberasteko proposamenak egitea.

JARDUERA₂: Osatu ezazu herriari buruzko azalpen testua, aukeratu dituzun adjektiboen artean ahalik eta adjektibo gehien erabiliz.

Unitate honetan, besteak beste, herriko mendiak, ibaiak, errekek, parkeak eta inguru naturalarekin zerikusia dutenak landuko ditugu.

Lehenago, ikasleak horien gainean duen jakintza arakatzen ahalegindu gaitzke. Horretako, bakoitzari, ezagutzen dituenak izendatzeko eskatuko diegu. Gero, ikasle guztien artean, gelakook ezagutzen ditugun herriko mendien, erreken eta ibaien izenen zerrenda osatuko dugu. Izenaren ekarpena egin duenari non dagoen adierazteko eskatuko diegu, eta nahi izanez gero mapan kokatuko dugu.

JARDUERA₃: Idatzi ezagutzen dituzun herriko mendien izenak



JARDUERA₄: Orain idatzi errekenak eta ibaienak:

JARDUERA₅: Zein auzotan daude parke hauek?

Herrian baditugu hainbat parke. Liburuxkan, jarraian, herriko hiru parkeren argazkiak dituzue. Nahi izanez gero, izena adierazteaz gain, parkean izan direnei eskatuko diegu non dagoen, bertan zer dagoen, gustukoa duten, eta abar azaltzeko.

Koadernoko 3. orrialdea.

2.-MILA URTE IGAROTA, URAK BERE BIDEAN

Deba eta Aramaio ibaiak ez dituzte beti egin gaur ezagutzen ditugun ibilbideak.

Deba ibaiak, 1962. urtea baino lehen, beste ibilbide bat zuen San Andres auzoan, gaur egungo autobus geltokiaren atzealdetik sartu eta Leintzibar kalearen ezkerrealdetik errebuelta bat eginez Arrasate pasealekurantz egiten zuen, eta gaur egun Garro Generalaren kaletik zehar Errebuelta kalerantz buelta egiten zuen. Ibaiaren ertzeetan zuhaitz asko zegoen eta aldamenean nekazaritza eremu handiak. 1962. urtean ibaia ubideratu zuten, gaur ezagutzen dugun tokitik San Andres auzoa egiteko eskumako aldean.

Errekan behera jarraituz, Zerrajera enpresaren hainbat lantegi egiteko, ibaiaren gainean eraikinak egiteko estali egin zuten ubidea. Horren adibide da lehengo Zerrajera enpresaren "Erlojuaren eraikina" deritzana, gaur egun, ibaiaren gainean dagoena, hain juxtu ere.

Aramaio ibaia ere lehen Zarugalde kalearen aldamenetik, Olarte kalearen atzealdetik eta Ferixalekuaren aldamenetik pasatzen zen, baina, gaur egun, guk ezagutzen duguna Otolara litzentziaduna kalea da. Une honetan, Muzibarko biribilgunetik Maalako biribilguneraino estalita zegoen eta hainbat urtetan "desagertu" da gure begietatik, baina 2006. urtean Kulturateren aldamenean agerrarazi zuten ibaia, bere ibilbidearen 20 metroan, eta harrezkero hiritartuta dago gune hori, nolabait ibaia oxigenatzeko.

Erreka hiru zatitan estali zuten, Ferixalekuko urbanizazioa egiteko, Zarugaldetik Uarkaperaino eta Uarkapetik Ferixalekuraino. Estali proiektuak 1968,1970 (19. poligonoa) eta 1975. urteetan idatzi eta urte batzuk geroago gauzatu zituzten.

Ibaiak desbideratzeaz gain, Aramaioko erreken kasuan lurpetik bideratu ziren zati handi batean, eta ibaiak bazterretan zeuzkaten zuhaitzak eta landaretza galdu ziren betiko.

Geroago, 1980. urtean Musakola auzoan Deba ibaiaren ubidea aldatu zuten, Kataide industrialdea egiteko. Kataide baserria bota zuten eta ibaia desbideratu zuten. Lehen Zabaleta baserriaren ondotik pasatzen zen errepidearen aldamenetik zihoan eta OMU



eraikinaren aldean ibaiak bihurgune handi bat egiten zuen, baina ibaiaren ibilbidea desbideratu zuten lehengo trenbide zahar aldera eramateko eta ibaiaren ezker aldean Kataide industrialdea egiteko.

Liburuxkan duzue Arrasateko Udalaren artxibotik ateratako argazki bat. Hor, baserrien artean, San Andres auzoko lehendabiziko etxebizitzak egiten ari zen garaikoa dator (1960-1961), eta Deba ibaia nondik zihoan antzematen da, ibaiaren ibilbidea zuhaitzez eta landaretzaz ikusten baita. Hor ibaiak meandro (bihurgune) handi bat egiten zuen (gaur egungo Errebuelta kalea) eta zuhaitz asko zeuden Arrasate pasealekuaren magalean. Nekazaritza sail handiak ikusiko ditugu eta errepidearen ondoan ez zegoen ibairik, geroago hortik bideratu zutelako.

Anekdotak gisa, Jose Velez de Mendizabalek idatzirik liburu batean, erreka ondoko landaretzari buruz, aipatzen du idazleak Justo Garate idazle bergararrari entzun ziona, haren ustez, Zarugalde izena Li-Zarugalde hitzatik zetorrela, hots, erreka ondoko lizarrak edo adierazten duela. Eta hala izan liteke, Goikobaluaren maldan eta erreka bazterren arteko magalean, lehen, lizarrak baitziren nagusi. Aitzitik, Jose Letonak zioen, Lopez de Mendizabalek eginiko "Euskal abizen etimologiak" izeneko liburuan oinarrituta, Zarugalde abizenak (zar-zaharra-, uga-garoak-, alde-tokia), garoen toki zaharra esanahia zuela.

Deba ibaiaren bazterretan haltza ugari zegoen garai hartan, baina erreka ubideratu ahala galtzen joan dira.

Ikasleak ere argazkia behatzera gonbidatuko ditugu. Batez ere, ibai bazterrean arretaz begiratzeko eskatuko diegu, eta oraingo "argazkiarekin" alderatzeko (etxeak, etxe orratzak, erreka, kaleak...).

JARDUERA₁: Behatu argazkia.. Zein elementu zeuden lehen ibai bazterrean?

JARDUERA₂: Behatu argazkia, nondik igaroko ote da ibaia?

4. orrialde honetan dauden bi argazki behatzea eskatuko diegu ikasleei, batetik, goikoa, lehengo ibaiaren ibilbidearen inguruan galdetzeko eta, bestetik, behekoa, gaurko ibaiaren ibilbideaz hortik doan edo ez galdetzeko.

JARDUERA₃: Eta gaur egun, zein elementu daude ibai ertzetan?

Urtetan hainbat aldaketa egin ziren ibai bazterrean. Bestalde, urte luzeetan ez zen ubidea dragatu eta ez ziren ibai bazterrak garbitu. Horren ondorioz, hainbat urtetan ibaiak zekarren lohi, arre, harri, adar eta bestelako zikinkeriak pilatuz joan ziren. Ibaiak sakontasuna galdu zuen eta bidea oztopatzen zuten elementuez betetzen ari zenez, estutu egin zen. Gainera, azpiegiturak ibaiaren bazterrak jaten joan dira etengabe. Horrek ere bere ondorioak izan zituen.



JARDUERA₄: *Zure ustez, nolako ondorioak izan ditu horrek guztiak?*

Koadernoko 4. orrialdea.

3.- URAK BERE BIDEA

Hainbeste oztopo topatu ondoren, ibaiak gainezka egiten zuen maiz eta haren urak herrian eta inguruetan zehar barreiatzen ziren.

Argazkian ikus dezakegu uholdeek egiten zituzten triskantzak (trenbidea apurtu, poste elektrikoak bota eta ubidearen ondoan zeuden lantegien instalazioetara ura sartu, sarri). Bestalde, interesgarria iruditu zaigu gogora ekartzea esaera zaharrak. Nahi izanez gero, esaera zaharrak zer diren, nork asmatu zituen, eta abar landuko dugu.

JARDUERA₁: *Ezagutzen duzu esaera zaharren bat?*

Nahi izanez gero, ikasleek aipatzen dituzten esaera zaharren zerrenda osati liteke.

JARDUERA₂: *Esaera zaharrak dio: "Egiak eta urak beti beren bidea egiten". Zer esan nahi ote du horrek?*

Koadernoko 5. orrialdea.

4.- UHOLDEAK

Uholde garrantzitsuenak data hauetan izan dira herrian: 1593, 1641, 1834, 1897, 1942, 1947, 1949 eta 1977. urteetan

1593ko irailaren 21ean eta 1641ko irailaren 8an uholde handiak izan ziren herrian. 1834ko ekainaren 30ean "San Paulo urak" edo San Martzial urak". Leintz Gatzagatik Mutrikuraino 19 errota apurtu zituen eta aurretik 22 zubi eraman zituen eta 28 zubi gehiago ez erabiltzeko moduan utzi zituen, 6 burdinola, 76 eraikin eraitsi eta 121 eraikin apurtu, hiru eliza urez hondoratu ziren eta 39 pertsona hil ziren. Arrasaten uren maila Azkarateren arkuraino (Kontzeziñoa) edo (Iturriotz) iritsi zen. Toki horretara joaten ziren arrasatearrak uretan, 1906. urtean edateko ura ekarri aurretik.

1897ko ekainaren 9an "Trinidad urak", Trinidad egunean, eguraldi ona egiten zuenean, Eskoriatza aldean sekulako ekaitza bota zuen eta Arrasaten, Deba arroko bazterrak urez gainezkatu zituen. Uren maila Kontzezioan elizaren ateetaraino iritsi ziren (gaur egun Kontsezino kalea aldean). Uholde horrek Zalduspeko zubia eraman zuen aurretik.

1942ko abuztuaren 28ko uholdea da gogoan izan den handienetarikoa herrian. Ilunabarrenean euri jasa handia bota zuen Udalatx, Anboto eta Leintz Gatzagaren inguruan, eta sortu zen sekulako uholdea. Urak, Letona eta Uranga historialariek jaso zuten moduan,



Portaloiairen arkuraino iritsi ziren eta triskantzak izan ziren industrietan, nekazaritzan eta herriko eguneroko jardueretan. Tokirik kaltetuenak izan ziren Zarugaldeko, Olarteko eta Maalako errebaletako etxeak eta etxabeak.

Hiru urteko ume bat hil zen, Jose Ignacio Mendizabal Letona izenekoa. Industriaren eraginari dagokionez, batez ere, Zerrajeran izan zuen eragin handia.

1947ko maiatzaren 1ean elurte handia izan zen eta triskantza handiak sortu zituen, batez ere, nekazaritzan.

Txingor itzela egin zuen 1949ko abuztuaren 24an, baina horrelakorik ez omen daukate gogoan arrasatearrek. Uribarriko jaiak ziren, Bartolome Deunaren egunean bertan sekulako euritea egin zuen eta nekazaritzan sekulako triskantzak izan ziren. Historialariek diote, egun horretan, erromeria alaitzeko, Arrasateko Musika Banda kontratatua zegoela eta jotzen hasi berritan sekulako euri jasa egin zuela. Harrezkero, ez dituzte berriro eraman hara.

Sekulako euri jasa bota zuen 1977ko ekainaren 13an, eta horren ondorioz errepide ugari urez gainezka gelditu ziren eta esaterako, Garagartzako Fagor lantegiko langileak ezin izan ziren joan lanera. Gauza berbera pasatu zen Union Cerrajerako langileekin eta ura barruraino sartu zela-eta, makineria osoa hondatu zuen eta kalera irten beharra izan zuten.

Uraren indarrak aurretik eraman zuen Osiñagako zubia (Zaldibar-Musakola), antzinatik eraikia eta errepide nagusia etenda izan zen denbora luzez.

Halaber, 1979ko azaroaren 21ean ere uholdeak izan ziren eta, batez ere, Zarugalde kalean eragin handia izan zuen, Udala auzotik zetorren errekatxoak gainezka egin zuelako. Auzotarrak etxetik irten barik egon ziren hainbat ordutan.

Azkenik, azken urteotan Euskal Herrian izan den uholde handienetakoa dugu 1983ko abuztuaren 25, 26 eta 27koa. Euri jasadak Gipuzkoan hasi baziren ere abuztuaren 25ean, gero Bizkai aldera jo zuen eta 35 hildako eta 5 desagertu izan ziren. Hogeita hamasei ordutan, urte batean jasotzen den euriaren erdia bota zuen eta Ibaizabal zein Nervion ibaien arroak urpean gelditu ziren.

Bilbo aldea ez ezik, Gipuzkoako Bidasoa, Oria, Urola eta Deba erreken arroek ere jasan zituzten uholde horien triskantza izugarriak. Ibaien arroetan ematen den hirigintza garapena eta gune guztiak hiritartuta izateak handitzen du uholdearen arriskua, asfaltoak ez baitu ura pasatzen uzten. Gainera, egun horietan aparteko baldintzak egon ziren: Saharatik etorri zen aire beroak talka egin zuen iparburutik etorri zen beste aire korrante batekin eta itsasgora eman zen euri gehien egiten zuenean, eta horrek areagotu egin zuen hondamendia. Adituek diote 35 edo 40 urtetik behin ematen direla horrelako uholde handiak Euskal Herrian, eta horren ondorioz, 2020. urterako besteren bat gertatu daiteke.

Ikus dezakezue, uholdeak behin eta berriz gertatzeaz gain, oso jarraian gertatzen ziren.



Ez da harritzekoa, beraz, uholdeen arazoa herritarren ardura eta kezka gai nagusi bilakatzea. Uholde haien ondorioak ez baitziren nolanhikoak izan.

Euriaren ondorioz, ibaiaren ur maila altuagoa izateagatik ura bere bidea topatzen saiatu zen eta bere ibilbidetik irteten zen eta uholde handiak eragiten zituen. Horretaz aparte, mendien maldetatik datozen errekatxoek ur emaria handitzen zen eta aldapatik behera indar biziz hartzen zituzten behealdeak.

Uholdeek beti sortu izan dituzte triskantzak eta hondamendiak, baina kontuan izan behar dugu XX. mendearen hainbat hamarkadatan ez zegoela aseguratuta eta gose urteak zirela; ondorioak latzak izaten ziren baserriarrentzat eta baita herritarrentzat ere.

JARDUERA1: *Altura horretaraino urak iritsi baziren, zer gertatuko zen herriguneko etxe, etxabe eta kaleekin?*

Beheko argazkian Aramaio ibaiaren ur maila neurtzeko antzinako erregleta dago ibaian, Etxe txikien atzealdean. Deba eta Aramaio ibaiak elkartzen diren tokian, "Urbixak bat" baino apurtxo bat lehenago dago. Toki horretan bi ibaiak elkartzean ur handia eramanez gero, emari handiko ibaia sortzen da, eta betidanik bertan industrialde ugari izan diren neurrian, agian, ibaiaren ur maila neurtzeko jarri zuten.

1942. urtean, Aramaio ibaia zihoan, estaltzeke, Muzibarko errotondatik Maalako biribilguneraino, eta gaur, Otalora Lizentziaduna ezagutzen dugun kalea ez zen existitzen erreka handia zihoalako.

Urak Portaloiaren arkuraino iritsi baziren, mapa batez baliaturik irudikatu dezagun, gaur egungo Zarugalden, Olarten, Seber Altuben, Maalako errebaletan eta San Juan auzoan zernolako triskantzak egingo zituen urak, bertan eta, zalantzarik gabe, errekan behean (Zaldibar, Musakola...) ere bai.

Garai hartan oraindik ere ibaiak ez zeuden bideratuta eta ura zabaltzen zen toki askotara.

Nola garbitzen dira urak gainezkaturiko etxabeak, etxeak? Zein material utziko du uholdeak etxean barrualdean?

Ziur asko jendea etxetik irten gabe izango zen eta etxean zeuzkan tresnekin baliatu beharra zeukan etxeak garbitzeko.

JARDUERA2: *Kasu horietan triskantzak konpontzeko zer egin beharko genuke, zure ustez?*

Gaur egun, horrelako ezbeharrak gertatuz gero suhiltzaileei deitzen diegu, baina 1942. urtean, zelan arituko ziren auzotarrak, elkarriz lagunduz, auzolanean?

Familia batzuek ondasun asko galduko zuten eta aseguratuta ez zeuden ondasun horiek, orduan nola egiten zuten aurrera? Hausnarketa hauek oinarri gisa jarrita gaur egun munduan gertatzen diren beste hondamendi batzuekin (lurrikarak, tsunamia...) erkatuko ditugu.

Koadernoko 5. orrialdea.



5.- IBAIETAN GORA

Deba ibaia Deba herrian, Kantauri Itsasoan, itsasoratzen da. Elgea mendilerroko Hiruerreketa deritzan tokian jaio eta Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Elgeta, Bergara, Oñati, Antzuola, Soraluze, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Deba herrietako erreka eta errekatxoetatik jasotzen du ura. Hiruerreketatik Debaraino 60 km-ko bidea egiten du. Arrasateko udalerritik 5 kilometroko lurraldea zeharkatzen du. Arroaren azalera, berriz, 110 km koadrokoa du eta erreka 665 metroan jaiotzen da.

Aramaio herriko inguruko mendietatik (Orixol, Arangio, Ipizte, Durakogaina, Belamendi, Lurgorri...) datozen erreka zein errekatxoek sortzen dute **Aramaio ibaia**, Aramaio herrian eta 13'5 kilometroko ibilbidea egiten du Deba ibairaino (Urbixak bat-Urbixalekuraino). Arrasateko udalerritik 4'5 kilometro egiten du.

Ur emariari buruz, ez dira ur eman handikoak, eta ur maila txikiena uda partean izaten dute eta udazkena eta neguan handien.

6.- ERREKATXOTIK ERREKARA, ERREKATIK IBAIRA

Herriko ibai ezagunenak eta garrantzitsuenak, zalantzarik gabe, Deba eta Aramaio ibaiak dira. Izan ere, haren inguruan egituratzen joan da herria mendeetan. Haren inguruan pilatu dira etxeak, auzoak eta lantegiak.

Iraganean, XIII. mendetik aurrera Arrasateko jarduera nagusia altzairugintza eta hura merkaturatzea zenean, ur korronteak beharrezkoak ziren burdin minerala lantzeko, eta burdinolak sortu ziren ibai horien aldamenen. Era berean, sekulako garrantzia izan zuten errotek. Alea ehotzeko tresna, harri higigaitz batez eta haizeak edo urak birarazten duen beste harri batez osatua. Garia eta artoa ehotzeko helburuarekin, errota asko eraiki zituzten Euskal Herriko ibai eta erreka bazterretan.

Deba ibaia eta Aramaio ibaiaren bazterretan, asko izan dira mendeetan egindako errota eta burdinolak. Egun denok ezagutzen ditugun lantegi erraldoiak dauden ertzetan, aspaldi, sei burdinola handi eta 70 burdinola tiradera egon ziren, haien artean, oraingo Olarte kalea, Aramaio ibaiaren ondoan, dagoen bezalako tokian eraikitako olatxoak edo tailerrak.

Deba ibaian, Boliñate eta Osiñaga **errotak izan ziren** eta Legarra, Zubiate, Zigorrolazpizkua, Olatxo eta Kataide burdinolak. Halaber, Aramaio ibaian, Argierrota, Auzoerrota, Igeribargarri, Madariagaerrota, Kobateerrota, Goikoerrota, Beheko errota-Babilonia (Murri), Barrenatxo, Ibarretako errota eta burdinola, Txurisena, Arrasateerrota, Asporoza-Munar eta Meatzerrako errekatxoan, Meatzerrekaerrota, Askasibar, Soloetxe zurrategia, Arrizapata burdinola eta Zabala-Olaoste-San Agustin.



Gaur egun, zentzu handi batean, ibaiek jarraitzen dute izaten herriko ardatza. Haien inguruan antolatutako lantegi batzuk, gaurko egunean, galdu egin dira, baina beste batzuek oraindik ere hor dira. Ez da izaten isurketa kutsagarririk lantegietatik eta nabarmen hobetu da erreken uraren kalitatea, araztegirako tutuak instalatu zituztenetik.

Kontuan hartzekoa da 1968. urtean eginiko ikerketa batek zionez, Deba ibaia zen, Oria ibaiaren atzetik, Kantauri osoko ibairik kutsatuena, metalgintza eta ehungintza lantegien isurien erruz. Azken horiek eguneko 1.530 metro kubiko ur zikin botatzera ere iristen ziren. Horrez gain ibaiaren ardatz nagusian 40 presa zeuden eta ibai adarretan 30. Biztanleriaren dentsitate altuak ere eragina zuen, 207 biztanle zegoen kilometro koadroko.

Argi dago garai hartan ez zegoela axola handirik ibaiaren egoeraz. Hala ere, ura ondasun publiko bezala babesteko arauak bazeuden eta, esterako, 1972. urtean, **Arrasateko Udalaren "bando" batek ibaira edo herriko tutuetara isurtzea zigortzen zuen.**

Oro har, urte haietan Deba ibaiaren zati handiak bideratu eta estali dira, eta horrek degradazio handia ekarri dio ibaiaren ekosistemari. Ubideratze asko uholdeei aurre egiteko lanak izaten dira, baina uholdeen arazoa konpontzea lortu beharrean, arazoa larriagotuz ibaiaren behealderago eramatea besterik ez dute lortzen.

Esaten dute izokina 1871n agertu zela azkenengoz Deba ibaian, baina XX. mendearen bigarren erdian, arazo larriak hasi ziren eta ordura arte ugariak izan ziren karramarroak eta amuarrainak ere desagertu egin ziren.

Lantegien desagertzeak ibaia biziberritu du, eta esan genezake XX. mende ia osoan izan zuen degradazioa gainditu duela hein batean. Orain oso ohikoa da bertan bizi diren arrainak eta ahateak ikustea, duela urte batzuk ikusten genituen era guztietako hondakinen lekuan.

Urteen poderioz, beraz, garaiko jendeak erabilera bat baino gehiago eman zioten ibaiari. Hasierako gizakiak saiatzzen ziren herriak ibai ondoan eraikitzen, ibaiek oinarritzko errekurtsioak ematen baitzizkion, arrantzarako eta ehiza zein fruituak ibai ertzeko landaretzan. Ura hornitzeko, energia hidroelektrikoa sortzeko... erabilera asko izan zuten ibaiek.

Euskal Herriak bi isurialde ditu, Kantaurikoa eta Mediterraneokoa. Deba ibaiaren urak Kantauri itsasora doaz. Arrasatetik gertu dagoen Kantauri –Mediterraneoko isurialdea osatzen duten hainbat menditatik (Urbiako pentzeak, Elgea eta Urkilla mendi lerroa (horren maldan Deba ibaia jaiotzen da), Gatzagain, Jarindo) ura hartzen du Deba ibaiak.

Halaber, Aramaioko erreka isurialde horretako hainbat menditatik (Kurtzeta mendatea, Arangio, Orixol, Ipizte- mendi horien maldan sortzen dira Aramaioko erreka osatzen duten erreka-errekaxoa-), hartzen du ura. Arrasateko mendietan sortzen diren erreka ugariak, batzuk, Aramaioko erreken arrora eta beste batzuk, Deba ibaiaren arrora isurtzen dituzte



urak, baina Aramaioko erreka Deba ibaiaren ibai-adarra denez gero, isurialde bakarra dugu herrian.

Aramaioko erreka arroa Araban eta Gipuzkoan dago, baina Deba ibiarena bere osotasunean Gipuzkoan.

Berez, Deba ibaiaren ibai-adar nagusia da Aramaioko ibaia eta bere urak isurtzen ditu Deba ibaira Arrasaten, Zaldibarren, "Urbixaleku edo Urbixak bat" izeneko tokian.

Aramaioko erreka hainbat erreka ditu: Arroaga, Gazeaga (Olakortako errekatxoarekin), Kobate (Munapetako, Liñuerreka, Karraskaingo, Olakortako eta Munapetako errekatxoekin) eta Meatzerreka edo Beheko erreka (Akegiko eta Kintalerreka errekatxoekin).

Deba ibaiak Aramaioko ibaiaren urak jasotzeaz gain, hainbat erreka isurtzen dituzte urak bertara: Epellerreka (Blankomasarro, Errekabaltz eta Errekato errekatxoekin), Obenerreka, Oroerreka, Txetaerreka (Asuela, Errekabarreneta, Errekaurkulueta eta Katalatzaerreka errekatxoekin), Zapataerreka, Antoñaerreka, Artixa, Aubeazkierreka, Bakuerreka eta Barrenerreka.

JARDUERA1: Osatu esaldian falta diren hitzak.

JARDUERA2: Mapari begiratu, gure udalerriko errekek ibai berean isurtzen ote dute? Bi ibaiok nonbaiten elkartzen dira? Hala izanez gero, zein izen hartzen du ibaiak?

laz banaturiko toponimia mapaz baliaturik behatu eta aztertu non diren errekatxoak, erreka eta ibaiak, erreparatu, zein auzotan dauden eta zein menditatik sortzen diren.

JARDUERA3: Deba ibaia Deba herrian itsasoratzen da, zein itsasotan?

JARDUERA4: Zer esan nahi du "erreketo urak ibaira isurtzen dira" esaldiak?

JARDUERA5: Ezagutzen duzu udalerriko erreka bat?

JARDUERA6: Aramaioko errekan ibairatzen dena:

JARDUERA7: Deba ibaian ibairatzen dena:

JARDUERA8: Ikusten ditugu Aramaioko erreka eta Deba ibaira isurtzen diren erreka? Zergatik? Non daude?

JARDUERA 9: Orain badakigu ibaiak non amaitzen diren. Baina non hasten dira?

JARDUERA 10: Arrasateko toponimia mapari begiratu, adierazi Udalatxeko lurpeko uretatik jaiotzen diren errekatxo eta erreka batzuen izenak, eta zein ibaitara doazen.

Mapa toponimikoaz baliaturik jarduera egiten saiatuko gara.

Koadernoko 6. orrialdea

7.- ARAZTEGIA.

1972. urtean, oro har, Probintziako ibaien, eta bereziki, Deba ibaiaren ur kalitatearen egoera ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundia, Ur Partzuergoa eta herriak araztegien beharraz hausnartzen hasi ziren, ibaien ur kalitatea, fauna eta landareak errekueratzeko asmoz.



Deba ibaiaren arroari dagokionez, 2000. eta 2001. urteetan abian jarri zen ibaiaren ur kalitatea hobetzeko prozesua eta horretarako jarri ziren lehenengo araztegiak (errekaren ondoan jartzen diren tutu lurperatuak) Leintz Gatzagan, hots, Deba ibaia jaiotzen den inguruetan, Oñati errekan zein Mutriku eta Debako itsas ahoan.

Urte horietan ere hasi ziren jartzen araztegiak Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza inguruan, eta geroago Aramaioko errekaren ondoan.

Plan horren barruan, aurreikusten zuten araztegiak jartzea Epelen, Mekolalde (Bergara), Elgoibarren eta Mutrikuko portuan, eta 2001. urtean Debako araztegia jarri zuten.

Kolektoreak edo araztegiak eraikitzearekin bat, beste saneamendu ekintza batzuk egitea aurreikusi zuten, ibaiaren kalitate biologikoa hobetzeko.

Garai horretan ere, enpresa gehienek bere instalazioetan legez araztegiak jarri beharra zutela-eta, jartzen joan dira.

Epeleko araztegiari dagokionez, 2007. urteko otsailean hasi zituzten eraikitze obrak eta 2011ko udan bukatu zituzten. Hainbat hilabetetan funtzionamendu probak egin eta gero, 2012. urtean funtzionamenduan jarri zuten, eta horrela Deba ibaian, Epele eta Mekolaldeko araztegiek funtzionamenduan dihardute.

Araztegiak, Leintz Gatzaga, Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta, Aramaio eta Arrasateko industrialde, etxe eta beste toki askotatik iritsitako ur zikinak jaso eta garbitzen ditu. Horri esker, Aramaio eta Deba ibaiek hobekuntza nabarmenak dituzte eta ur kalitatea, fauna eta landareak errekuperatzeko aukera izan dute. Araztegi berriak, 26,3 milioi euroko aurrekontua izan du eta UTE Edar Epele izeneko enpresa elkarteak egin du, baina epe laburrean Gipuzkoako Ur Partzuergoak bere gain hartuko du.

Zein da araztegi baten funtzionamendua?

-Hainbat herritatik eta industrialde eremuetatik iritsitako ur zikinak garbitzen ditu.

-Ur zikinei harea kentzen die.

-Bi bide jarraitzen du urak: a) uraren linea b) lokatzarena.

a) Uraren linea: hainbat elementuk hartzen dute parte

*Harea, hondakinak eta koipeak ezabatzeko aurretratamendua egiten dute aurrena.

*Jarraian lehenengo dekantazioa egiten du.

*Tratamendu biologikoa egitea. Prozedura honetan, karbonoa, nitrogenoa eta fosforoa ezabatzen ditu.

b) Lokatzaren linea:

*Lokatza loditu egiten da.

*Gero, digestio anaerobikoa egiten du.

*Geroago, bide mekanikoetatik hidratatu egiten da.

Bukatzeko, esango dugu araztegi berriak segundoko 848 litro arazteko ahalmena duela.



JARDUERA 1.- Badakizu araztegia zein auzotan dagoen?

JARDUERA 2.- Azken urteotan herriko ibaietan gero eta ahate gehiago dugu uretan, baina badago arrainik? Zer uste duzu? Zein motatakoa?

Ur kalitatea errekuperatzearekin batera, errekaren sistema bere onera etortzeko, fauna, landareak eta bidea (hondoa) berreskuratzen joaten da. Horren seinale animalien agerpena izaten da. Azkeneko hamarkadan ahateak bisitari zetozen bertako erreketara, baina ez joateko berriro, gelditzeko baizik. Azkenaldi honetan ere denon ustekaberako arraintxoak ikusi ditugu Deba ibaian eta Aramaioko errekan, eta Epeleraino bizi izan dira.

Herriko hainbat errekatxo eta errekan arrain mota bat baino gehiago dugu, eta Deba ibaian, batez ere, hiru motatako arrainak daude: ezkailuak, amuarrainak eta aingirak. Baina ibai-tarte bakoitzaren arabera daude. Hala Leinzko ura egokia da amuarrainak bizitzeko, baina Arrasaten, ura beroegia dagoelako, ezin dira bizi baina bai ezkailuak. Aramaioko erreka ere oso aproposa da ezkailuendako, baina ez amuarrainendako. Gaia lantzeko, galdetu ikasleei zer dakiten horretaz. Ikusi dituzte? Eta non?

Koadernoko 7. orrialdea

8.- URKULUTIK ETXEKO ITURRIRA

Ez dugu betidanik ura izan etxean. Bizilagunei zerbitzu berriak eskaintzen hasi zen Udala, horien artean, edateko uraren hornikuntza. Horretarako, herriguneko biztanleei hornitzeko, lehendabiziko aldiz 1879. urtean Altamirako iturritik hartu zuten ura, garai hartako San Frantzisko plazara (Seber Altube) non-eta horretarako iturri monumental bat egin zuten

Ura etxeetara ekartzeko lanak 1896. urtean hasi ziren. Biztanleak ugaritzen ari zirenez, edateko uraren hornikuntza eta garbitasunarena arazo larria bilakatu ziren.

Aurrekontua 41.937,75 PTAKoa izan zen, proiektuaren egilea Pedro Jose Astarbe eta ura Meatzerreka San Balerio iturburutik ekarri zuten; Goikobalun depositu erregulatzaile bat zeukan, plazatik 20 metrora. Emaria zen 2 litro segundokoa, eta hori ordaintzeko, Udalak atera zuen 35.000 PTAKo jesapen bat, %5eko interesean. Udalak 15.000 PTA jarri zuen, 50.000 PTAKo kostua zuen jesapenari aurre egiteko. Jesapen hura ordaintzeko garrantia izateko, Udalak ardoaren gaineko arbitrioa handitu zuen.

Hirigintza antolamenduaren Plangintza Orokorreko 1965eko Legean oinarritzen dira ordudanik Arrasaten eginiko ordenamendu guztiak. Udalak 1959ko irailaren 21ean onartu zuen zazpi urte lehenagotik dantzan ari zen Hiriko Plan Nagusia eta Etxe Eraikuntzarako Arautegia. San Antolin, San Lorenzo, Santa Marina, San Andres eta Uribarri auzoak sortu ziren, gune historikotik deskonektatuta, zerbitzuei dagokienez.

XX. mendeko 1950eko eta 1960ko hamarkadetan bizi zen biztanleriaren hazkundeak



areagotu egin zuen edateko uraren urritasuna eta Goikobaluko ur gordailuan biltzen zen Meatzerekekako iturburuko jarioari 1956ko irailaren 26an Aretxabaletako Urbaltzekoa gehitu behar izan zioten. Baina hura nahiko ez zela, 1958. urtean Eskoriatzako Bolibar auzoraino iritsi zen proiektu berri baten hoditeria.

Garai hartan ur zerbitzuaren etenak gertatzen ziren eta iturri publikoetan hartzen zuten ura (Gazteluondo, Zaldibar, Kontzezinoko "La Rana", Ferixalekukoa eta auzoetakoak-Musakola, Erguin, San Andres eta landa auzoetakoak). Garai hartan, oraindik ere garbigailurik ez zegoenean eta ur zerbitzuan eten ugari zegoenean, emakumeak era guztietako arropak eramaten zituzten herrian **garbitoki publikoetara** (Zarugalde, 1906. urtean egina), Kontzezinoa, Musakolakoak, Intxaustikoa, Uarkape (1928. urtean) eta landa auzotakoak). Garai hartako pentsamoldea ezagutzeko, argigarria da 1906. urtean garbitoki horien inguruan onartu zen ordenantza: " **14 urte baino gehiago zuten gizonezkoek debekatuta zuten garbitokietan egotea**"

XX. mendeko 1960ko eta 1970ko hamarkadetan ere edateko uraren hornikuntza bermatzeko, auzoetan ur deposituak egin zituzten, hango iturburuetatik ura pilatzeko. Musakolan (Antoñatxeberriko biak), Larragaingoa (Kurtzetxiki), San Andres auzoari begira, Olandixoko maldakoa, Uribarrikoa, Garagartzakoa, Bedoñakoa. Gesalibarrek bainuetxeko instalazioetarako mendiko iturburuetatik jasotzen zuen ura. Baserri askok errekatxoetatik hartuta zeukaten ur konexioa eta zerbitzua, eta, batez ere uda partean, etenaldi ugari izaten zuten.

*Urkulu urtegiaren obrak 1975. urtean hasi ziren eta 1979. urtean bukatu. Kanalizazio obrak egin zituzten Urtegitik edateko ura herrietara ekartzeko, eta Arrasatera Azuelatik bideratu zuten (Bedoñatik eta Txaetatik mendiz Zigarrolara edo ospitalearen atzealdera doan bidegurutzera). Hor ikusi daiteke ur tutuak pasatzeko egindako tunela, burdinazko barra batzuk ixten dute tunela. **Ofizialki 1986. urtean** (unitate didaktikoan 1984. urtean agertzen bada ere) iritsi zen Urkuluko ura Arrasateko etxeetara.

Gure etxeko txorrotatik irteten duen urak zein bide egiten duen ikusteko, liburuxkan proposatzen dugun eskema osatu dezakete.

JARDUERA 1.- *Lehen etxeetan edaten genuen ura hainbat errekatatik harturiko ura zen, baina gaur egun badakizu nondik datorren etxean edaten dugu ura?*

JARDUERA2: *Osatu eskema eta edateko urak Urkulutik urtegitik gure etxeetako txorrotara iristeko egiten duen bidea jakingo duzu, koadroak ere zenbakiekin jarriz. Horretarako, elkartu elementu hauek: etxeko txorrota, araztegia, euria, edalontzia, urtegia, erreka, hodiak herrietaraino. Hemen dagoen hutsarteak bete behar da.*

Koadernoko 7. orrialdea.



9.- ERREKETAN GORA

Azertu dugu ibaiak non amaitzen diren. Baina non sortzen ote dira?

Urek egiten duten kontrako bidea egin beharko dugu. Ibaitek abiatuta lehenik errekekin eta errekatxoekin ondoren topo egingo dugu: Errekatxotik erre kara, errekatik ibaira.

Eta errekatxoan arrastoa mendialdera iritsiko gara. Horixe izango da jarraian aztertuko dugun gaia.

10.- GURE MENDIAK

Liburuxkan Bedoña auzotik egindako marrazki bat topatuko duzue. Lehenik eta behin ikasleei marrazkia arretaz behatzeko eskatuko diegu: zein elementu identifikatzen dituzten, zein mendi diren, zein herri den hor dagoena, eta abar.

Arrasateko udalerraren lur lauak, ibai-errekek sortutakoak, hain zuzen ere, mendi gailurrez daude inguraturik eta herrigunearekiko hurbiltasun handia dute.

Gure udalerraren lur gehienak mendi aldean daude eta mendirik altuenak dira kasu gehienetan muga aldameneko herriekin. Udalatx, Labasur, Murugain, Bakue, Korugaina, Iturritxipiko gaina eta txikiagoak direnak, udalerraren barruan gelditzen dira.

Marrazkian Udalatx eta Anboto ikusi daitezke, erliebe hauek Hirugarrena edo tertziario aroan sortutakoak, herriko gainerako mendiak bezala, baina sekundarioan sortutako koralguneak ere Udalatxeko gailurreko aldean ere agertzen dira.

Arrasate Kantauri-Mediterraneo isurialdeen mugatik gertu dago, Elgea, Urkilla mendikateak (Deba ibaiaren jaiotza mendi lerro hauen magalean ematen da), Arlaban, Gagatzagain, Jarindo Etxaneko haitzak (Arangio, Orixol, Ispiste), inguru honetan jaiotzen dira Aramaio ibaia osatzen dituzte erreka eta errekatxoak. Gure errekek Kantauri itsasora doaz, berriz, aipatu mendien horien beste aldera doazen urak Mediterraneora doaz, Udalatx gailurra dugu Arrasateko gailurrik altuena, gailurrean Elorrio herriarekin muga egiten du..

Hona hemen udalerriko hainbat mendi eta haien garaierak:

UDALATX (1.117)	KORUA GAINA (497)
ERDIKO ATXA (1026)	OTXIAGA (489)
USTAPEKO PUNTA (998)	URKAMENDI (446)
LABASUR (677)	LARRAGAIN (Kurtzetxiki) (531)
MIRUETAGAIN (8531)	BAKUEKO TONTORRA (446)
SAN BIZENTE (474)	KORDILLERAKO PUNTA (484)
ARTAZU (432)	ARTZUBIKO KORTA (484)
SANTAAGEDATX (416)	ETXEZARRETA KO PUNTA (452)
MURUGAIN (780)	ARBEKO TONTORRA (396)
POSTAGAINA (478)	ITURRITXIPIKO GAINA (Anporreta) (582)
MANDOGAINA (419)	LOOKO TONTORRA (402)
	GOIKOBALU (Santa Barbara) (260)



Behaketaren ondoren prest izango dira jarduera egiteko.
Lau esaldi eskainiko diegu. Horietatik egiazkoak markatzeko eskatuko diegu.

JARDUERA1: Marrazkia ikusirik zer esango zenuke?:

Eremu menditsuan bizi garela.

Eremu lauan bizi garela

Gure inguruko mendiak altuak direla

Mendixkez inguraturik gaudela

Baina ezagutzen ote ditugu inguratzen gaituzten mendiak? Ezagunak zaizkigu haien izenak? Inoiz joan ote gara horietako batera.... Jarraian hori guztia aztertzeko proposatu geniezaieke ikasleei. Horretarako bi modutan lan egitea proposatzen dizuegu. Lehenik taldeka eta bakarka gero.

JARDUERA1: Elkartu taldeka eta saiatu gure herriko mendien izenak eta altuerak mapetan biltzen (3. unitatearekin batera banatutako toponimia mapan), Interneten begiratuta edo jendeari galdetuta. Laguntza gisa, sarean hainbat webgune dituzue: Gipuzkoako mendi federazioa, Mendikat, Arrasateko Udala , Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko mendiak.

JARDUERA2: Bai ederra lagunekin aritzea! Orain, zuk zeuk bete taula.

Koadernoko 8. orrialdea.

Horretarako egokitasunik ikusten baduzue, herriko mapa baten gainean aurreko jardueretan aipatu dituzten erreka eta honetan aurkitutako mendiak kokatzen joan zaitezke.

11.- UDALATX.- INTERES NATURALISTIKODUN GUNEA, ALTXOR NATURALA. BIOTOPOA.

Anboto eta Aramatotz mendilerroekin lerrokatzen da, baina bananduta, horietatik isolatuta gelditzen da. Arrasate herriaren elementu erreferentziala, herriaren irudia Udalatxekoarekin banaezina da. Udala auzotik hartzen du izena. Historian zehar arrasatearrentzat beti hodeiartean izateaz gain, aberastasun ugariaren iturri izan da: meategiak, burdina, landaretza, egurra, ura, animaliak...

Urdun edo akuifero handia da, bi erreken arroen banatzailea da, batetik, Deba ibaiarena bere ibaiadar nagusiarekin (Aramaioko erreka) eta, bestetik, Zumelegi errekaarena, zeinek gero Zaldu errekaekin Atxondo-Abadiñon sortzen duten Ibaizabal ibaia.

Aramaioko erreka doazen erreka ugari sortzen dira kare haitzezko mendi honetan eta baita Deba ibaira doan beste erreka baten hainbat errekatxo (Epele) eta Meatzerreka auzoaren hainbat errekatxo.



Mendi ikusgarria da biotopo hau, edozein aldetatik. Dena kare haitza da, goian koralen aztarnak baditu, eta sekulako horma eta haitzak ditu tontorrean, eta baita leizezuloak, harritzak, ... Bere gailurrean mendirik ezagunenak hauek dira: Erdikoatxa (1.002), Gallargain (968) eta Ustakoatxa (882).

Garagartzako Lezetxiki kobazuloa Udalatx inguruko mendietan dago eta horrek esan nahi du antzinetatik bere babesean gizakia bizi zela. Halaber, inguruko mendietan, Labasur gailurra, pasatutakoan, Euskal herriko hiru probintzia (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba) elkartzen dira bertan, **Besaide** puntu geografikoan, eta hor Euskal Herriko eremuan mendian hildako mendizaleen oroimen eguna antolatzen duten urtero.

Berezko landaretza du mendiak, bere inguruan duen artadi kantauriar basoa ikusgarria da eta oso bitxia da klima mediterraneoko basoa delako. Ipar isurian Santa Luziaren muinoan ere artadi ikusgarria dago.

Udala auzoko lehengo Nebera baserrian elurzulo bat dago eta Arrasaten beste bat Kurtzetxiki aldean dago.

Meategiak izan zirenean ustiakuntza handia izan zen Meatzerreka auzo aldean, Udalatxeko minerala kalitate handikoa zelako, baina azaletik egiten ziren gehien batean erauzketak. Gaur egun, esan daiteke bi harrobi dituela, bata Kanpanzarkoa eta bestea, Garagartzan izan arren, inguruko mendietan dagoelako, Kobatekoa; inpaktu handia interes naturalistikodun gunean egoteko. Abiadura Handiko Trenaren obrak egiten ari diraeta tunel handi bat egiten ari dira mendiaren azpitik. Mendi honen Bostiturrieta iturburutik ura hartzen zuten Gesalibar, Garagartzako auzoetarako eta Uribarriko industrialderako, baina AHTren obren ondorioz, iturburua galdu egin da 2011. urtean.

Udalatx mendiaren gailurrean **Igokunderen ermita** zegoen.-“en la sumidad suya tiene una fuerte basílica de cantería, qual para semejante lugar conviene que es del título y nombre de lal sancta ascensión de nuestro señor a los cielos; tomando esta admirable advocación por nombre por la grande ascensión y altura de la peña, donde ha habido ermitaños y personas de letras.Garibaikoa (1570).

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, 1769. urtean Tolosan egindako bileran, beharrezko ez ziren ermiten itxiera agindu zuen eta, horren ondorioz, 1771. urtean ixteko agindua eman zuen eta harrez gero, bertan behera utzi zuten, eta egun aiurrian dago. (Nestor Goikoetxea).

1971ko urriaren 12an Arrasatetik ikusten zen gurutze bat jarri zuten gailurretik (Arrasateren eta Elorrioren arteko muga) gertu eta “Udalatx eguna” hasi ziren ospatzen, baina aspalditxotik ez da ospatzen herrian.



UDALAKO MARTIN ABADEREN LEGENDA.

"Elezaharrak dioenez, Udalako eliza zaintzen zuen Martin abadeak, baina haren benetako zaletasuna zen ehizan egitea. Halako batean, meza ematen ari zela, erbi baten atzetik zihoazen zakur batzuen zaunkak aditu omen zituen. Apaizak meza bertan behera utzi, eskopeta hartu eta erbien atzetik jo zuen, ziztu bizian. Berehala ezkutatu zen goi mendi artean eta ez da izan geroztik haren berririk. Gau hartan ekaitza handi bat izan zen eta abadea ez zen itzuli auzora. Biharamunean auzotarrak irten ziren bere bila eta toki askotara joan baziren ere, Larriñora, Bedoñara, Arrasatera...ez zuten topatu.

Zer gertatu ote zen, bada? Inork ere ez daki, baina artzainek esaten dute, Udalatxeko harkaitza lainoak inguratzen duenean, oraindik entzuten direla txakurren zaunkak, abadearen oihuek xaxatuta. Martin abaderen izpirituz omen da, bere erruen ordainetan, noragabeen ibiltzera, atsedena hartzeke, zigortu baitzuen Jaungoikoak.

(Juan Iturralde y Suit idazle nafarrak 1882. urtean jasota (moldatuta))

12.- ELKARREKIN BIZI GARA: ANIMALIAK

Animaliak eta landareak ere gurekin batera bizi dira. Zalantzarik gabe asko dira bi multzo horietan multzoka daitezkeen bizidunak. Guk, horietako batzuk besterik ez ditugu aipatuko. Gure udalerrian, bestalde, bizidun mota oso desberdinak aurkituko ditugu herrigunean, mendialdean, ibaietan eta hezeguneetan, basoetan, eta abarretan.

Denok, guk, gainerako animaliekin eta landareekin espazio bera partekatzen dugu askotan. Denok dugu denon beharra bizirauteko eta horretan sakontzea proposatzen dizuegu. Udalerrian galtzeko arriskuan dauden hainbat espezie dugu, eta zenbaitetan gure esku dago haien alde zerbait egitea.

AGENDA 21en baitan gai honen ingurukoak sakonago aztertuko dituzuenez, segur aski, guk haien aipamena baino ez dugu egin nahi.

Aipamenarekin batera, gainerako bizidunekiko zaintzan eta babesean dugun erantzukizuna gogora ekarri nahi dugu, bide batez, sekula soberan izango ez delakoan.

Gainera, beste animaliak eta landareak zaintzerakoan eta babesterakoan, neurri handi batean, gure burua zaintzen eta babesten ari gara.

JARDUERA₁: Zein animalia irudikatzen duzu bizi direla udalerrian?

Udalerria bizilekutzat dutela uste duten animaliak taulan ipintzeko eskatuko diegu. Ahalik eta aberatsena izan dadin, udalerraren egitura kontuan izateko azpimarratu beharko diegu. Horretarako, taula betetzen hasi aurretik denon artean aipatu ditzakegu udalerriko hainbat leku. Gainera, leku horiek nolakoak izango diren, eta horien ondorioz nortzuk bizi daitezkeen han pentsatzeko eskatu diegu.



Norberak taula osatu duenean, jarraian eskaintzen dizuegun testua irakurriko diegu. Arretaz entzuteko eskatuko diegu. Izan ere, gero, imajinatu dutena alderatu beharko dute.

"Gure udalerriko mapa begiratzan badugu, osatzen duen eremuak hiru zati berezituak dituela ikusi ahal izango dugu. Zati bakoitzak, dituen ezaugarrien arabera, ekosistema desberdinak osatzen ditu, eta, horren ondorioz, desberdinak izango dira zati horietako bakoitzean aurkitu ditzakegun bizidunak.

Lehen zatia, udalerraren ia erdialdean kokatzen dena, lauena eta populatuena da. Han daude gure herriko auzo gehienak, eta bertan bizi gara biztanle gehienok.

Zati honetan aurkituko ditugun animaliak, gehienak, etxeke animalia heziak dira.

Bigarren eremu zatian mendixkak daude. Han baserrietan eta baserri giroko auzoetan bizi da jendea, Garagartza eta Gesalibar auzoetan.

Inguru horretan aurkitu ditzakegun animaliak baserriko animaliak dira, gehienbat, baita mendialdetik elikagai bila datozen animalia basatiak ere, azeriak kasu.

Hirugarren eremua goi-mendiko lurrek osatzen dute: Udalatx, Besaide, Murugain, Mandoain, Ikutixoko ibarra, BedoñaLarragain. Kurtzetxiki, Otxiaga, Bakue, Artxubiko korta, Etxezarretako punta. Inguru horretan apenas bizi da jendea. Han bizi diren animaliak animalia basatiak dira, adibidez: basakatua, katajineta, erbinudea, azkonarra, katagorria, azeria, orkatza, basurdea, kirikinoa edo trikua, okila, hontza, kukua, mirotza, txepetxa, kukulamera, urubia, zapelatza, bisoi europarra, muturluze piriniotarra, amuarraina, aingira, ezkalua, igela, apoa, uhandrea, ur-sugea, martin arrantzalea,..."

JARDUERA₂: Entzun arretaz eta markatu zure iritzia egia den edo ez.

JARDUERA₃: Udalerrian bizi ez direla pentsatu izan dituzun animaliak.

JARDUERA₄: Margotu imajinatu dituzun basoko eta etxeke animalia bana.

Koadernoko 9. orrialdea.

13.- ANIMALIEKIN BATERA LANDAREAK DITUGU.

Aipatu ditugu udalerrian bizi diren animalietatik batzuk. Orain beste bizidunei, landareei egingo diegu kasu. Hasteko, galdetuko diegu ikasleei honetaz zer uste duten.

JARDUERA₁: Landaredi aberatsa dugu herrian?

JARDUERA₂: Erantzuna eman aurretik aztertu dezagun...horretarako Arrasateko webgunearen barruan (www. arrasate.eus/parkeak sartuko gara, zuhaitzen inguruko informazioa jasotzeko).



Hor zuhaitz guztiek zenbaki bat dute eta, informazioa eskatuz gero eta zenbaki horren gainean jarriz gero, zuhaitz horri buruzko kokalekua (auzoa, kalea), familia, mota, autoktonoa den edo ez, zein zoladuratan dagoen, izena, altura, diametroa, inausketa mota eta argazkia. Bost atal ditu informazioak: a) zuhaitzen inbentarioa, b) inausketa, c) familia d) autoktonoak e) espeziea. Gainera, aprobetxatu daiteke berriro lantzeko herriko eta auzoko kaleen izenak eta kokalekuak.

Beste aldetik, gida pedagogiko horren eranskinean landare eta sendabelarren izenen hiztegia duzue lantzeko. Ondo legoke pixkanaka-pixkanaka landare bakoitzaren deskribapena, habitata, loraldia, bertute eta erabilerak eta bitxikeriak lantzea, sarean aurkitu dezakezuen informazioarekin, eta gauza bera sendabelarrekin- sendabide natural moduan hainbat belar erabili ohi dira.

Orri hori ezagutu eta haren bueltan jira-biraka ibiltzea proposatu nahi dizuegu.

Beraz, hurrengo jardueri ekin aurretik, lehenengo orrialdea arakatu beharko dute. Arbel digitala erabiltzen baduzue, lehenik, denen artean ikusi ditzakezue zuhaitzak, interesatzen zaizkienak, batzuk adibide gisa, eta abar.

JARDUERA₃: Zenbat zuhaitz mota ezagutzen duzu?

JARDUERA 4: Hemen behean dituzun hostoak zein zuhaitzenak dira? Bost zuhaitzen hostoak dira. Ea ezagutzen dituzun urki, pinu, pago eta astigar zuhaitzen hostoak.

Ikasleen ezagutza jakiteko bost zuhaitz hostoak jarri ditugu. Arrasaten gehien ikusten direnak dira, baina lehenengo begiratuan ziur asko zaila izango da ariketa hau, baina arbolen izenak emanez gero, proposatu diezaiekegu ikasleei sarean topatzea arbola hori eta kontrastatzea bertan dagoen irudiekin.

Arrasaten, txoko natural ugari ditugu eta bakoitzak ditu bere ezaugarriak: harizti baso mistoa, artadia, haltzadia, atlantiar otadi iratze lekua, abaritzia (abaritzia), zelaiak, albitz belardiak, kareharri pretxilardia, kareharri larreak, hartxingadietako landaredia eta harkaitzetako landarediak. Txoko natural horiez gain, pinudi ugari dugu. Udalerrriaren zatirik handiena jabego pribatuaren eskuetan dago eta duela hamarkada batzuk bertako zuhaitz espezien ordez pinus intsignis edo pinus radiata-k sartu dituzte modu masiboan.

Txoko natural eta baso bakoitzak bere landaredia eta animalia propioak ditu.

JARDUERA₅: Eta zein landare ezagutzen duzu?

JARDUERA₆: Badakizu belar gehiagoren izenik?

JARDUERA 7.- Sendabelar gehiago ezagutuko dugu. Baita haiek zelan erabili ere. Zuen etxean erabiltzen duzue sendabelarrik? Zelan? Galdetu etxekoei.

Etxe askotan sendabelarrak erabiltzeko ohitura dute. Garai batean asko ziren haiek erabiliz sendatzen ziren eritasun eta gaitzak. Pixkanaka, botiken erabilerak haiek baztertu ditu, eta jakituria handia galdu dugu.



Hala ere, baliteke gure ikasleen etxeetan, oraindik, hainbat sendabelar erabiltzea. Ikasle bakoitzari etxean erabiltzen duten edo ezagutzen duten sendabelar baten inguruko fitxa bat betetzea proposa diezaiokegu: izena, argazkia, nola eta zertarako erabiltzen den eta nor izan den berriemailea.

Nahi izanez gero, taldeko fitxa guztiekin sendabelarren bilduma osatu dezakegu. Ikasle bakoitzari bildumaren ale bat eman diezaiokegu etxera eraman dezan. Horrela, denon artean sendabelarren gaineko ezagutza aberastuko dugu eta izan ditzakegun gaitzak sendatzeko beste bide bat erabili.

JARDUERA 8.- Herrian badaude hainbat gune zuhaitz multzo handiekin. Ea asmatzen dituzun zein zuhaitz diren eta non dauden.

Udalatxeko artadia, udalerrri osoan pinudi asko dago eta Monterron parkean, beste zuhaitz batzuen artean, Gipuzkoako sekoiarik handienetarikoa daude. Argazkiak ikustean, ikasleei galdetu behar diegu non kokatu dituzten argazkiak eta zein baso edo arbola izan daitezkeen.

Koadernoko 10. orrialdea.

14.- ABARITZA.-

Udalatxeko maldan, Larragainen, Gipuzkoan dagoen zuhaitz mota bakarra dago. Abaritza du izena. Mediterraneoko kliman hazten den zuhaixka da eta inguru honetan altxor naturala da.

1994an Geobotanikako ikasle talde batek Unibertsitateko lan praktikoko batean, Larragain aldean antzeman zuten ezaugarri bereziko aleak zeudela Udalako arteetan. Susmatu zuten abaritza izan zitekeela eta urte gutxi batzuk geroago, hainbat adituk baieztatu zuten abaritza zela.

Udalako errepide bidean gora, magal oso bat estaltzen du, Larragaingo haitzaren azpian, abaritza basoa. Zuhaixka edo zuhaitz txikia da abaritza (*Quercus coccifera*), sei-zortzi metro hazi baldin badaiteke ere gehienetan metro pare bateraino baino ez da luzatzen. Landare peto-peto da eta *Quercus* sendikoa-haritz, ametza, artea, artelatza, erkametza- eta Euskal Herrian, Nafarroan eta Araban, beren urak Mediterraneora isurtzen dituzten lurretan izan da ezaguna beti. Zuhaitz hau, atlantiar isurian, ordea, erlikia bat da. Bizkaian, 1989an Muskiz aldean topatu zuten eta penintsulako abaritzarik iparrekoena da. **Gipuzkoan, bakarra Arrasateko Udalatx mendiaren hegoaldean da.** Euskaraz zumal eta zumel ere deitu izan zaio abaritzari eta begira! Udalatxen ipar isurian, Elorrio aldera Zumelegi ibaia jaiotzen da, Arrazalorekin bat egitean **Ibaizabal ibaia** osatzen duena.

Abaritzaren ezkurra mikatza da eta besterik ezean ahuntzek-eta jan izan dute, erreta, berriz kafearen ordekoa izan da. Egur txikia sutarako botatzen zen.



JARDUERA₁: *Zure ustez, Arrasatek duen klima alderatu dezakegu klima mediterraneoarekin? Alderatu lau osagaiok (temperatura, euri kantitatea, haizea, eguzki-orduak)*

Koadernoko 10. orrian

15.- GURE PARKEAK. BERDEGUNEAK.

Azken urteotan hainbat parke eraikitzen joan dira gure auzoetan. XX. mendean izan zen biztanleen hazkunde izugarriak non-nahi eta nolana eraikitzea ekarri zuen. Egun batetik bestera auzo handiak eraiki zituzten. Auzo horietako azpiegitura ez zen batere zaindu. Etxeak egin bai, baina haietan biziko ziren lagunek ez ziren kontuan izan.

Auzo auzo joanez hauek dira ditugun parkeak:

GOIKOBALU (SANTA BARBARA): Zuhaitzez eta berdegunez beteriko muinoa. Arrasateko toki askotatik joan daiteke parke historiko honetara, bideak, bidezidorrak, gaina. Erakargarritasun berezia du parkeak. Zuhaitz mota asko dago, urkiak, akaziak, sahatsak, pinuak. Txoko ugari, bankuak eta gainaldea Goikobalu, eta hor ikusiko ditugu bertan izandako gaztelu baten zutabeen aztarnak.

MONTERRON: Baso lorategi handia. Sekuoiak, ezkiak, nekostak, magnolioak daude. Toki lasaia zaratatik aldentzeko. Koadrilak egoteko toki ona da. Eszenatokia eta harmailak daude parkean, eta udaberrian zein udan ikuskizunak antolatzen dituzten bertan.

ARRUENEA: Beste hainbat zuhaitziren artean, parke honetan haltzak, hosto gorriko pagoak, palmera txiki batzuk daude. Deba ibaiaren ondoan dago eta zubi bat dago erreka pasatzeko, Mojategiko kirol instalazioetara joateko. Parke honetan brontzezko asto bat dago beti prest bertan, umeak bere gainean eseri daitezten. Parkearen barruan erabilera anitzeko gune bat dago eta hemen ikuskizun asko (zirkoa, jaialdiak...) antolatzen dituzte.

ZALDIBAR: Izen bereko frontoiaren ondoko parkea da, zabu eta zuhaitz ugarirekin.

BITERI PLAZA: Akaziak eta urkiak daude parkean, txintxaunekin batera. Azpian lurpeko aparkalekua dago eta horregatik lur gutxi dute sustriak errotzeko.

ALDAI: 1.993. urtean itxi zen kanposantua eta urte horren bukaeran San Kristobalgora zabaldu zuten. 2010. urtean zeharo berritu eta bertan parke bat egin zuen Udalak. Hilerririk zeuzkan pinuak eta nekostaren bat edo beste mantendu dira, eta landatu diren zuhaitz berriekin parkea dotore utzi dute. Parkeak duen estalgunea ikusgarria da eta bertan hileta zibilak edo ekintzak egiteko prestatuta dago.



MUNAR: Gaztelua motibotzat hartuta hainbat txintxaun dago eta jolasgunea Aramaio ibaiaren ondoan, Otalora Litzentziaduna kalearen azpian desagertu baino lehen... Santa Barbara muinoaren maldaren ondo-ondoan zuhaitzekin dago babestuta.

SAILUENTE.S ailuente kaletik Elkano kaleraino doa parkea. Txintxaun eta zuhaitz ugari du.

DOKTOR KORDOBA Y ORO: San Andres auzoan.

GELMA: Euskal Herria plaza da zabaldu den azkena. Txintxaunak eta zuhaitz batzuk ditu. Zuhaitzen artean, magnolioak eta palmera txiki batzuk daude.

ZERRAJERA ETA SKATE GUNEA. Zerrajera enpresak lehen okupatzen zituzten lursailetan etxebizitza bloke batzuk egin dituzte eta horietako bi gunetan, bata, lehenengo Apendizien eskolaren ondoan eta Anbulatorioaren atzealdean bi parke egin dituzte. Txintxaun ugariarekin hornituta daude eta zuhaitz gazte batzuk landatu dituzte.

-Skate guneari dagokionez, 2010. urtean irekitako gunea da eta "skate"rekin ibiltzeko pista bat izateaz gain, zurezko aterpetxea du, parkea zubirantz doan espaloia estaltzeko, eta banku ugari du.

OLANDIO.- Lan Kide Aurrezkiak (Euskadiko Kutxa) eta hainbat kooperatibak beren egoitza Olandio muinoaren gunean dute. Zuhaitzez eta berdegunez beteriko esparrua da.

GARIA BERRIKUNTZA GUNEA.- Ikerkuntzarako zentro honen esparruan, berriki zuhaitz mota ugari jarri dute. Lantegiez gain, berdegune handiak ditu eta zuhaitz mota asko landatu dute.

OINEZKOENTZAKO IBILBIDEA.- Hasiera batean, Musakolako kiroldegitik Uribarri auzoraino zihoan ibilbidea da (Gernika izenekoa), baina, gaur, jarraipena Garagartza eta Gesalibarreraino du eta Zigarrola auzotik abiatuta, Bergarako Elorregi pasatuz Bergara herriraino iristen da. Ia ibilbide osoa bi aldeetan astigarrez, "astigar zuriez" beteta dago eta ibilbide honetatik herri osoa zeharkatu daiteke. 2013an Arrasatetik Oinatira doan bide gorria, lehenengo Vasko Nabarro trenaren trenbidearen ibilbidea erabiliz, inaguratu zen.

Udalerriko lurrik gehienak pribatuak dira eta berez parkeak ez badira ere, bi baso edo mendi baso publiko garrantzitsu daude herrian: Kurtzetxikiren hainbat lurrez osatzen dena eta Hidalgo basoa. Etxezarreta basoko lursailak, berriz, pribatuak dira eta sekulako aberastasuna du horko landaretzak.

ETXEZARRETA.

Finkaren jabea Rafael Ariza Echezarreta meategietako injinerua, mediku homeopata, garai hartako estatuko onenaritakoa omen zen. Kultura zabalekoa zen eta hainbat hinkuntza menperatzen zituen, frantsesa, alemana, italianoa eta euskaraz ere ondo hitz egiten zuen.

XX. mendearen hasieran berak egindako planoei jarraituz baserria finka handi bihurtu zuen, garai hartako abeltzaintza, basogintza eta hegaztigintzako berrikuntza aurreratuenez hornitu zuen.



-Aipatzekoa da, instalazioei dagokienez, ikuilua Europako onenatarikoa omen zela, jakitunek ziotenez. pirenaika eta suitzar arrazako lehiaketetan bere ganaduak sari ugari lortu zuen, irabazitako plaka jartzen zion behi saritu bakoitzari aldamenean.

-Halaber, finka, baserriaren inguruko basoak birpopulatu zuen. bertako espeziak landatzeaz gain, zuhaitz exotikoak landatu zituen eta baita fauna ere (pauma, eta abar).

- Liburutegi handia, ona zeukan, Gipuzkoako bigarren garrantzitsuena omen zen, eta bertara hainbat intelektual etorri ohi zen, hala nola, Gregorio Marañon, Pio Baroja...

-Baserriaren lurretan lurperatuta daude haren arreba eta bera, Rafael.

- Antzinatek baserrian aparteko sagardoa egiten zelako, baserriari esaten zioten "Sagastitxea", bertan sagardoa egiteko dolarea eta makineria zegoen. ospe handiko sagardoa egiten zuten bertan eta Arrasateko hainbat baserri eta etxeetara zein Gipuzkoako hainbat herritara saltzen zuten.

KURTZETXIKI (LARRAGAIN). 2013.urtean Udalak Larragaineko gunea (514 metrotako altitudetan) egokitu du abelkuntzarako aprobetxamendua izateko eta bertara joateko bi ibilbide desberdin balizatu ditu herritarrek aisialdirako probesteko. Margoturiko bide bat berreskuratutako **elurzuloaren** ondotik pasatzen da.

Gailur aldean larreak egokitu dira ganaduentzat, gunea bat hesitu da eta bertan , handik ikusten diren mendien kokapen mapa jarri da.

***KURTZETXIKIKO ELURZULOA**

Antxon Agirre Sorondo historialariak 250 elur zulo inguru errolatu du Euskal Herrian, eta horietatik bi Arrasaten daude. Bata da **Udala auzoko Nebera baserrikoa eta bestea Bedoña auzokoa, Kurtzetxiko maldan.**

Kristo aurreko 3.000 urtean kobazuloetan izotz eta elur prentsatu artean gordetzen zuten haragia Mesopotamian. Euskal Herriko elur zulo gehienak XVIII. mendekoak dira eta Bedoñakoa, ziurrenik, XIX. mendekoa.

Auspobaltz baserriko bizilagun batek eskatu zion Udalari elur zuloa berreskuratzeko, eta udaleko Ingurumen sailak esparru bat garbitu zuen, bi metroko sastrakez betea eta oteez ezkutatua zegoena.

Bost metroko diametroa du eta 10-12 metroko altuera, harrizko hormak ditu, eta duela gutxi Udalak mendi bide bat markatu du leku horretaraino.

Elurra ez zuten edozelan sartzen, kapetan banatuta sartzen zuten. Izotz geruza baten gainean hosto lehorrak, eta gero bi geruzak prentsatzen zituzten.

Zerraz edo aizkoraz mozten zuten izotza, eta herrietara astotan eramaten zuten, batez ere



gauetz.

Garai hartan izotza erabiltzen zen helburu medizinalentzat, sukarrari aurre egiteko, jakiak kontserbatzeko eta izozkiak eta freskagarriak hozteko.

Joan zen mendeko lehendabiziko hamarkadetan horrela erabiltzen zen izotza, baina gero, teknologiak garatu ahala, erabiltzeari utzi zioten.

Arrasaten, joan zen mendearen hainbat urtetan, Martin "Bixi" Abarretegik izotz fabrika izan zuen

***GARAGARTZAKO ARTEA.**

Garagartzako artea ezaguna izan da hainbat mendetan eta Gipuzkoako zuhaitzik zaharrentzat hartua izan da.

Zuhaitza zegoen Gesalibarrera doan errepidearen eskumako aldean, auzoko eskolaren ondoan eta San Migel parrokiatik gertu. errepidearen gainetik arku bat osatzen zuten artearen abarrek.

Serapio Mugikak, 1905ean argitaratutako "Geografía del Pais Vasco Navarro"ren Gipuzkoako alean, orduan garaian, zegoeneko 4 mendeko bizitza aitortzen zion. Geroago, beste informazio iturri batzuek zioten 600 urte inguru zeukala eta garai hartan 612 urtean kokatzen zuten haren adina.

"Quercus ilex" familiakoa zen eta 18 metroko garaiera zeukan, 20 metro kopako diametrokoa eta 4'80 metro perimetrokoa, lurretik 1'5 era.

Gaixorik zegoen aspalditik; lagun talde batek bere altzoan gaua pasatu zuenean, sute bat egin ei zuten eta enborrharen barruan zulogune handia eragin.

Euriak eta haize indartsu batek lurrera bota zuen arbola 1969ko irailaren 14an, 15:30ean.

JARDUERA 1.- Horetaz gain, herrian parke gehiago dago. Besterik ezagutzen baduzu, idatzi hemen?

Azken urteetan, beraz, espazio berdeak ugaritu dira herrian eta plaza berriak sortu dira. Baina nahikoak ote dira?

JARDUERA1: Nahikoa parke ote ditugu herrian... eztabaidatu taldean.

Herrian ditugun parkeak desberdinak dira haien artean. Landaredia eta fauna desberdina dute. Gainera, parke bakoitzean topatu ditzakegun zerbitzuak, elementuak, zuhaitza motak, eta abar desberdinak dira.

JARDUERA2: Taldeka bildu eta aukera ezazue herriko parke bat: gustukoena duzuen, zuen auzokoa, ikastetxetik hurbil dagoena edo nahi duzuen.



Behatu ezazue eta, gero, hartu dituzuen oharrak ordenatu eta lagunei aurkezteko, osatu deskribapen testua. *Ez ahaztu argazkia ere jartzea.*

Liburuxkan parke bati buruzko fitxa prestatzeko proposamena egingo diegu. Horretarako, espazioa hutsa aurkituko dute, informazioaz gain, fitxa bera ere beraiek diseinatzeko.

Nahi izanez gero, jarduera taldeka egitea proposatuko diegu, eta aurreko talde bera mantendu horretara. Beste aukera bat izan liteke lana bakarka egitea. Lana errazte aldera, ikasleei aurrez adierazi beharko diegu parke bat aukeratu beharko dutela eta haren gainean ahalik eta informazio gehien bildu beharko dutenez, taldeka egiten diren aurkezpenetan apunteak hartzea proposatuko diegu. Denbora behar dute, beraz, nahi duten parkea aukeratzeko.

Hainbat iradokizun egingo diegu. Adibidez, informazio guztia ez dago zertan eman idatziz, ikurrak erabili ditzakete. Parkeen gaineko informazioa aztertzean, ikasleak ohartuko ziren ikur asko erabili dituztela. Horiek berak edo beraiek asmatutakoak erabili ditzakete.

Informazioa era ahalik eta ordenatuenean biltzea aholkatuko diegu. Nahi izanez gero, datuak bildu eta antolatzeke taula eskainiko diegu. Taulan datuak jarria aurretik taldekideekin akordioetara heldu beharko dute, bakoitzak norberaren informazioa edo ikuspuntua eskainiko diegu taldeari eta gero taldean eztabaidatuko dute informazio guztia, eta denen artean erabaki zein den baliagarriena edo interesgarriena.

Koadernoko 11. orrialdea.

16.- UDALERRIKO GAINERAKO PARKEAK

Orain arte aztertu eta ezagutu ditugun parkeak herrigunean daude, herriko auzoetan. Herrigunetik kanpo, halaber, baditugu beste bi parke garrantzitsu.

JARDUERA: *Ezagutzen duzue udalerrian beste parkerik? Badakizu non dauden eta zer izen duten?*

17.- AIZKORRI ARATZ PARKE NATURALA

Parke honek 14.626 hektarea du. Arabako Asparrena, Zalduendo, San Millan eta Barrundiako udalerrien lurrek eta Gipuzkoako Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati, Legazpi, Zerain, Zegamako udalerriek eta Partzuergoko lurrek (Urbia) osatzen dute parkea.

Aizkorriko mendilerroan Urola eta Oria ibaiak jaiotzen dira eta Elgea mendilerroko Hiruerreketan Deba ibaia. Hor daude Gipuzkoako mendirik altuenak, Aitzuri (1551), Aitzabal, Arbelaitz, Iraule, Aizkorri, (1528) Aketegi.

Aizkorri mendizerran dute kotarik garaiena Atlantikoko eta Mediterraneoko isurialdeak bereizten dituzten mendiek.



kuspegi geologiko eta paisajistikotik bi zonalde bereizi daitezke: bata, kare-harrizko gailur malkartsu eta arrokatsoak, haranean larrez beteriko lautadak izan ditzaketenak eta, bestea, ia batere harririk ikusten ez dutenak.

Parkeak hainbat sarbide ditu: Oñatitik abiatuz gero, Arantzazurako bidea hartuta, Zegamatik, Otzaurte gainetik, Aretxabaletako Urkulu urtegitik eta, oro har, parkea osatzen duten Arabako zein Gipuzkoako herri guztietatik mendi bide ugari dago parke naturalean sartzeko.

Parke honek bi interpretazio zentro ditu: bata Oñatiko Arantzazu santutegiaren Gandiaga eraikinean eta bestea Zegamako Andueza baserrian.

Mendiak muga natural sendoak izan arren, antzinatik zeharkatu du gizakiak, horren seinale San Adrian tunela, Leizarrate, Gipuzkoatik Arabara pasatzeko eginikoa, nondik galtzada erromatarra pasatzen zen, lautadarako paseabidea izanik, Gaztelarako eta Europarako. Inguru honetan monumentu megalitiko ugari dago eta gaztelu bat zegoen bertan.

Florari dagokionez, harizti eta pagadiekin batera mendietako espezie interesgarriak daude eta faunari dagokionez, belatz handia, sai arrea, katamotza eta gailurretako uhandreak dira ugariak. Pentze ederrak daude artzaintzarako Urbian eta Degurian (Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaletako udalerrien sakonunea) eta bertan ardi latxak bazkatzen dute, artzainen babesean.

JARDUERA₁: Ezabatu parke honetan ez dauden elementuak:

Errekatxoak, Aizkorri mendia, Udalatx mendia, haitzuloak, bidegorriak, lorategiak, zaldiak, saiak, haize errotak.

Koadernoko 12. orrialdea.

18.- URKULU URTEGIAREN HEZEGUNEA. (ZEINTZUK BIZI DIRA URKULUN)

JARDUERA₁: Unitatean bazenekien? galdera egingo dugu apartatu honetan. Jarduera egiteko ondo legoke testua irakurtzea gero ikasleek gehiago jakin dezaten hezegunearen inguruan. Galderarekin loturiko informazioa letra beltzez jarrita dago.

Eskualdeko herrietara ura eramateko sortu zuten 1979an Urkulu urtegia. Lehen baserri batzuk zeuden tartean, horietako bat Urkulu izenekoa, jarri zuten, lau urteko lanen ostean. Presak 49 m-ko altuera eta 160 m-ko zabalera. Edukiera 16'30 Hm³-koa da eta okupatzen duen azalera 19'26 km²-koa da. Urkuluk Urbeltz errekatxoaren urak jasotzen ditu eta urak lekuz aldatzearen bidez, Eskoriatzako Bolibar errekatxoaren eta Arantzatzu errekatxoaren arroaren urak (Artixe). Urtegiaren funtziorik garrantzitsua da Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Oñati eta Antzuolako herriak edateko urez hornitzea.

Ofizialki 1986. urtean (unitate didaktikoan 1984. urtean agertzen bada ere) iritsi zen Urkuluko ura Arrasateko etxeetara.



Aretxabaletako herrigunetik hiru kilometrora dago eta Aizkorri-Aratz parke naturalaren sarbide ere badugu, herri giroak eta mendialdeak bat egiten duten natura gunean. Urtegiaren inguruan, Kurtzebarri (1.133 m.), Elorretako haitza (1.147 m.), Gorordo (692 m.), Orkatzategi (864 m.) mendiak daude eta lau auzo (elizate), hura zaintzen baleude bezala: Larrino, Aozaratza, Areantza eta Goroeta; 189 pertsona bizi dira inguru horretan.

Landa gune osoan larre ederrak daude eta bioaniztasun handia. Baserriez gain, abeltzaintza eta nekazaritza ustiategiak ere badira auzootan. Azken datuen arabera, abeltzaintzan dauden abereen ia erdiak ardiak dira, 386 buru inguru, eta behiak beste horrenbeste, 407 buru inguru.

Basoei dagokienez, pinuak dira leku gehien betetzen duten zuhaitzak, baina badaude bertako espeziak ere, esaterako artadiak inguru beroenetan eta hariztiak hezeenetan.

Mozoloa eta hontz zuriak dira baso horietako eguneroko biztanleak, toki gutxitan aurkitu ditzakegun hegaztiak dira. Nabarmenezkoa da, bestalde, urtegiaren dagoen irlako hariztia, aspaldiko landareen erakusle eta hegazti ugariaren gordeleku. Neguko hotza pasatzeko aukeratzen dute hegazti batzuek: basa ahateek, kopeta-zuriek, antzarek, koartza hauskarek.. Eta beste hegazti asko ohiko bisitariak dira urteko sasoi horretan. Udaberrian ere hegazti ugari izaten da, ugalketa sasoirako etorriak. Adituek diotenez, urtean, Urkulun 125 hegazti mota ikus daitezke, eta horietatik 36 galzorian.

Pasieran, korrikan eta bizikletan ibiltzeko, hegaztiak behatzeko eta aisialdia profitatzeko toki aparta da Urkulu, eta jende asko hurbiltzen da bertara. Horregatik, hain zuzen ere, hasi ziren apurka-apurka urtegiaren azpiegiturak egokitu eta naturaren kontserbazioa segurtatzeko hobekuntzak egiten.

Duela urte batzuk Aretxabaletako bainuetxeko industria eremutik bidegorria egin zuten eta 2011. urtean, urtegiaren alboan dauden Aozaratza eta Goroeta auzoak lotzeko bidegorria egin zuten eta elbarrientzat ere egokituta dago. Arrantzarako irisgarritasuna ere hobetu zuten eta gune berezia jarri zuten ezintasunak dituzten pertsonen inolako arazo barik arrantzan egin zezaten.

Berrikuntza horien barruan, urtegiaren inguruan auzo, zuhaitz eta landareei buruzko ibilbide autogidatu didaktikoa egin zuen Aretxabaletako Udalak Naturgintza Fundazioaren laguntzarekin batera.

Hegaztiak behatzeko ere toki batzuk daude egokituta.



19.- ORTU EKOLOGIKOAK

Tokiko Agenda 21 garatzearen ondorioz, Garagartza auzoan ortu ekologikoak jartzea erabaki zuen Udalak, lau helburu jarraituz: a) Aisiako txabolismoa errotik kentzea udalerrian. b) Sustatzea aisi aktiboa. c) Jarduera eskaintza zabaltzea gizarte egoera ahuleko taldeentzat eta d) sustatzea lehen sektorea, or ohar, eta nekazaritza ekologikoa, bereziki.

Inaugurazio ofiziala 2009ko azaroaren 21ean izan zen eta guztira 87 ortu dira, horietatik zazpi Udalarenak eta partzela bakoitzak 50 metro karratu ditu batez beste. Horretaz gain, 144 metro karratuko txabola egin du Udalak eta bertan bulego txiki bat, aldagelak, takilak eta komunak. Ortuak erabiltzaileek elkarrekin banatuko dute tresneria eta txabolaren gela batean dago bilduta. Erabiltzaile bakoitzak txartela izango du eta horrela aukera izango du txabolara sartzeko eta tresneria hartzeko.

Ortuotan debekatuta dago herbizidak, pestizidak eta ongarri sintetikoak erabiltzea, eta ortuak erabiltzeko izena eman zutenek nekazaritza ekologikoaren inguruko ikastaroa egin behar izan dute.

Inaugurazio ofizialaren egunean lurraren analisia ere egin zuten eta lurra kalitate onekoa eta emankorra zela ondorioztatu zuten.

Gune horretan ere konposta biltzeko gune bat jarri du Udalak. Ortuak irekita egoteko ordua ere ezarri du Udalak: neguan, 9:00-20:00; eta udan, 9:00-22:00.

JARDUERA1.- Ortuak lan egiteko zein tresna da beharrezkoa? Aipatu banaka batzuk.

Koadernoko 12. orrialdea.

20.- ARBIGARA: ARRASATEARREN JANARI ALTXORRA.

JARDUERA1.- Ezagutzen duzu?

Unitate didaktikoaren testuan azaltzen da zein landarerekin egiten diren arbigarak eta zelan prestatu behar diren.

Lehen herrian abeltzaintza eta nekazaritza eremuak handiagoak zirenean, arbi sail handiak zeuden animaliei jana emateko, baina gaur egun baserri gutxitan ikusiko ditugu arbiak.

Sasoia denean herriko azokan saltzen dituzte baserritar batzuek, baina beste batzuek etxerako gordetzen dute jaki preziatu hau. Zertan datza bere berezitasuna? Batzuek diote arbiaren hostoak eta tuberkulua animalientzako jana dela, baina prestatzeko eran dago bere



sekretua, uretatik behin, birritan, hiru bider pasatzea... mingostasuna areagotzeko edo gutxitzeko osagaiak. (hirugihar, bikarbonatoa..). Antzinako platera da eta hainbat urtetan Arrasatekoa bakarrik zela esaten zuten, baina Arabako Aiara bailaran (Ugao, Audio...) ere jaten dute, beraien erara prestatuta, eta beste modu batez, Galizian.

Batzuk altxor preziatu gisa, sasoi batean baino gehiagotan jateko izozten dute janaria, aldian-aldian jateko, haren zapore bereziaz gozatzeko.

Koadernoko 12. orrialdea.

21.- ZABORRAK

Gizakiok beti sortu dugu zaborra. Industrializazioarekin herrira jende gehiago etorri zen bizitzen eta geroago eta zabor gehiago sortzen genuen. Udal ordenantzek debekatzen zuten arren, jendeak erre kara botatzen zituen etxeetako zaborrak.

Badakigu beste garai batzuetan zaborrek zein ibilbide egiten zuten. Eta gaur egun guk sortzen dugun zaborrak zein ibilbide egiten ote du?

JARDUERA 1.- Badakizu, gaurko egunean, zein bide egiten duen zaborrak? Adierazi marrazkiez.

1992an Rio de Janeiroko "Lurraren gailurrean" Agenda 21 izeneko plana proposatu eta onartu zuten munduko 173 gobernuak. Agenda 21 garapen jasangarrirako proiektua da, ingurumenaren babesaz gain, alderdi ekonomikoak, sozialak eta kulturalak biltzen dituen proiektua. Harrezkero, toki bakoitzeko biztanleen eta agintarien parte hartzea eta haien ahalmenak indartzea dira Agenda 21aren oinarritzko filosofia.

Zaborraren gaia da azkeneko urteotan AGENDA 21 sarri lantzen ari den gaia, etengabe. Zaborra duela urte batzuk Akeiko zabortegira (Meatzerrera auzoa) eramaten zuten errausteko, baina zabortegia kendu egin zuten. Akei erraustegia 1980. urtean martxan hasi zuen urte batzuetan 144.622 biztanleren zaborrak tratatu zituzten erraustegi honetan, baina Europako araudia betetzen ez zuelako, 1996. urterako itxi behar izan zuten. Gaurko egunean, Sasietako mankomunitatearen zabortegira eramaten dute, baina zein bide jarraitzen du?

Marrazkiez adierazteko esan behar zaie ikasleei. Gaia planteatzeko "Bertsometa" liburuxkan herriko eskola talde batek egindako bertsoak kanta ditzakete:

Zaborrak kutsatzen du Eta asko gainera, Eta bota behar da Edukiontzira. Edukiontzitik doa Zabortegi handira, Han txiki-txiki egin Eta lur azpira	Birziklatu behar da Baita ere gutxitu, Bakoitzak badauka ta Dagokion leku. Jarri ezazue bai Hiru handi zaku, Zure esku dago ta Ardura zuk hartu
---	--



Kolore askotako Edukiontzia, Txuri, urdin, berdeak Baita ere horiak Birziklatzeko dira Bai lagungarriak, Eta naturantzako ikaragarriak .	Zabor bakoitzak dauka Edukinontzia, Papelak urdinak ta Plastikoak horia. Marroira pila bota Berdera beiria, Denon zeregina da errespetatzia
---	--

22.- ZABORRA BIRZIKLATZEA.

Orain artean zaborra birziklatzeko herrietan edukiontzia (papera, beira, zaborra, plastikoa, olio) erabiltzen ari gara. Arazoa konpontzen ez delako, ekimen berriak jartzen ari dira abian herrietan: bosgarren edukiontzian zabor organikoa (landareen eta animalien jatorrizko hondarrak) eta atez ateko hondakinen bilketa sistema (osoa) jasotzeko zerbitzua.

JARDUERA 1.- Gidako testua entzundakoan, taldeka ariturik, aztertu metodo bakoitzaren alde onak eta txarrak.

Jarraian zabor organikoa batzearen eta atez atekoa metodoen inguruko informazioa emango diegu ikasleei unitate didaktikoan, metodo bakoitzari buruz idatzi ditzatela alde onak eta alde txarrak. Gero, talde bakoitzak bere koadroa arbelean idaztea proposatzen dugu, denon artean ondorioak ateratzeko eta nolabait adosteko zein izan daitekeen egokiena. Gaia oso nahasia dago, batzuk 5. edukiontzia aldea izanik, atez atekoaren emaitzak gutxiesten dituztelako eta, alderantziz, atez atekoaren alde daudenak 5. edukiontzia aldea emaitzak gutxiesten dituztelako.

***ATEZ ATEKOA**

*Atez ateko bilketan derrigorrezkoa da gai guztiak birziklatzea. Gelditzen den errefusa (birziklatu gabeko hondarra) oso txikia denez, ez du erraustegirik aurreikusten.

*Zabor mota asko bereizi eta egun bakoitzean mota bana etxe atarian uztea (horretarako prestatzen dira atarteak), organikoa barne. Hauxe da sistema honen funtsa.

*Organikoaren batzea astean 3 bider egiten dute eta gainerakoena (beira, kartoia-papera, ontziak) aldizkako egunetan.

*Kaleko edukiontzia desagertuko dira eta zaborra pertsonalizatu egingo da.

*(Organikoan beira, kartoia-papera, ontziak) materialaren bilketa hautakorraren %65 eta %85 birziklatuko da eta hondarrak ez badaude sailkatuta ez dira jasoko.

*Gelditzen diren hondarrak ez dira kutsatuta egon behar eta horrek eskatzen du materiala



jasotzea, gero konpostajearen teknikarekin lurrera itzultzeko.

*Munduan, metodo hau Italian asko erabiltzen dute, ia 1.800 herritan eta Bruselasetan, Munichen edo Bienan ere bai. Estatu espainolean, Katalunian hasi ziren inplantatzen eta Euskal Herrian, egun, Usurbilen, Hernanin, Oiartzunen eta Antzuolan ezarri dute. Debagoienean 2013. urterako Oñatin eta Elgetan inplantatu zuten eta 2014. urtean Bergara, Eskoriatzan eta Aretxabaletan jarri zuten. Arrasaten, hala aurreikusita bazegoen ere, 2014-3-19ko Udalbatzarrak Arrasaten gai hori aztertzeko sortutako hondakinen mahaiak proposamena onartu zuen. Laburbilduta hauxe da :

- Gaikako bilketaren gutxienezko helburu bat ezartzea erabaki zuen (% 70).
- Ezarrirako helburuak betetzeko erabili beharreko sistemak bete behar dituen ezaugarriak erabaki zituen.
- Erabaki zuen, hondakinen gaikako bilketa sistema herrigunean jartzea hasiera batean, sarbide kontrolatuko sistema duten edukiontzien bidez..Aipatu sistema ezarri eta gero, hartarako eratuko den Jarraipen Batzordeak, 9 hileko epean, hiru hileko zatikietan, lortutako emaitzak ebaluatuko ditu.
- Adostutako helburua aldi horretan lortuz gero, edukiontzien bidezko sistema balioztatuko du Udalak.
- Bestela izanez gero, baliorik gabe utziko du eta hondakinen bilketa zerbitzua atez ateko sistemaren bidez egingo du Arrasateko herrigunean.

2015.ean, zaborra jasotzeko guneetan, ohiko gaikako bilketaren edukiontziez gain, materia organikoa eta errefusa jasotzeko edukiontzi bana jarri ziren, txipdun txartela baten bidez zabaltzeko.

Herrian ere, konposta egiteko sei gune jarri ziren diran herrian.

2015ean eta 2016an, hurrenez hurren, Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan herri galdeketa egin dira eta Arrasaten dagoen bezelako sistema ezartzea onartu zuten.

*BOSGARREN EDUKIONTZIA.

*Orain artean ezagutzen ditugun beira, kartoi-papera, ontziak, zabor edukiontziak kalean egotea aurreikusten du planteamendu honek, baina bosgarren edukiontzi bat gehiago gehitzea, materia organikoa jasotzeko.

*Edukiontzi hau giltzaz itxirik dago.

*Materia organikoaren kilo bakoitzeko jasotzen den zaborrarekin maila handiko 210 gr. konposta lortzen da.

*Ekonomikoagoa omen da .

*Zaborra ateratzeko erosoagoa da.

*Sistema garbiagoa da eta jasangarriagoa.

*Gipuzkoako hainbat herritan: Aretxabaleta, Azkoitia, Azpeitia, Zarautz, Zumaian eta Donostiako Amara eta Gros auzoetan martxan jarri zuten hasiera batean modu boluntarioan baina egun organikorako jarriz gero, derrigorrezkoa da denek erabiltzea.



Ziur asko honezkero UDALAKO INGURUMEN ESKOLAn izan zara zure eskolakideekin eta zaborrari buruzko informazio piloa duzu, baina mendian, birziklatzen dute botatako zaborra? eta Everesten botatzen dutena inork jasotzen du?

JARDUERA 2.- Mendian botatzen duten zaborraren inguruan hausnartzea eragitea da galdera honen helburua. Birziklatzen dira plastikoak, aluminiozko papera, platano azalak, laranja azalak? Eta Everesten? Urtero espedizio ugari joaten da hara eta zabor tona asko uzten dute bertan, zer ondorio izan dezake horrek?

Koadernoko 13. orrialdean

- **UDALAKO INGURUMEN ESKOLA.-** 1991. urtean Arrasateko Udalak sortu zuen ingurumen eskola hau eta harrezkero Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle ugari pasatu da ingurumen hezkuntza lantzeko. Bere ibilbidearen lehendabiziko urteetan Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin hitzarmen bat egin zuen, eskolaren jarduera definitzeko eta bideratzeko.

Eskolaren helburu nagusiak izan dira ingurumenaren berri jakitea, ingurumeneko arazoez jabetzea eta ingurumenarekiko jarrera positiboak bultzatzea, hainbat jardueraren bidez:

- Ekosistemak aztertzeko ibilbideak: ibaira, artadira, auzora
- Ingurumen baloreak lantzeko simulazio jolasak.
- Naturan zentzuak esnatu eta lantzeko jolasak.
- Tailerrak: zabor poltsak aztertzea, ogia egitea, sua egitea, margoak egitea.
- Papera birziklatzea.
- Naturan zentzumenak pizteko eta lantzeko jolasak
- Laborategi lanak
- Inguruko arkeologia eta etnografia ezagutzeko irteerak

Eskolak dituen azpiegiturekin, 38 ohe, jangela, erabilera anitzeko gela, laborategia, frontoia eta sukaldearekin egun bat, bi, hiru, lau edo bost eguneko egonaldiak antolatzen ditu.

Hainbat urtetan "Udalaitzpetik" izeneko aldizkaria, 4 ale urtean, argitaratu izan du, ingurumen inguruko gaiak joratzeko eskolekin. Eskolako Agenda 21en, aspalditxotik, besteak beste, zaborra gaia landu du zentroak etengabe, CEIDA zentroarekin elkarlanean antolatutako jardunaldietan eta kanpainetan. Debagoieneko mankomunitatearekin batera zaborra, ura, kutsaduraren inguruan ikasturteko kanpaiak antolatu ditu mankomunitateko herri guztietan.



23.- 4. UNITATEAREN IBILBIDE DIDAKTIKOA

BIDAIA DIDAKTIKO ETA BIRTUALA ARRASATEKO NATURAREN ERREALITATEAREN BERRI JAKITEKO

Aurreko unitate didaktikoetan bidaia didaktikoak egitea proposatu ditugu, baina unitate didaktiko honetan Arrasateko naturaren egoera, interes puntuak, auzoka, ikusteko bidaia didaktiko-birtuala egitea egokiago dela uste dugu, Arrasate herri luzea izanik, auzoetako altxor naturalaren zertzeladak ezagutzeko oinez joanez gero oso luzea izango bailitzateke.

Hori ordezkatzeko eta gaur egungo baliabideez baliaturik, bidaia didaktiko-birtuala egitea proposatzen dugu, batetik, unitateetan dauden argazkiez eta gida honetan testuez baliaturik eta, bestetik, Arrasateko ortofotoen bidez. Hortaz, nagusia izatean, bidaia didaktiko osoa egiteko aukera izango dugu oinez, udaberrian, udan edo udazkenean, ahal dutenean egin dezakete ikasleek, gurasoekin edo lagunekin. Oraingoan, berriz, maparen eta ortofotoen bidez egingo dugu bidaia birtuala, **Arrasateko gune naturalak hobeto ezagutzeko, gune hauetan dauden inpakturik nabarmenak eta gizakiak naturarekiko landutako hainbat gune.**

1.-ERDIGUNEA (PARKEAK)

Goikobaluko (Santa Barbara) muinora joango gara, herriko behatoki ederra dela eta. Bertan antzinatik gaztelu bat izan zen, baina 1457. urtean Enrike IV erregeak agindu zuen botatzea. Gaur egun, herritarrek gazteluko dorreen oinarriak bisitatu ditzakete, aztarnak 1994. urtean egindako lan batzuetan azaleratu baitzituzten. 1936ko gerraren ondorioz tokiak triskantza ugari izan zuen landaredian eta Udalak 1954ko martxoaren 25ean Zuhaitz eguna antolatu zuen parkearen itxura berritzeko.

Herritar asko joan zen, urkiak, gaztainondoak, sagarrondoak, akaziak eta beste zuhaitz mota asko landatzera. Goikobalu erdian zegoen arbola, Lehen Carlos Adan de Yarzak Lekeitioko bere finkatik ekarritako Libanoko zedroa, ordezkatzeko zuen eta haren lekuan pinu bat jarri zuen.

Muinoan zuhaitz mota ugari dago mazela guztietan eta herriaren erdigunea egonik, gune ezin hobea da zaratatik lasaitasunera alde egiteko. Parkearen azalera 4,57 hektareakoa da.

Olarte kaletik beherantz **Monterron parkera** abiatuko gara. XVII. mendean eraikitako



eraikina dugu eta atzealdean baso-lorategi handi bat du. 73.425 metro koadro du eta 1984. urtean Udalak hainbat obra egin zuen, gune publiko bezala egokitzeko.

Behetik 211 metroko altueratik lehengo San Kristobal ermita baserriraino (oraingo hilerria hor bertan dago), 329,90 metrora zabaltzen da basoa. Parkea maldatsua da eta behealdean oholtza estali bat eta anfiteatro bat ditu, kultura ekitaldiak ikusteko. Behealdean ere lorategia dago eta bertan zuhaitz mota ugari. Parkea eraikina egin eta gero egin zuten neurrian, horko espezierik zaharrenak, gehien jota ere, 350-390 urte izango du. Hor sekuoia erraldoiak eta gorriak, haginak, zedroak, magnolioak, pizeak, ezkiak, wellingtonioak, nekostak, ezpelak, gereziendoak daude.

Aipamen berezia merezi dute eszenatokitik gertu dauden bi sekuoia gorrik eta sekuoia erraldoi batek, zuhaitzok 38 m-tik 45 m-ko altuera hartzen dutelako. Lehen bi urmael zeukan, baina gaur bat lehor dago.

Mendian gora, haritzak, lizarrak, arteak, gaztainondoak, astigarrak, pagoren bat, eta gurbitza ikusi daitezke, zenbait kasutan kartel infomatzaileak, jendeak ezagutu ditzan.

Kanposantuko bidetik abiatuko gara Loo baserrirantz, handik ezkerretara Meatzaerreka auzora doan bidea hartuko dugu bertara iristeko.

2.-MEATZERREKA (HARROBIA)

Auzo historikoa da, eta XIII. mendetik aurrera bertako meatokietan, **Lastaobia, Juanporobia, Kirixaobia, Lugoeri, Barrenobia, Pisaobia**, eta abar, minerala ateratzen zuten, gero burdina zein altzairua egiteko. **Meatzaga** baserria ezkerrean utzita eskumarantz joango gara Udaltxen maldaren azpitik Kanpanzarrerantz, harrobiraino, hain zuzen ere. **Udaltxeko Egomendi** gunearen eskumako aldean dago harrobia eta bertan izanez gero edo ortofotoen bidez, antzematen da lehendabiziko begiratuan jarduera honen inpaktua.

Eraikuntzan erabiltzen diren lehengaiak ateratzeko ustiatzen du harrobiak, eta azpiegitura lanetan ere bai. Erauzketa lana egiten dute jarduera honetan eta etxegintzarako, bide lanetarako materiala ateratzen da merkaturatzeko. Duela gutxi arte Gipuzkoan hamasei harrobi zeuden, gehienak kareharriarenak, hain zuzen ere, eta hiru Arrasaten zeuden (San Josepe, Kobate, Kanpanzar) eta bertako paisaian zein naturan sekulako inpaktua izan du.

Gaur egun, harrobi horren altura 600-700 metrora iristen da eta ohiko erauzketaz gain, galerien bidez, horma zulatuz galeriak egitea, ustiatzen ari dira Udaltxeko kareharria.

Urte askoren ustiaketak zeharo aldatu du bertako paisaia eta landaredia, nahiz eta legez



eta **ofizialki Interes naturalistikodun gunea izan Udalatx.**

Buelta emango dugu itzultzeko joan garen bidetik eta eskumaldean hainbat urtetan erabilitako beste harrobi bat ikusiko dugu, Santutxo, gaur egun lurraz nolabait berreskuratuta.

Meatzaga, Galarraga, Arremena eta Salturri ezkerrean utziz bidean gora egingo dugu,

3.-UDALA (UDALATXEKO ARTADIA)

Udala auzora iristean itzela agertzen zaigu gure aurrean Udalatx eta gailurrera joateko bidearen inguruan pinuak eta beste zuhaitz mota batzuk badira ere, kareharrizko mendian artadia da nagusi eta gerriko bat bailitzan harriari itsatsia eta bere presentzia **Garagartzako** lursailletara hedatzen da, han baitaude altuenak eta mendiaren diametro osoan, Bizkaiko lursailletan. **Txukurrillotik** hariztitik gora artadia zeharkatuz gero, atzaparrak ikusi daitezke, landare honek liana sendoak eratzen ditu eta lurtean, huntza ikusiko dugu, arboletatik gora egiten duena, hain juxtu ere.

Artadi poblatu honek bere landaredia eta animalia propioak, zapelatza, eskaiua, erregetxeko bekainzuria, kukua, urubia, hontza, urtxintxa, erbinudeak, basakatuak, azeriak, azkonarrak, basurdeak.. dituen ekosistema berezi bat sortzen baitu. Harrigarria badirudi ere, klima mediterraneoko animalia eta landare espezieen basoa da artadia, berez, klima horretako toki naturala da. Artadia **Besaidetik Kanpanzarrera** zabaltzen da, mendiaren ekialde, hegoalde eta hego mendebaldean, beti eguzkiari begira. Iparraldeko itzalean eta euripean ezin egon. Elorrio aldean, landaredia guztiz aldatzen da eta belarra eta pagoa da nagusi, Santa Luziaren muinoan izan ezik.

Ematen du antzinako garai batean hemen beste klima bat zegoela, zeren Arrasateko beste toki batzueetan ere, Bedoñan, Garagartzan, esaterako, artadi bat dago. Bestalde, 800 metroko alturara iristen da Udalatxeko artadia.

Berez, Arrasateko artadiak gure herriko ezaugarrietako bat da eta Udalatx mendia berez, arrasatearrentzat eta inguruko herrientzat, bitzta birika bat da, akuifero handia izateaz gain. Eusko Jaurlaritzak izendatu zuen Interes Naturalistikodun gunea.

Udalatik Arrasaterantz errepidetik jaitsiz gero, **Arteta** (arte-eta) baserria pasatutakoan, pixka bat aurreragoa eskumako bide hartuko dugu Garagartzako Arteaga (Arte-aga) baserrira joateko, handik eskumako bidetik jarraituz Kobate harrobiaren gainetik pasatuko gara. Aurrerago eskumaldean AHTko obra egiteko Udalatxen egiten ari diren tunelak ikusiko ditugu eta **Madariaga** errekaraino joango gara. Handik ezkerretara



porlanezko pista batetik abiatuko gara Gesalibarko lursailera.

4.- GESALIBAR (AZPIEGITUREN INPAKTUA)

Muino batera iritsita handik behera joanez gero, Gesalibar dago, baina gaur AHTko tren bidea egiten ari direnez, bidea bukatu egiten da bertan eta zubibideak eta bi aldeetan tunelak ikusiko ditugu. **Etxebarri, San Jurgi eta Parraia** baserrien lursailetik, zubibidetik pasatuko omen da Abiadura Handiko trena. Ingurumen inpaktu handia da. Progresoren "abiaduraren" izenean, lur mugimendu handiak izan dira eta hondakin kopuru handia pilatzen ari da. Zarata kaltegarria omen da inguru honetan eta nekazaritzako lursail ugari galduko da.

Auzora jaitsiz gero, **Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleak** eta auzoko etxeak eta baserriak ikusiko ditugu, toki lasaiak presatik urrunduta. Errepidearen aldemeneko bidetik ezkerretara abiatuko gara Garagartza auzora joateko.

5.- GARAGARTZA. ORTU EKOLOGIKOAK

Auzoaren sarreran lehenengo futbol eta errugbi zelaiak ikusi ditzakegu, 2007. urtetik hutsik daudenak, kirol gune berria Mojategin zabaldu zelako. Erreka pasatzeko dagoen zubitik pasatuko gara, auzoko plazara joateko. Kontraste ugari duen auzoa da Garagartza; historian Lezetxiki, ingurumenean harrobia eta lantegi handi bat ondo-ondoan; bizimoduan duela urte batzuk arte familia batzuk baserrietik bizi ziren, baina gaur egun gehienak lantegiko beharginak dira; eraikuntzetan baserri-etxe txikiak eta 2011.urte inguruan urte edo etxebizitza bateko etxe ugari egin zuten **Istizabal-Garagartza** kalean.

Horren guztiaren erdian, Udalaren ekimenez ortu ekologikoak jarri dira eta geroari begira oso interesgarria izan da, aisialdi moduan eta modu produktiboan.

Errekan behera joanda, Uribarri auzorantz abiatuko gara, Ulgor enpresak duen lantegiaren ezkerretatik.

6.- URIBARRI.- (NATURA, INDUSTRIA)

Lantegiaren ondoan, Urdaiena etxetik aurrera hasten da Uribarri auzoa. Ubide honetan, lautada horretan Arrasateko industrialderik handiena hasten da, Aramaioko erreka bi aldeetan. Errepidetik aurrera **Mendigain** etxea eskumaldean utzi eta gero, aldapan behera eskumaldean industria gehiago dago, Ederlan..,

MUko kanpusaren zatia bat eta ezkerretaldean Garaia berrikuntza zentroa, ikerketa eta garapenerako zentro handi bat. Auzoko mugetan ere Eskola Goi Politeknikoa dago bere ikasleentzako instalazio ugariarekin. Auzo handia da Uribarri, **Munarretik hasita Muruko maldetaraino doa**, muga egiten du Garagartzarekin, Udalarekin, San Andres eta Aretxabaleta herriarekin.



Baserri asko, abeltzaintza, nekazaritzako lursail handiak izan ditu eta mendi guneei irabazten joan dela esan bada ere, natura eta industriaren uztardura da Uribarri auzoa, iraganaren eta geroaren ezinbesteko lekukoa. Udalako plazaren gurutzeraino joango gara eta eskumara abiatuko gara, San Andres auzorantz (Bedoñabe).

7.- BEDOÑABE/SAN ANDRES (HIRIGINTZAREN ETA ERREPIDEEN ERAGINA)

Hirugarren unitate didaktikoaren gida pedagogikoan informazio zabala eman dugu Arrasateko auzoen historiari buruz, baina auzo honetan, beste auzo batzuetan bezala, 1959. urtetik aurrera hasi zen benetako eraldakuntza. Errekaren ibilbidea aldatu zuten, esparru txiki batean etxe asko egin zituzten, dorretzarrak (etxeorrazak) egin zituzten auzoan eta horrek masifikazioa eta zerbitzu falta eragin zituen.

Horregatik, hirigintza arazoak eta auzoa zerbitzuez hornitzeko beharrak zeudela-eta, auzotarren elkarte bat sortu zuten auzoan eta duela gutxi arte auzokideen defentsan ibili da.

Hirigintzari dagokionez, Deba ibaiaren ubidean zeuden baserri asko bota zituzten industriak egiteko.

Errepideei dagokienez, auzoan oro har izan den eragina handia izan da, gaur egun ikusi daitekeenez, Gasteiza joateko, **lau errepide baitugu. Alfontso VIII kaleko errepidea, Araba etorbidekoa, saihesbidea eta autopista.**

Pasabideko auzoa da eta hirigintzaren zein errepideen eraginpean jorratu du bere bidea, nortasun propio batekin.

Gasteizko norabidea hartuko dugu Intxausti baserriraino eta handik ezkerretara hartuko dugu, Bedoña auzora joateko

8.- BEDOÑA.- (BASERRIAK, ZELAIK, KURTZETXIKI)

Herrigunetik eta erreken ubideetatik urruti egoteagatik, oso ondo gorde du lehengo auzo egitura. Gizakiak egindako baserriak, landutako zelaiak eta abeltzaintza zein nekazaritzako lursailekin dagoen auzoa. Auzotar gehienek auzotik kanpo lan egiten badute ere, oraindik auzoan artzainak daude, txakolina egiten dute, ogia egiten dute eta artalde zein ganadu buru ugari dago auzoan. Belaunaldiz belaunaldi transmititu den kultura da hau eta berez gure herriarentzat zaindu beharreko altxorra.

2013.urtean Udalak **Larragaineko gunea** egokitu du abelkuntzarako aprobetxamendua izateko eta bertara joateko bi ibilbide desberdin balizatu ditu herritarrek aisialdirako probesteko. Margoturiko bide bat berreskuratutako elurzuloaren ondotik pasatzen da. Gailur aldean larreak egokitu dira ganaduarentzat, gunea bat hesitu da eta bertan ,



handik ikusten diren mendien kokapen mapa jarri da.

Artazubiaga baseritik ezkerretara joango gara Zaldibar eta Musakola auzoetara joateko. Azuelarantz abiatuko gara eta gero handik ezkerretara Debagoieko ospitalearen atzealdetik Zaldibar auzora jaitsiko gara.

9.- ZALDIBAR (BI IBAIEN ELKARGUNEA)

Auzo historikoa, gatazkez betea, Zerrajeraren sorlekua, Eskola Politeknikoaren 1. egoitza, Aprestuz eskola, Ospitalearen tokia, trenaren joan-etorriak, jendarteko "altxor" ugari izan da bertan., Bertan bi ibaiak **Aramaio eta Deba** elkartzen dira, ur emariak gehitzeko, **Urbixaleku edo Urbixabat** tokian. Errekak garrantzitsuak izan dira gure bizimodurako eta "erreketa" ura beti desberdina dela eta, beraz, erreka diferentea dela esaten badute ere, altxor natural hau zaindu egin behar dugu, zalantzarik gabe.

10.- MUSAKOLA (ARAZTEGIA, ETXEZARRETAKO BASOA)

*Araztegia.- Unitate didaktiko honetan sakon aztertu dugu araztegiaren gaia, eta ezinbesteko instalazioa da ibaiaren ura garbitzeko, berrizatzeko eta ibaiari bizitza emateko.

***Etxezarreta baserriaren** aztarnak egun ikusten badira ere, 1974. urtean eraitsitza eman daiteke baserria. Finkaren jabea Rafael Ariza Echezarreta meategietako injinierua, mediku homeopata, garai hartako estatuko onenetakoa. Kultura zabalekoa, hainbat hizkuntza menperatzen zituen, frantsesa, alemana, italiara, eta euskaraz ere ondo mintzatzen zen.

XX. mendearen hasieran berak egindako planoei jarraituz baserria finka handi bihurtu zuen, garai hartako abeltzaintza, basogintza eta hegaztigintzako berrikuntza aurreratuenek hornitu zuen. Parkeen apartatua informazio ugari jarri dugu parke honen inguruan.

Gaur egun, baserriaren aztarnak bertan daude, baina oraindik ere hor dirau basoaren ikusgarritasunak.

Unitate didaktikoaren argazkian bi elementu batera agertzen dira, bizitza zeinu bezala, araztegia eta **Etxezarretako basoa**.

11.- MAKATZENA (MENDI MAGALETAN ETXEAK ERAIKITZEA)

Populazioaren hazkuntza zela eta, XX. mendearen 1960ko eta 1970eko hamarkadetan etxeak egiten hasi ziren halabarrez. Behin ubideetan industriak eta etxeak egindakoan, mendien maldetan egin zituzten eta horren isla **Makatzenako** etxeak dira, oso toki altuan eraikiak. Mendian gora, hasierako maldan **Santa Marinako** etxeak egin



zituzten, eskumaldean **Kristo Obreroko** eta **Santa Teresakoak** eta haiek baino altuago Makatzenakoak. Herrigunetik bertara joateko irisgarritasuna eta erosotasun eskasa izan du beti auzo honek, baina azken urteotan kaleko igogailuak jartzearekin nolabait arindu dira arazo horiek.

Koadernoko 14. eta 15. orrialdeetan.

24.- GARRAIOBIDEAK. VASCO NAVARRO TRENA.

Ariketa egiteko Vasco Navarro trenaren eta AHTren proiektuaren inguruan informazioa emango dugu, gero proposatzen dugun ariketak nahiko informazioa izan dezazuen.

***VASCO NAVARRO TRENA.**

“Vasco Navarro trenaren” izeneko trenaren 1918ko otsailaren 15ean iritsi zen Arrasatera eta 1919ko irailaren 3an Mekolaldera (Bergara). Historia iturri batzuk diote trenaren 1917ko abenduaren 22an iritsi zela. Trenak zerbitzua ematen jardun zuen 1967ko abenduaren 31 arte.

Hasieran aurreikusita zegoena egiteko Lizarra-Gasteiz-Durango linea (trenbidea) izan zen, baina azkenean hainbat arazo tartean, trenbide estuko ibilbidedun Lizarra-Gasteiz – Mekolalde izan zen.

Espainiako gobernuak linea hau egiteko proiektua onartu zuen 1882ko maiatzaren 12an eta horren jatorria zegoen Gasteizko Juan Jose eta Joaquín Herran anaiek egindako txosten batean; 18 milioi pezetan baloratu zen proiektua eta hori finantzatzeko Herran anaiek Ingalaterrara jo zuten eta han sortu zuten “the Anglo Vasco Navarro Railway Company Limited”. Enpresa hark proiektuaren exekuzioa egin zuen.

1887ko urtarrilaren 20an hasi ziren Gasteiz-Durango lotzeko obrak eta 1889ko otsailaren 17an Gasteiz-Leintz Gatzaga (Gatzagain) trenbide zatia inauguratu zuten. Trenaren probak baporezko lokomotora baten bidez egin zituzten. Lokomotoraren izena Euskalerrria zen. Leintz Gatzagatik Eskoriatzara joateko trenbidea egindakoan, trenaren iritsi zen Eskoriatzara 1893ko irailaren 23an, bi urteko atzerapenez.

Estatuak obren exekuzioa luzatu behar izan zuen 1894. urtera arte eta epe horretan iritsi zen trenaren lehendabiziko aldiz Eskoriatzara. Baina egindako trenbideak akats handiak zeuzkan eta ez zen posible izan epe laburrean abian jartzea. Gainera, The Anglo Vasco Navarro Railway Company Limited” enpresak ez zizkien ordaindu kalte-ordainak lursailen jabeedunei. Jabeek Bergarako epaitegira jo zuten eta epaitegiak esan zion enpresari errailak kendu eta jasotzeko.

1897. urtean Gasteiztik Gatzagara zihoan linean lan egiten zuten langileek utzi egin zuten enpresa, 8 hilabeteetan soldata kobratu gabe izan zirelako. Urte horretan estatuak linea



interbenitu bazuen ere, obrek ez zuten aurrera jarraitu eta bertan behera gelditu ziren.

Linea finantzatzeko, trena pasatzen zen herriei finantzazioa eskatua zieten.

Arrasatek 160.000 pezeta eman zuen, eta diru-kopuru hori ardoaren gaineko zerga baten bidez jaso zuen. 1887ko maiatzaren 15ean indarrean jarri zen eta horregatik 0,14 pezetatik 0,19 pezetara pasatu zen litroaren prezioa eta 20 gradu alkohol baino gehiago zuten edari alkoholduak 0,38tik 0,50era.

Udalak, ikusiz obrak geldi zeudela, zerga horren aplikazioa bertan behera utzi zuen 1890. urtean.

1906. urtean sortu zen Union Cerrajera, eta lantegiak Arrasaten eta Bergaran zeuzkanez, interes handia zeukan linea hura bukatu zedin eta linearen finantzazioaren zati bat bere gain hartzea erabaki zuen 1912. urtean.

Eduardo Dato Arabako diputatuak, gero Espainiako gobernuburua izan zenak, gaia hartu zuen 1914. urtean eta, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako diputazioekin bilerak egin ostean, lortu zuen haien finantzazioa lortzea eta horren ondorioz erabaki zen trenbidea Gatzagaintetik Mekolalderaino egitea. Lehengaiak hornitzeko eta itsasorako irteera bat izateko garrantzi handia zeukan Mekolalderaino iristea trenez, 1889. urtean honezkero Zumarragatik Durangora zihoan linea bat zabaldu zela-eta, Mekolalden elkartzen zirelako lineak.

1919. urtean trena Mekolaldera iritsitakoan, Gasteiz-Lizarra linearen obrak 1920. urtean hasi ziren eta 1927ko irailaren 23an linea inauguratu zen. Hortaz, linea osorik egiteko, 40 urte pasatu ziren.

Tren horretako hainbat lokomotora "Gipuzkoa", "Mondragon", "Vitoria", "Laurak bat", izenekin bataiatu zituzten.

Geltokia (gaur egungo INEMeko egoitza) egiten ari ziren bitartean, geltokia Union Cerrajeraren ate nagusian egon zen.

Trenak izen asko izan zituen eta Nafarroan, Araban eta Gipuzkoan izen desberdina zeukan: "el anglo", "el vasco", "el trenico", "tren cangrejero", "tren de los montañeros", "el transarlabaniano".

Aldaketa handia ekarri zuen trenak Arrasateko bizimoduarentzat; batetik, trenbidea egiteko obretan ibilitako hainbat langile bertan gelditu zirelako eta, bestetik, trenaren bidez, herrira kanpotik langile asko bertako lantegietara etorri zirelako. Trenez, gazteak hurbiltzen ziren inguruko herrietako jaietara, Gasteiza eta itsasertzera.

Lizarra-Gasteiz linearen elektrifikazioa 1929. urtean inauguratu zen, baina linea osoaren



elektrifikazioa, 1936ko gerra tartean, 1938ko otsailaren 20an bukatu zuten.

Beste linea batzuekin alderatuta, lineak ustiakuntza ratio hobea bazeukan ere, FEVE erakundeak erabaki zuen linea ixtea. Nafarroako, Arabako eta Gipuzkoako hainbat herrik itxiera honen kontra protesta egin bazuten ere, 1967ko abenduaren 31an bere azkeneko bidaia egin zuen.

Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Bergarako alkateek erabaki horren urkako jarrera hartu zuten eta trenbidearen errailak ez kentzeko eskatzeaz gain, tren zerbitzuan hobekuntzak egiteko eta berriro martxan jartzeko eskatu zioten Espainako Obra publikoetako Ministerioari.

Udalaek, Caja Laboralek eta Compañía de los Ferrocarriles Vascongados S.A.k lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten Ministerioarekin negoziaketan jarraitzeko eta azterketa ekonomikoa egin zuten trenbide errekonstruzioa aukerak zehazte aldera.

Gaia udalbatzarretara eraman zuten eta hainbat bilera izan zituzten Madrilgo Ministerioarekin, baina alferrik izan zen, eta linea desmuntatzeko agindua berretsi zuen Ministerioak 1968. urtean.

Trenbidea (linea) hauxe zen:

KM.	GELTOKIA	KM	GELTOKIA	KM .	GELTOKIA
1	LIZARRA	61	ANDOLLU(Estibalizko monasteriora joateko linea)	108´4	ESKORIATZA
3	ZUBIELKI	63	ABERASTURI	111´8	ARETXABALETA
7	ZUFIA	65	OTAZU	116´3	ARRASATE
12	MURIETA	68	OLARIZU (Geltoki intermodala)	120´2	ELORREGI (LOTURA OÑATIKO LINEAREKIN)
15	ANZIN	69´3	GASTEIZ IPARRA	123´4	BERGARAKO LABEGARAIK
20	ACEDO	71´3	GASTEIZ HIRIA	125	BERGARA
26	ZUÑIGA	76´9	DURANA (GERALEKUA)	128´8	BERGARA(MEKOLALDE)
29	KANPETZU	78´8	ERRETANA (GERALEKUA)		
35	ANTOÑANA	82´5	URBINA (GERALEKUA)		OÑATIKO LINEA
39	ATAURI	84´9	LEGUTIO (GERALEKUA)	0	ELORREGI
42	MAEZTU	87´5	LANDA (GERALEKUA)	3	ZUBILLAGA-MAGDALENA (GERALEKUA)
47	LAMINORIA	89´6	LEINTZ GATZAGA (GATZAGAIN)	5´1	SAN PEDRO (GERALEKUA)
51	ULLIBARRI -JAUREGI	91´3	LEINTZ GATZAGA (GERALEKUA))	6´6	OÑATI
54	GAUNA	97	MARIN		
56	ERENTXUN	103´3	MAZMELA		

AHT.- AHT.- Abiadura handiko trenaren proiektua 1989. urtean Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak onartu zuten egitea, Madrid-Paris-Dax europar proiektuaren barruan kokatua. Europar Batasunetik 16 milioi euro jasoko badu ere, bertako obren esleipenak Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak egiten dituzte. Abiadura handiko trena 426



kilometro luze izango litzateke Euskal Herrian, eta Arrasaten, proiektua gauzatzeko, 2007. urtetik lurrak desjabetu zituzten eta honezkero obrak oso aurreratua doaz.

Proiektuaren alde eta kontra dauden argudioak asko dira: **Alde daudenak**, egun, Espainiako Gobernu eta Eusko Jaurlaritza dira eta etorkizunerako elementu garrantzitsua dela uste dute, egun, errepideetan dauden garraio arazoak nolabait konpondu dituela eta Europarekin lotzeko derrigorrezkoa izango dela gure aurrerapenerako.

Aurka daudenak, berriz, proiektuak ingurumen inpaktu handia, lur mugimenduak, hondakin kopurua handia, zarata akustiko handia eragingo dituela uste dute eta, gaur egun, bizi dugun testu inguru ekonomiko kontuan izanik, uste dute gizartearentzat sekulako kostu ekonomiko izango duela eta, gainera, ez ditu konponduko egungo trafiko eta garraio arazoak.

Arrasateko trenbide horren proiektuari dagokionez, Aramaiotik sartuko da Gesalibarrera, zubibide (biaduktu) handi batetik, Gesalibarko lurrak zeharkatuko ditu, San Jurgi, Parraia eta Etxebarria baserrietatik gertu eta Garagartzako lurretara joango da, eta handik Udalatxaren azpitik pasatuko da, Bilborantz, Angiozarrerantz (eta Donostiarantz) joateko. Udalatx "euskal Y" delakoaren korapiloa bihurtuko da, bere barrenetik hiru zulo egingo baitituzte. Tunel batek (3,2 kilometrokoa) Bilborantz jarraituko luke, Elorrioko Iguria auzotik, hain juxtu ere, eta beste biek Angiozarrerantz (Bergara) eta Donostiarantz.

JARDUERA: Aukeratu esaldi bakoitza zein treni dagokion.

Goian emandako informazioarekin unitate didaktikoan dagoen koadroa esango diegu betetzeko, Vasko-Navarro trenaren ibilbidea eta AHTren proiektuaren testua irakurtzeko.

Koadernoko 14. orrialdea

25.- LEHENGO GARRAIOAK, AUTOBUSAK (*Unitate didaktikoaren testuan akats batzuk daude Celestino Idarreta Hermanos, SA enpresa ez zen sortu 1968. urtean, trena desagertutakoan, ordurako martxan zegoelako*). Halaber, dudak ditugu enpresaren izenarekin hainbat tokitan "Celestino Idarreta y hermanos "La Vergaresa SA" enpresa izen osoarekin batera agertzen delako.

Lehenengo errege bidea Arlabandik zetorren eta pasatzen zen Arrasate, Oñati, Udana, Legazpi, Zumarraga, Ormaiztegi, Beasain eta Irun herrietatik.

Bideak zoladura gogorrekoak ziren eta Arrasatetik pasatzen zen Arrasate pasealekutik, Txoxagorri, Intxaurren, Gazteluondo (Goiko Atea), Artekaletik (Erdiko kaletik), Portaloitik, Maalako errebaletik Zaldibarrerantz. Zubi gorritik edo Zalduspetik pasatuz Osiñaga baserriantza eta handik Azuelara, gero Oñatira joateko.

1752ko uztailean Arrasaten eginiko bilera batean Gipuzkoako Batzar Nagusiek erabaki zuten Gatzagatik Iruneraino kotxeentzako errepidea zabaltzea eta 1757. urtean obraren eta



mantentze gastuak bere gain hartzea erabaki zuen (ordura arte herrien kontura ziren horrelako gastuak). 1780. urterako oso-osorik bukatuta zegoen eta 7.500.000 errealekin kostatu zen. Arrasate, Bergara, Deskarga, Zumarragatik pasatzen zen Behobiaraino eta 177,014 kilometroko luzera zuen.

Kanpanzarko errepide zaharra Arrasateko Udalak eraiki zuen 1770 eta 1780. urteen tartean, eta berria Diputazioak 1866. urtean.

1866. urtean Gesalibarrera joateko errepidea egin zuen Diputazioak.

1830-1840 urteetan martxan jarri ziren animaliek tiraturiko lehenengo diligentziak Euskal Herrian. 1833. urtean Ondarroatik diligentzia zerbitzuak eskaintzen hasi zen "La Esperanza" enpresa.

Lehen ez zeuden gaur ditugun errepideak eta bidaia bat hastea abentura bat zen sarri.

Arrasaten, Gipuzkoako Diputazioak 1896. urtean Lore jokoak/Euskal jaiak antolatu zituen eta talde bezala sortu baino lehen (1897. urtean) Orfeoi Donostiarraren 20 abeslari diligentziaz etorri ziren Arrasatera Zumarragatik, Luzuriaga maisuarekin.

XIX. mendearen amaieran, Arrasatetik Gesalibarrera bezeroak eramaten zituzten zalgurdiak Aramaioraino iristen ziren. Zaldiz tiraturiko kotxe haiek garraio motordunei eman zieten paso. Aramaio-Arrasate joan-etorriko negozioan Jesus Jauregi nabarmendu zen gehien.

Union Cerrajerara, Elma eta Arrasateko beste lantegietara goizero berrehun aramaioar baino gehiago etortzen zen XX. mendearen lehen erdialdekoan. Hasiera batean askok bidea bizikletan egiten zuten, baina gero autobusaren erosotasunera aldatu ziren. Bidaiariez gain, saltzeko gaiak ere garraiatzen zituen eta hileko bi ostiral egun bereziak izan ohi ziren, aramaioar baserritar askok Jauregiren autobusak erabiltzen zituztelako; Arrasateko feriara jaisteko. Postari lanak ere betetzen zituen lineak.

Esnea saltzen gurdi batekin Arrasaten esnea saltzen Jose Elorza aramaioarra ibili bazen ere, gero Jose "Manzano" Mendialduak hartu zuen haren tokia eta Arrasatera etortzen zen kamioarekin Arrasatera esnea saltzen. Alderantziz, arrasatear batzuk, Txantxote, Miravallles, Landaluze, Sabina Etxeberria, joaten ziren Aramaiora nekazaritzak produktuak, okela, arraina eta ogia saltzen.

Kamioien aurretik, itzain eta zamaltzainak aritzen ziren garraio lanetan. Idi eta zamari bidezko garraioak izerdi eta lan ugari eskatzen zuen, ordea. Garai hartan baserritarrak astoekin jaisten ziren herrigunera beren produktuak saltzen ferietan edo etxeetara eta hormetako burdinazko uztaietan uzten zuten lotuta animalia. Idi gurdiekin egurra eta beste produktu batzuk garraiatzen zituzten.

Joan zen mendearen 1920ko hamarkadan ezaguna izan zen "Titanic"izeneko autobusa.



Kamio zahar bat zen, baina autobus bezala egokitu zuen lagun talde batek eta edukiera zen 100 pertsonakoa. Futbol zaleak autobus honetan joaten ziren partiduak ikusten eta anekdota ugari dago abentura haien inguruan. Garai hartan Deba herriak lilura gehien sortzen zuen herria zen eta Udalak txangoak eratzen zituen, medikuak hautatutako hurrekin. "Titanic"en sartzen zituzten denak, Deban zazpi bat egun emateko.

Bidaiatzea erraztu zuen trenak eta "Titanic" eta zalgurdiak galtzen joan ziren. Garai hartan trafiko txikia zebilen herrian. Autobusak eta kotxeak herriaren erditik pasatzen ziren, urte askotan Portaloitik, zenbat bider ikusi dugun Portaloiko argazkia, Madrid-Vitoria errepidearen kartelarekin.

Vitoria Ondarroa saihebiderearen eraikuntzaren proiektuan (1956. urtean) gaurko Garibai kalea 1958an zabaldu zen trafikora, Maalako zubitik Biteriko bidegurutzeraino.

Unitate didaktikoan agertzen den **Arrasateko argazkia 1964.** urtekoa da.

Vasco Navarro trena 1967ko abenduaren 31n FEVE (Ferrocarriles de Vía Estrecha) erakundeak "ustiatze defizitarengatik" itxi zuen. Duela urte batzuk lehenago "La Vergaresa" izeneko autobus konpainiak bidaiak egiten zituen bailaran, baina prezioak trenekoak baino garestiagoak ziren, abonua erabili arren. Trena kendu zuten egun berean, autobus konpainiak zerbitzua handitu zuen, baina, behin konpetentzia kenduta, abonua ere kendu egin zituen. Erabiltzaileengan sekulako haserrea sortarazi zuen erabaki hark.

La Vergaresa enpresak arazo ekonomikoak izan zituen joan zen mendeko 1980ko hamarkadaren hasieran, eta erabiltzen zituen hainbat linearen erreskateak Eusko Jaurlaritzak egitea onartu zion. Orduan, Eibar -Vitoria linea, Bergararik eta Arrasateetik pasatzen zena, Pesa taldeak bereganatu zuen.

Gaur egun, Arrasaten, bidaiarien garraio publikoaren habilitazioa Pesa taldea, Leintz garraioak, Hermanos Arriaga eta Bizkai Bus enpresek dute. Horietaz gain, hainbat enpresa daude inguruko herrietan, bidaiariei zerbitzua emateko.

26.- HERRIKO AUTOBUSA

Udalerriko pertsonen mugikortasuna hobetzeko sortutako zerbitzu hau 2000. urtean jarri zuen abian Udalak.

JARDUERA 1.- Zure ustez zergatik sortu zen zerbitzu hori?

JARDUERA 2.- Zein onura du?

JARDUERA 3.- Iristen da auzo guztietara? Iristen da zure auzora?

27.- **PILOTA.** Pilotak garrantzia izan du gure herrian, pilotari garrantzitsu eta ezagunak



izan ditugu.

Pilotari horiek lehen pilotakadak herriko pilotalekuan eman zituzten. Antzina hiribilduaren ondoan zegoen "frontoi zaharra" zen Arrasateko frontoia, baina 1900. urtean Zaldibarko frontoia egin zuen Udalak bere baliabideez. Pilotalekuak zutik dirau gaur egun eta harlanduzko bi horma ditu. 955 metro koadro du eta 29.471 pezetako kostua izan zuen egindako obrak. 1934. urtean arrasatearrek Juan Bautista Azkarate "Mondragones"en omenez marmolezko plaka bat jarri zuten frontoiko horma batean, "pelotaririk haundien, gogorren eta gogotsuenari" testuarekin.

XX. mendeko lehendabiziko hamarkadetan Zaldibarko frontoian partiduak jokatzearaz gain, Trinkete Frontoian (Maalako errabaleko Okendo etxean) jokatzearaz eta urte batzuk geroago Gurea frontoian, non-eta garai hartan zinea ere ikusten zuten. Garai hartan ere parrokiako arkupeetan eta San Frantzisko komentuko klaustroan ere jokatzearaz zuten.

1936ko gerra baino lehen Maalako Errebaleko Okendo etxean trinkete frontoia zabaldu zuten eta dantzaldiak egiteko eta zapatuetan eta domeketan zine filmak ikusteko erabiltzen zuten. Gerra ostean, Trinkete frontoia zine areto moduan erabili zuten eta urte batzuk geroago Juventud Deportiva de Mondragon elkarteak zabaldu zuen Gurea ekipamendua, non-eta gehien batean zine eta frontoi jarduerak garatu zituzten. Gaur egun, Zaldibarko frontoia jarraitzen du zutik.

Betitik zaletasun handia izan da herrian eta pilotari ospetsuak izan ditugu hainbat modalitatetan: zesta txikiz edo txisteran, Pedro Legarrigartu "Mondragón", 1893. urtetik 1905. urtera aritu zen Madril,artzelona, Valencia, Habana eta Mexikoko Jai Alaietan.

Zestako jokalaria ospetsua ere Migel Zabarte izan zen (1879-1945) eta hari buruz esaten zuten garai hartako kronikek "Zabarte ikusi ez duenak ez daki aurrelari bat zer den". Espezialitate horretan ere Daniel eta Juan Kruz Guridi anaiak ezagunak izan ziren. Esku pilotan historian ezagunena "Juan Bautista Azkarate "Mondragones" (1891-1965) mitikoa izan da, ia bi metroko altuera eta sekulako joa zeukan. 1917. urtean Estatuko txapelketa jokatu zuen Zapateritoren kontra eta irabazi egin zuen. Hamar urtez izan zen txapeldun Atano III agertu arte. Pilotan erabat iraultzailea, indarraz aurkariak atzean mantentzen zituelako eta haren jokatzeko eragatik". Iturripeko frontoian ere haren omenez egindako marrazkia dago.

Geroago pilotari handiak izan dira herrian, 1930tik 1960. urtera arte aritu ziren Eugenio Bolinaga, Felix Arriaran "Arriaran I", Joxe Arriaran "Arriaran II" (1955. eta 1956. urtean eskuzko txapelduna eta 1961-62 binakako txapelduna), Pako Arriaran "Arriaran III" (1961-62 binakako txapelduna), Tadeo Azkarate, Zezilio Altuna, Santi Etxebarria "Zurdo de Mondragon", Juan Maria Azkarate, Pedro Ugarte, Eugenio Sagasta "Olatxo", Felipe Garai, Agustin eta Alberto Arregi "Bueno" anaiak, Joxean Tolosa (hemen hasi zen jokatzearaz), Zubillaga anaiak (Mauri eta Tomas), Jesus Etxebarria, Joxe Mari Barandiaran, Isturitz anaiak, "Juantxu", Juan Jose Urra (2. mailako banakako txapelduna).



Herri arteko pilota txapelketa sortu zuten 1968. urtean eta amateur mailan arrakasta gehien duen lehiaketa da. Hasieratik, hiru kategoriatan jokatu dute: gaztetxoak, gazteak eta helduak. Arrasateko pilota elkarteak 3 urtetan irabazi du txapelketa hau, 1976, 1979 eta 2007. urtean, 1979. urtean Euskal Herriko txapelduna izan zen Nafarroako Bera herriko ekipoaren kontra jokatuta. Gaur egun, kimu berriak irteten ari dira kirol honetan: Iban Arana, Danel Etxagibel, Iker Agirregabiria, Unai Axpe, Egoitz Uribarren eta Ibai Bolinaga.

Hemen aipatu den historia gizonetzkoie dagokie, baina XX. mendeko 1930eko hamarkadan pilota jokalaria, ia gaur bezala, gizonak izan baziren ere, erraketa espezialitatean Arrasateko **Justi Arenaza "Vasquita"** puntako pilotaria izan zen.

Arrasaten jaio zen 1919ko azaroaren 30ean eta 1932ko martxoaren 1ean debutatu zuen profesionaletan erraketari moduan. Urte bi lehenago Madrilgo "Madrid" frontoia egunero garbitzen zuen erratzaz, pezeta biren truke. Hala ere, lan hura ez zuen egiten diruaren truke, erraketarien palkotik partiduak ikusteko aukera izatearen truke. **"Vasquita"** gaitzizena frontoiko jendeak jarri zion, oso gaztea zelako hara joan zenean eta beste ezergatik ezagutzen ez zutelako.

Garai hartan erraketariak elitezko kirolariak ziren. Euskal Herrian ez ezik, Espainiar Estatuan, Madril, Sevilla edo Bartzelonan jokatu zituen partiduak Vasquitak, frontoien aukeraketan, gehien ordaintzen zuten enpresarien frontoira joaten zen kontatuen bidez. Entrenamenduei dagokienez, oso entrenamendu gogorrak egiten zituzten: gimnasia egin, mendian ibilaldiak egin, arineketan eta igeri egin.

Justinaren ahizpa ere, **Mirentxu**, erraketaria izan zen eta Vasquita II moduan izan zen ezaguna erraketaren munduan.

1999. urtean Uarkape frontoia egin zuten Arrasaten eta toki hori, hain zuzen ere, Arrasate pilota elkarteko egoitza eta jokalekua da.

Azkenekoz, gogora ekarriko ditugu Juan Bautista Azkarate "Mondragones I" pilotariari Uztapide bertsolariak eginiko bertsoak:

Askok dute gaur pelotariak
 Ateratzeko ametsa
 Ori lortutzea ez da izaten
 Guk uste bezin erreza;
 Garai bateko gizon aiek zer
 Ziran esan al baneza,
 Naiago nuke bizi balitza
 Orduko Mondragonesa

Mondragonesa zer zan esaten



Asiko baldin banitza,
Orretarako ezertxo ez da
Bertsolari baten itza;
Gizon luzia eta lerdena,
Ematen zuen zugaitza,
Berak sasoi zedukanian
Pelotan autsitzen gaitza

JARDUERA: Gaur egun, PILOTALEKU UGARI DUGU HERRIAN. Aztertu auzoka eta azaldu non dauden.

Koadernoko 18. orrialdea

28.- JUVENTUD DEPORTIVA MONDRAGON

Frankismoaren (1939-1975) aroaren hasieran sortutako elkarte da eta sekulako eragina izan zuen garai hartako herriaren kirol bizitza sozialean, eta bere baitatik kirol sekzio asko sortu ziren. XX. mendeko 1970eko hamarkadaren erdialdean bukatu zen haren ibilbidea.

Juventud de Acción Católica elkarte 1940. urtean sortu zuten eta bere babespean Juventud Deportiva de Mondragon elkarte 1942ko ekainaren 1ean sortu zuten. Lehendabiziko jarduera izan zen 1942ko urriaren 11n futbol partidua jokatzeko Maalako zelaian, baina ofizialki estatutuak 1944ko apirilaren 10ean onartu zituzten. Lehendabiziko lehendakaria Jose Ayala izan zen. Ordurako Jose Maria Arizmendarreta 1941. urtean iritsia zen Arrasatera eta elkartearen partaide ekimentsua izan zen.

Finantziazioa lortzeko kiniela bat sortu zuten, papeleta bakoitzeko pezeta bana. Urtean 20.000 pezetako diru-biltzea egiten zuten. 1936ko gerraren ondoko urteak ziren eta frankismoa punturik gorenean zegoen. Gurea frontoia erosi zuen 1947. urtean eta 1964. urtean zine areto bezala egokitu zuen, bi frontoi egin zituen Iturripen eta futbol zelaia egokitu zuen Iturripen.

Garai hartako pentsamoldea eta giroa ezagutzeko, kuriositate gisa, elkartearen hainbat estatutu ekarri ditugu hona:

- Izena eta xedea.

1. artikulua: con la denominación de "Juventud Deportiva de Mondragon " e crea una sociedad, cuya finalidad es promover y cultivar el deporte de las modalidades de fútbol, atletismo, pelota montañismo y ciclismo, como actividad armónica que propenda, a la vez, a la vigorización física y perfección moral del individuo, así como el resurgimiento de este ideal clásico en las nuevas generaciones.

...

Helbidea.-

3. artikulua.- La sociedad se hallará domiciliada en la villa de Mondragón calle de Jose Maria



Resusta nº 35 (orain Iturriotz kalea).

...

Pertsona esparrua

5. artikulua.- *Todas las personas sin distinción de sexo ni edad podrán pertenecer a la sociedad, pero su ingreso, expulsión y readmisión en la misma, dependerán y se hallarán siempre subordinados a las decisiones que al efecto adopten la Junta General dentro de su competencia.*

...

Berezko bazkideak eta hautazkoak.

8. artikulua.- *“Serán socios rectores natos: el parroco, el alcalde, el juez municipal, el consiliario de juventud y hombres de acción católica, el director de la congregación mariana de San Luis, el director de la Escuela Profesional y el de la Escuela de Aprendices de la Unión Cerrajera; los dirigentes de Acción Católica y de la Congregación Mariana de San Luis, el presidente del Montepío “Hetruc” y el presidente del Montepío “Hermandad Sanitaria de San Juan Bautista” y los gerentes o representantes de las siguientes empresas: Union Cerrajera, Elma, SA, Roneo u.c., Industrias Asam, la Industrial Mondragonesa, Metalurgia Cerrajera SA, Arzamendi, Berecibar y cia”/(ABC) “ Altuna, Mendizabal y Cia” todas ellas domicialiadas en Mondragón”.*

...

Sekzioak

Artículo 31: *Si se estima conveniente la actividad general deportiva que constituye el objeto de la sociedad podrá escindirse en secciones correspondientes a una o varias ramas o manifestaciones deportivas.*

...

Hitzarkin iragankorra

El Presente reglamento será sometido a la aprobación de Excmo Sr. ministro de la Gobernación y si es preciso a la Delegación Nacional de Deportes.

Arrasaten, 1944ko apirilaren 10ean.

Sinatuta: Francisco Resusta, Domingo Arzamendi, G. Etxevarría, José María Arizmendiarieta, Esteban de Garay, Benito Echevarria, Mariano Sagasta, José Ayala, José María López, Vicente Sagasta.

29.- MENDIAN GORA

Juventud Deportiva Mondragonek mendi sekzioak sortu zuen 1947ko urtarrilean eta antolatutako lehenetariko jardura izan zen gizon eta emakumeentzako mendi lehiaketa bat otsailaren 15etik abenduaren 31ra bitartean. Gizonek 15.000 metro eta emakumeek 10.000 metroko altitudea egin behar zuten. (idatzia)

Mendi saila 1957. urtean independizatu zen JDM elkartetik eta mendizaleek Besaide mendi elkartearen bitartez sortu zuten. Gaurko egunean, 1.850 bazkide ditu eta bost sekzio:- mendi irteeren



saila- mendi eski saila,-eski alpino saila,-mendi bizikleta saila-espeleologia saila.

1953. urtean Mont Blancen bost mendizale hil zirela-eta Euskal Federazioak, 1954. urtean, erabaki zuen mendian hildako mendizaleen oroimenez Besaiden eraikin bat egitea (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintziak elkartzen diren puntu geografikoa). Monumentuak 85.000 PTako kostua izan zuen.

Monumentu hori 1955eko urriaren 30ean inauguratu zen eta harrez gero, urtero irailaren 3. asteko igandean, Euskal Herrian mendian hildako mendizaleen oroimen eguna antolatzen dute Besaiden.

1991. urtean Besaide ingurua txukundu zuten eta Yoshin Ogata japoniar artistaren eskultura jarri zuten bertan.

JARDUERA: Mendi jarduera ugari dago (senderismoa edo mendi ibilia, eskalada, eskia). Zeintzuk dituzu gogokoen?

Koadernoko 18. orrialdea.

30.- FUTBOLA. IA EHUN URTE BALOIAREKIN JOLASTEN.

1913. urtean sortu zen Arrasaten lehendabiziko futbol ekipoa "Club Deportivo Mondragon" izenarekin eta zelaia Etxaluzen (San Andres auzoan) izan zuen. Greba baten ondorioz 1916. urtean kluba disolbatu zen eta herrian jokatzeko zelairik ez zegoenez, udal frontoian hainbat ekipok jokatzeko zuten: "Los once leones", "Hijos de la Noche" nagusiei dagokienez, eta jubeniletan, "Los Incas", "Beti Lagunak", "Club Viteri" eta "Fortuna".

Izen asko izan du, "Club Deportivo Mondragón" (1913-1916), "Goizeko Izarra", "Acción Católica de Mondragon", "Juventud Deportiva de Mondragón" (1942-1966), "Mondragón Club de Fútbol" (1966-). Juventud Deportiva Mondragonek ekipo filial bat sortu zuen "1955. urtean, Arrasate Club de Futbol" izenarekin.

Hainbat futbol zelaitan aritu da historian, Etxaluzen (1913-1916), Maalan (1922-1945), Iturripe zaharrean-"Uribar-zubi (1945-, Iturripe berrian, Atxabalpen (1986-2007), Mojategin (2007-) eta mailarik gorena izan du espainiar ligako hirugarren dibisioan.

Herriak UCEA (Union Cerrajera Escuelas Aprendices), "Makatzena" eta "Pedrusco" ekipeak izan ditu, baina gaur desaginda daude.

1916. urtean greba orokor baten ondorioz taldea desegin egin zen, baina 1922. urtean taldea birsortu zuten, kamiseta gorri eta praka urdinez jantzita eta urte berean Maalako futbol zelaia inauguratu zuten. "Mondrak garai hartan" Serie Bn jokatzeko zuten, Gipuzkoa, Nafarroa eta Errioxako beste talde batzuekin. Arrasatearrek izugarritzko zaletasuna zuten eta, askotan,



beste herri batzuetara joaten ziren taldea ikusten. Urte askoan I. Mundu Gerrako kamioi bat erabili zuten horretarako. *Titanic* izena zuen kamioiak -autobus moduan egokituta-, eta beste herrietara zer-nolako baldintzetan joaten ziren ikusita, onartu beharra dago izugarritzko zaletasuna zutela. 1928an, Estatuko liga jokatzeko hasi zen, baina 1936an gerra iritsi zen eta lehiaketa ofizial guztiak bertan behera gelditu ziren. 1939an berriro abian jarri ziren.

Aurreko taldea desaginda, 1942. urtean "Juventud Deportiva de Mondragón" taldea sortu zuten, gaur egungo jantzien koloreekin: kamiseta more eta zuria, praka beltzekin. 1942-43 denboraldian, taldeak Liga eta Gipuzkoako kopa irabazi zituen.

Iturripeko futbol zelaia inauguratu zuten 1945. urtean, San Juan egunez, eta 1952. urtean lehen aldiz hirugarren mailara igo zuen. 1956. urtean "Arrasate Club de Futbol" eta "UCEA" taldeak sortu ziren, erregionalean jokatzeko eta 1962. urtean berriro 3. dibisiora igo zuen. 1966. urtean, orain duela 45 urte, hain zuzen ere, sortu zen JDM zena, "Mondragon CF" bihurtu zen. Garai txarrak izan ziren eta urte gutxitan hirugarren dibisioko eta preferente kategorian galdu zituen.

Makatzena ekipoa sortu zuten 1975. urtean eta bi denboraldi geroago batu zen Mondragon ekipoarekin. Preferente mailara igo zuen "Mondra"k 1977-1978 denboraldian eta Hirugarren dibisiora igo zuen 1982-83an Zumarragan. Urte batzuk geroago, kategoria hori galdu eta gero 2003. urtean 3. dibisiora igo zuen eta gaur egun preferente kategorian dihardu.

Historian jokalaririk ospetsuak izan dira, Errealean: Barrena, Elozegi, Balzategi, Etxebarria, Sologastoa, Zaldua, Berezibar, Heriz, Kortabarria, Aranbarri, Sagasta, Luis Maria Lopez Rekarte eta Aitor Lopez Rekarte, Mikel Gonzalez; Alavesean: Bidaburu, Errasti, Urreta, Urkia, Aranbarri eta hainbat ekipotan, JMaria Guridi eta Luis Lopez. Entrenatzaile gisa, hainbat urtetan jokalaririk ohiak izan ziren, besteak beste, Jose Errasti, Juanito Arriaran, Luis Lopez, Jesus Moreno, Jose Luis Idigoras.

1981. urtean herrian "Pedrusco" izeneko ekipoa sortu zuten, urte batzuetan preferente mailan izan zen eta hirugarren dibisiora igotzeko gutxi falta zitzaion.

b) Emakumeak futbolari: Mondragon futbol taldeak 1986. urtean sortu zuen lehendabiziko emakumezkoen ekipoa Arrasaten eta harrezkero gogor jarraitzen du Arrasateko koloreak defendatzen. Aurten Gipuzkoako ligako txapelduna izan da. Mailaz igo zuen eta 2011-2012 denboraldian 2. mailan ari dira. Rosi Otadui "Katanga"k eta Roman Lopezek bultzatuta sortu zuen ekipoa. 1994-95 denboraldia ahaztezina izan zen Mondrako nesken taldeak. Liga eta emakumezkoen ekipo gehiago ditu Mondrak; bata kadete mailakoa eta infantiletan beste bi. Melani Concepción jokalaria arestian euskal selekzioarekin jokatzeko deitu dute, 16 urtez azpiko kategorian.

1993. urtetik 2000. urtera arte AEDk nesken arteko futbito txapelketa antolatu zuen eta sekulako arrakasta izan zuen. Euskara elkartearen arlo honetan ere aitzindari izan zen.



Arizmendi ikastolak bailaran ere azken hamarkadan emakumezkoen ekipoak sortu ditu eta honezkerokategoria guztietan ekipoak ditu. 2010-2011 denboraldian igo eta gero, nagusiek Euskal ligan jokatu dute 2011-2012 denboraldian.

c) Zaldibarko areto futboleko txapelketa (Emakumeak ere Zaldibarren jokalaria).

1956. urtean hasi zuen, baina 1984. urtean sei urteko etenaldia izan zuen, Arrasateko Udalak pilotalekuaren zorua egokitu zuelako idi probak egin ahal izateko. Zorua berriro Udalak egokitu eta gero, 1990eko urriaren 5ean bere ibilbidea hasi zuen eta aurten, 50. edizioa hasiko du.

Hasieran UCEAren eta Juventud Deportiva Mondragonen harrobia zen eta Juventud Deportiva Mondragonek antolatzen zuen. Geroago, herriko koadrilek hartu zuen txapelketa antolatzeko erreleboa.

1995-96 denboraldian 72 ekipo izan ziren, 1.231 pertsona guztira, denboraldirik jendetsuena izan zen historian.

1993-1994 denboraldian emakumezko ekipo batzuk sortu ziren eta jokatu zuten txapelketan, baina harrezko **ez da izan txapelketan emakumezko ekiporik**. Garai hartan eskoletan eskola kiroleko proiektua abian zegoen eta emakumezkoen presentzia kirol guztietan gorantz joan da etengabe. Futbolari dagokionez, Arizmendi ikastolak kategoria guztietan emakumez osaturiko futbol ekipoak ditu eta Mondra futbol taldean osatzeko bidean. Polita eta beharrezkoa izango litzateke **hurrengo edizioetan emakumearen presentzia ziurtatzea Zaldibarko txapelketan, modu iraunkorrean**.

JARDUERA1.- Futbolari ezagunak izan ditugu herrian. Ea zenbaten izenak gogoratu eta biltzen dituzuen.

Koadernoko 19. orrialdea.

31.- BALOI OBALATUAREKIN ERRUGBIAN

Madrilgo "Cisneros" errugbi taldean arituriko Jesus Jauregi aramaiorak, atletismo sailarekin batera, Arrasate errugbi taldea sortzea proposatu zuen 1972. urteko otsailan.

Hasiera batean sei pertsona bildu ziren, baina lehendabiziko batzarrean 28 pertsona izan ziren eta horrela abiatu zen ekipoa. Klubaren etorkizuna bermatzeko asmoz, 1972ko martxoaren 6an, lehendabiziko zuzendaritza batzordea finkatu zen atletismo saileko bulegoetan. Hauxe izan zen:

Presidentea: Luis M. Etxaburu



Presidenteordea: Jose Luis Unzueta
Idazkaria: Agapito Fuentes Gomez
Diruzaina: Agustin Aranburu
Entrenatzailea: Jesus Jauregi
Prestatzaile fisikoa: Jose Ignacio Elorza
Materialaren arduraduna: Juan Luis Arana

Batzarrean erabaki nagusi hauek hartu zituzten:
"Juventud Ddeportiva Mondragon" saileko parte izateko eskaera egin eta "Vasco Navarra"ko errugbi federaziora zuzendu, taldearen sarreraren idatziak bidaltzeko.

Taldearen lehenengo denboraldia 1972-1973 izan zen, 4. postuan sailkatu zen ekipoa eta ekipoan 34 jokalarik parte hartu zuten.

*kamiseta berdea, galtza txuriak eta galtzerdi txuri berdeak

*1973-1974 denboraldian jubenil mailako lehen taldea sortu zuen.

*1975-1976 denboraldian, arropa berria estreinatutako ekipoak: kamiseta txuria marra morearekin, galtza beltza eta galtzerdi txuriak marra morearekin.

*1980-1981 denbora tartean erregional mailatik lehen mailara igo zuen ekipoak.

*2000. urtean emakumezkoen lehenengo ekipoa sortu zuen.

1990-1991 denboraldian, Iturripeko instalazioak utzi eta Garagartzako zelaira joan ziren. Han 2007. urte arte izan da eta harrezkero, Mojategi belar artifizialeko zelaia estreinatutako arte.

JARDUERA 1.- Ba al dakizun on dagoen errugbi zelaia?

Koadernoko 20. orrialdean.

32.- TXIRRINDULARITZA

Arrasatearrontzat txirrindularitzak beti izan du erakargarritasuna. Unitatean azaltzen den bezala txirrindulari lasterketa baten erreferentzia 1912-7-3koa da eta gero 1914. urtekoa bigarrena, herriko jaietan lasterketa antolatzeko egindako gestioak udal artxiboan baitaude.

Herriko jaien egitarauan "Gran carrera nacional de bicicletas" bezala dago izendatuta lasterketa, gehienez 35 km-koa izan zitekeen eta sariak 50, 25, 15 eta 10 pezetakoak ziren irabazleentzat. Joan zen mendeko 1920ko hamarkadak Eleuterio Zabaleta, Olazagoitia eta Pascual Ugarte txirrindulariak zeuden eta baita Muzibar baserriko Patri Etxabe ere. Garai hartan bizikletaren garapena 46ko plater batekoa zen eta pinoia aldatzeko bizikletatik jaitsi beharra zegoen.

Mariano Altuna "Barrena", Musakola auzoan jaioa, txirrindulari ospetsua izan zen. 1935. urtean lizentzia lortu eta probintziako lasterketetan parte hartzen zuen eta garai hartako



txirrindulari handiekin entrenatzen zuen. Behin Irungo San Pedro saria irabazi zuen.

Rufino Ugarte "Goiru", Luis Heriz, Pedro Markaide "Olan", Jesus Altuna "Barrena" eta Gregorio Idigoras (jaiotzez oñatiarra baina Arrasaten urte askoan bizi izandakoa) 1930 eta 1940ko hamarkadetako txirrindulari ospetsuak izan ziren, 1936ko gerrak harrapatu bazituen ere. 1935. urtean Donostiako klasikan parte hartu zuen eta Eibar-Madril-Eibar, bigarren errepublikako sorreraren omenez egin zuten lasterketa, 4 etapa eta bukaera apirilaren 14an Eibarren. 1936ko Espainiako buletan parte hartu zuen. Lehendabiziko San Juanetako saria 1936. urtean egin zuten eta antolatzaileak Mondragon CF eta Udala izan ziren.

1932 eta 1935. urteetan, ospetsu egin ziren "Luisen"en bi karrera. 1953. urteko "Luisen" karrera batean Jesus "Barrena" hil zen 18 urterekin.

Joan zen mendeko 1950eko hamarkadan ezagunak izan ziren Isacelaya Julio eta Ignazio anaiak "amerikanos" eta batez ere Ignaziok lasterketa asko irabazi zuen eta ziklo krosean ere parte hartu zuten

Jesus Parra ere garai hartan txirrindulari ezaguna izan zen, baina azken urteotan ezagunena Enrique Alonso izan da. Txikitan Makatzenako ekipoan ibilitakoa, eta gero profesioaletara jauzi egin zuen (Zahor, Lotus-Festina, CHCS) Frantziako tourean parte hartu zuen 1991. urtean, 31. postuan bukatu zuen eta 1992. urtean erretiratu zen. Gaur egun, Iban Velasco arrasatearra da profesionala Euskaltel ekipoan, eta etorkizun handia du. Emakumezkoen dagokienez, I. Olalde Gallastegi nabarmentzen ari da hainbat lasterketatan.

Ekipokoei dagokienez, Makatzena ekipoa oinarri izanik 1974. urtean bailaran Dorletako ama txirrindularitza eskola sortu zuten.

Juventud Deportiva Mondragon izan zen urte askoan jarduera honen antolatzailea, gero "Club Ciclista Mondragones", geroago "Arrasate Txirrindulari elkarte". 1968. urtean Espainiako mendi txapelketa antolatu zuen CC Mondragonesek eta baita 1986ko Espainako errepideko txapelketa ere. 1994. urtean Euskal Herriko 34. Txirrindulari itzulia Arrasatek abiatu zuen eta Arrasateko Txirrindulari elkarteak antolatu zuen eta 2004. urtean, Emakumeen bira lehiaketako etapa bat.

1976. urtean, Arrasateko zikloturisten talde bat eratu zen Club Deportivo Makatzenak sustatuta eta taldearen ibilbidean izen aldaketa eta egoitzaren aldaketa batzuk izan dituzten arren, egun, Debagoiena txirrindularitza kluba izenarekin dihardu gogotsu. Estatuko zikloturisten zaindaria da Gatzagako Dorletako Ama, 1975. urtean izendatua.

XX. mendearen bukaeran ere, Arrasaten Triatlon kirol taldea sortu zen eta hainbat lehiaketa antolatu du harrezkerotik.



33.- BIDEGORRIAK

Pertsonak eta bizikletak erabiltzeko bideak dira. Azkeneko urteotan mugikortasunaren estrategiaren barruan Diputazioak kilometro asko eraikitzen ari da erabiltzeko. Deba bailaran kilometro asko egin ditu, baina herri guztiak lotuta edo komunikatuta izateko falta dira zati batzuk. Eskoriatzatik Gatzagara, Arrasateko Etxezarretatik Elorregirantz ia prest dago, Zubillagatik Oñatira. Antzuolan bi zati egin dituzte, baina ez daude lotuta Bergarakoarekin. Bergara herritik Sorluzeraino bidegorrian joan daiteke.

JARDUERA 1.- Zer dira eta zertarako erabiltzen dira bidegorriak?

Gaia hobeto lantzeko, Gipuzkoako web orrian sartzeko aukera dugu gipuzkoa.net/bidegorriak. Informazioa dator gaur egun dagoen sareaz eta epe laburrean egiteko asmoa dutenaz, eta baita bidegorri horien helburuez ere.

JARDUERA 2.- Badakizu non dauden Arrasaten bidegorriak? Bidegorritik joan daiteke bizikletaz Arrasatetik Urkuluraino?

Erdigunetik posible da Aretxabaletako Bainuetxeraino joan eta gero handik Urkulura eta urtegiari buelta ematea. Etxaluzetik abiatuz gero, irudikatuko dugu ibilbidea eta galdetuko diegu ikasleei. Hasierako zati batzuk bidegorri bezala ez badaude ere, Kooperatiben atzealdetik, Aretxabaletatik pasatuz, posible da Urkuluraino joatea, baina zatika eskatuko diegu bidegorriari buruzko informazioa.

34.- ATLETISMOA

Juventud Deportivaren barruan sekzio moduan hasi zen, baina klub bezala bere jarduera hasi zuen lantzen 1963. urtean, Iturripeko pista berriak egin zituztenean. Arrasate Atletiko taldea 1987. urtean sortu zuten. Ehunka arrasatear pasatu dira klub honetatik eta gaur etorkizun handiko atletak ditu. Ekipoaren entrenamenduak, 2007. urtetik, Musakola auzoko Mojategiko instalazioetan egiten ditu.

Urte hauetan guztietan atleta asko ibili da, espezialitate bat baino gehiagotan aritu dira. Hona hemen haien markak eta lorpenak:

Atletaren izena	TXAPELKETA	URTEA
Rosa Otxandiano	Euskadiko kross txapelduna (1965), Espainiako txapelduna 800. 1500. Moskuko olinpiadetarako aurreselektionatuta. Mediterraneoko jokoetan (Spliten) parte hartu zuen. Markak; 400 m. (56'62), 800 m, (2'06) 1.500 m: (4'17'') . Nazioartekoa	1965
Matilde Garai	Euskadiko kross txapelduna	1969
Patxi Murgoitio	Euskadiko kross txapelduna, 100 m, 200 m, 400 metrotan Espainiako txapelketaren 2.a Espainiako selekzioan 4x 400 m. Nazioartekoa	1969 1984 eta 1992



Inazio Maizbide	Euskadiko errekorra jabalina jaurtiketan 60'78m. (1990)	1990
Maria Angeles Ancin	Martxa Euskadiko errekorra 5.000 metrotan Birritan Espainiako Txapelketa. Denborarik onena 27'04"	1986 1985, 1986
Pedro Zalama	Maratoia (2 ordu 24'58")	1987. urtean (Donostia)
Enrike Kabiketa	Maratoia (2 ordu 25'48")	1990 (Madril)
Jose Luis Irizar	Altura jauzia (2'04 metro) Espainiako txapelketan 3.a	1986
Gaizka Mondragon	Altura jauzia (2'05 metro) Pista estaliaren Euskadiko txapelketan	1983
Josean Gay	Euskadiko txapelduna. Espainiako txapelduna 200 m. eta 400 m., Nazioartean ibilia. 100 m (10'97"), 200 m (21'56"). Espainiako 4 x 200 erreleboaren errekorra du, Parisen lortua	1988
Jonathan Perez	Pertiga jauzia. 12 bider Gipuzkoa eta Euskadiko txapelduna Markarik onena 5'10 metro. (Zaragoza)	
Maialen Axpe	Pertiga jauzia Jubenila	2010
Lore Mar	Pertiga jauzia. Jubenila	2010
Malen Ruiz de Azua	Pertiga jauzia. Jubenila. 2016 (4'21 m.).2016an Espainako Promesa txapeldun	2010/2016
Istar Dapena Vega	Pertiga jauzia. Jubenila	2011
Aitor Urizar	Mailu jaurtiketa (46'54 m) Euskadiko txapeldunordea	1998
Markel Blanco	Euskadiko txapelduna 800 m (1'56")	1998
Mikel Iturbe	Disko jaurtiketa, 39'68 m. , Euskadiko txapeldunordea	1994
Iñigo Uribarren	Jauzi hirukoitza 14'26. Espainiako 3. (Mataron)/15'87 (2016)	2010/2016
Eukene Dorronsoro	100 m. Euskadiko txapelduna (12'78)	2010
Eneko Carrascal	Jauzi hirukoitza (14'87 m.)	2016
Oihane Urzelai	Luzera jauzian, 5'19 m,jauzi hirukoitzean 11'17 m Euskadiko txapelduna	2009
Maria Jose Gil	Espainiako beteranoen txapelduna	1998

XX. mendeko 1960ko hamarkadan taldea errotu eta sendotu zen, atletismoan goi mailako helburuak lortu zituzten, Rosa Maria Otxandianorekin, batez ere.

Garai hartan aitzindaria izan zen atletismoan emakumeen parte hartzea bultzatzeko eta gaur egun emakume askok entrenatzen dute ekipoan.

1990-91 Arrasaten eskola kirola proiektua abiatu zen eta eta horren barnean atletismoa ere sustatzen ari da, espezializazio arloan.

Gaur egun, ekipoak Arrasate Atletiko taldea izena du eta etorkizun handiko atletak, neskak eta mutilak ditu. Koadroan agertzen diren atletez gain, hainbat daude gogor entrenatzen



ekipoan:

Chen Jian, Maddi Garro, Izar Gorroñogoitia, Martin Davila. Eskola arteko txapelketetan nabarmentzen ari dira Alba Etxandia, Maitane Iria, Marixe Ruiz de Austri. Gaur egungo entrenatzaileak Jonathan Perez, Mike Martin, Remi Diosdado eta Martin Davila dira.

Atleta horietatik hiruk Gipuzkoako beste ekipoetan jokatzen dute, Jonathan Perez -Real Sociedad-, Maialen Axpe -Atletiko SS- eta Malen Ruiz de Azua -Bidasoa-.

JARDUERA 1.- Ba al dakizu noiz antolatzen den hainbat kategoriat hartzen duen atletismo proba bat erdialdean?

JARDUERA 2.- Parte hartu duzu inoiz kros txapelketa horretan?

Koadernoko 21. orrian.

35.- SASKIBALOA

Taldearen sorrera 1968. urtean eman zen. Arrasateko Eskola Profesionalera Jon Basurko Txurruka injeneru bilbotarra eskola ematera etorri zen 1965. urtean. Basurko jokalaria moduan 1. dibisioko Aguilas eta Kas ekipoetan ibilia zen eta Arrasatera etorri zenean Donostiako Atletiko San Sebastian ekipoan jokatu zuen.

1968. urtean izan zen Jon Basurkok Eskolako ikasle batzuk animatu zituztenean saskibaloian hasteko eta bera entrenatzaile eta jokalaria moduan arituz Arrasateko lehen saskibaloia taldea sortu zuten.

Ekipoak izen ugari izan du, lehena Juventud Deportiva Mondragon izan zen, eta elkarteak desegin zutenean, jokalariek eta zuzendaritzakoek Arrasateko Gazteria kirolzaleak AGK ekipo berria sortu zuten.

1990eko hamarkadan ekipoak Arrasate Saski Baloi izena hartu zuen eta 2000ko hamarkadan ekipoak gaur egun duen ekipoaren izena, "Ointxe Saski Baloi".

Arrasatekoek puntu baten aldean Donostiako ekipo bati irabazi zioten. Hasieran Iturripeko Frontoian jokatzen zituzten partiduak, geroago M.G.Peko lorategietan egin zuen kantsa batean. Musakolako kiroldegia egin zutenean, bertan jokatzen zuen ekipoak eta Iturripeko kiroldegia egin zutenetik Iturripen. Beheko kategorietako ekipoek Antoñako kantsan jokatzen dute.

Ekipoak lehenengo urteetan Gipuzkoako kategorian jokatu zuen eta 1985. urtean txapelketa irabazi eta Bizkaiko txapeldunaren kontra jokatutakoan, autonomia kategoriarara igo zuen.

Urte batzuk igaro ostean, Espainiako 2. dibisiara igotzea lortu zuen eta 1994. urtean



Galiziako Portas herrian lortu zuen EBAko ligara (ACBren osteko liga) igotzea. 1994-95 ekipoa erdi profesionalizatu zen eta jokalaria amerikar bat (David Scott) izan zuen. Hurrengo denboraldian Baskoniarekin hitzarmen bat sinatu zuen eta Arrasaten, urte batez, Jorge Carbajosak (NBAko jokalaria ohia) jokatu zuen.

ACBra igotzeko play offean parte hartu zuen eta partidu haietan Iturripen partiduak ikusteko 1.000 pertsona inguru biltzen ziren kategorian ekipoa mantentzeko zailtasun ekonomikoak zirela-eta Espainiako 1. dibisiora jaistearen eraginaren ondorioz.

2007-2008 denboraldian kategoria honetan txapeldun izan zen eta EBAraren igotzeko plaza lortu zuen, baina uko egin zion igotzeari. Gaur egun, 1. dibisioan jokatzen du.

Emakumezkoen ekipoa 1990. urtean sortu zuten eta gaur egun Arrasateko jokalariek, hitzarmen bat tarteko, Eskoriatzako ekipoa jokatzen dute.

Gizonezkoen artean jokalaria nabarmenak: Jon Basurko, Javier Berezibar, Arruti, Joserra Garai, Lander Errasti, Jose Mari Balzategi, Aitor Saez de Biteri, Clinton Holtz, Jorge Garbajosa, Jorge Fernandez, Ander Mallabiabarrena, Beñat Barberena, eta abar.

Entrenatzaileen artean: Jon Basurko, J.A. Valeta, JM Balzategi, Txus Brizuela, Jose Antonio Samaniego, Gorka Zurutuza.

36.- BESTE KIROL BATZUK.

***Eskubaloia.**

XX. mendearen 1960ko hamarkadaren bukaeran sortu zuen Juventud Deportiva Mondragon elkarteak lehiaketetan izan den lehen eskubaloi taldea. Iturrieko estalirik gabeko kantuan jokatzen zuten eta betidanik, herrian eskubaloiak pisua eta nortasuna izan du. JDM elkartea desegin eta gero, Arrasateko "Makilak" koadrilako jokalaria ohi batzuk Arrasate Eskubaloi taldea sortzea erabaki zuten 1979-8-21ean. Aretxabaleta eta Eskoriatzako hainbat jokalarirekin elkartu ziren ekipoa osatzeko eta lehendabiziko partidua, anaitasunezkoa, Oñatiko San Migeletan jokatu zuten eta egun batzuk geroago, lehen partidu ofiziala Billabonan jokatu zuten.

Jokalaria onak izan ditu ekipoa bere hastapenetatik eta batzuk Arrate bezalako goi mailako ekipoa jokatu izan dute. Hasierako etapa horretako jokalaria Barrutiabengoa, Ugartamendia, Salterain anaiak, Garay, Gorostiza, Navas, Arkauz, Esparza, Barriocanal, Ormaetxea, Errasti, Altuna, "Pitxi" Herrero izan ziren eta geroago, Fertxu, Moraleja, Balardi bezalako jokalaria izan ziren. Musakolako kiroldegia 1977. urtean ireki zutenetik bertan hasi ziren jokatzen eta presidentea Jose Antonio Aranburuzabala zen. Babesleak La Cepa taberna eta Paziola Kaldereria izan ziren.

Urte askoan, 2011. urtera arte, Mariano Arrieta izan da presidentea. Arrasate Eskubaloi



taldeak esponsor asko izan ditu bere ibilbidean, baina gaur egun Ford Mugarri da. 2010-2011 denboraldian Kataluniako Montxada i Rexac herrira joan zen 1. nazional mailarako txartela lortzeko, baina ez zuen lortu eta aurten 2. nazionalean ari da, bikain.

1993-1994 denboraldian mailaz igotzea lortu zuten eta 1997. urtera arte 1. mailan jokatu zuten Arrasate Eskubaloiak.

Aurten VII Memorial Pitxi Herrero jokatu dute, ekipoaren jokalaria eta entrenatzaile izandakoen omenez, eta etxeko ekipoak irabazi du.

Gaur egun, ekipoak lau kategoriatan dihardu: 2. nazionala, 2. territoriala, gizonezkoen jubenila eta gizonezkoen kadetea.

2011-2012 denboraldian, **lehenbiziko aldiz emakume bat** izan da presidentea, Ines Azpiazu, eta entrenatzailea Ane Herrero arrasatearra, urte gutxitan eskubaloian sekulako ibilbidea egin duena, hain zuzen ere. Ane aritu zen txikitik Arrasateko ekipoan eta Oñatiko Aloña ekipotik pasatutakoan Bera Bera ekipo jubenilera joan zen, eta, egun, ekipo seniorren jokatzen ari da eta Tolouseko nazioarteko torneo batera jokatzerara joan zen. Halaber, Espainiako hautatzaile jubenilak deitu zion 4 nazioen arteko torneora joateko.

***Xake joko**

Aspalditik dago herrian xake zaletasuna. XX. mendearen 1970eko hamarkadan San Andres xake jokoaren elkarteak jokalaria onak izan zituen eta hainbat txapelketatan lehenbiziko postuetan izan ziren. Jokoaren arauekin liburuxkak egin zituzten eta ikastetxeetan banatu, gero ikasleek jokatzeke.

Gaur egun, zaletasun horri eusten diote eta herrian Arrasate hiria "izeneko torneo antolatzen du Arrasateko xake jokoaren taldeak, eta bertan jokalaria gazteek eta joko honen hainbat "maisuk" parte hartzen dute. 2011. urtean XI. edizioa jokatzen ari da eta jokalaria gazteak daude, Asier Etxagibel eta Juan Manuel Ruiz, eta jokalaria-maisu" Josu Tornay ELOko 2102 eta txapelketaren 5. buru. Josu Tornayek 2003. urtean txapelketa irabazi zuen.

***Gimnasia Erritmikoa.-**

Aspalditik zaletasun handia izan da herrian gimnasia erritmikoa lantzeko, eta urteak joan urteak etorri partaidetza handitu egin da. 2011. urtean 150 gimnasta izan dira, iaz baino 60 gehiago. Txapelketa ugaritan parte hartu dute: Eskolarteko Gipuzkoako txapelketan, Espainiako aerobik txapelketan, 8 hiru eta taldeka ariturik), eta Gipuzkoako txapelketan. 5 eta 20 urte bitarteko gimnastak dira ekipokoak eta taldeka edo bakarka aritzen dira espezialitate hauetan: dantzetan pilota, soka, uztai, mazoak edo zintan. Gaur egun, Arrasate Dragoi Gimnasia Taldean, nabarmentzen dira, beste batzuekin batera: Mailen Gallardo, Eider Altube, Ane Fernandez, Miren Amozarrain, Maite Oleden, Beñat Arizabaleta, Ainhoa Delgado, Olatz Fernandez, Paula San Miguel, Ane Murillo, Aintzane Rodriguez, Nerea Otxoa, Onintza Larrinaga, Naiara Zabarte eta Leire Gonzalez.



JARDUERA 1.- Herrian beste kirol batzuk egiten dituzten taldeak ditugu. Guk argazkiak ipini ditugu. Lagundu bilduma osatzen eta ipini izenak.

Koadernoko 22.orrialden..

37.- HERRI KIROLAK

Herri kirolak gehien batean Santamasetan ikusi ditugu herrian, aizkolariak, harri jasotzaileak (Perurenarekin eta orain semearekin) eta auzoko jaietan.

Joan zen mendeko 1980ko hamarkadan Zaldibar frontoiaren zorua egokitu zuten, jaietan idi probak egiteko, eta horrek eten egin zuen hainbat urtetan Zaldibarko areto futboleko txapelketa.

Umeentzako herri kirolekin jokoak egin izan dira jaietan, baina jarraian ez.

Sokatirako ekipoak antolatu izan dituzte eskola txapelketetan, baina ez ziren egonkortu kirol bezala herrian.

JARDUERA 1.- *Ipini kirol bakoitzari bere izena: nazioartean nahiko ezezagunak dira. Ea badakizun zeintzuk diren.*

Azken hamarkadan XIBA taldekoek urtean laupabost bider lantzen dituzte herri kirolak, Laubide edo Jokin Zaitegi plazetan edo Uarkapen. Oraindik ere baten bat zaletuko da herri kirolaren batekin; Baietz;

JARDUERA 2.- *Azaldu zeintzuk diren eskolarekin, Laubide edo Jokin Zaitegi plazetan edo Uarkapen, XIBAKoekin jokatzeko dituzuen herri kirolak, banan-banakoak eta taldekakoak. Zein duzue gustukoena?*

Koadernoko 22.orrialdean.

38.- GU ERE KIROLARI. ESKOLA KIROLA

Unitate didaktikoan agertzen den bezala, proiektua 1990-91 ikasturtean jarri zuten abian, eta gero, 2004-2005eko ikasturtean, bailarako herrietako eta Aramaioko ikastetxeak batutakoan Leintz Eskola Kirola proiektua sortu zuten. Proiektuaren xedea da 6 urtetik 14 urte bitarteko neska-mutil guztientzako kirol eskaintza antolatzea, jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez gure bailarako haurren garapen integralaren alde lan egiteko. Esparru hauek garatzen ditu:

- Osasuna.- Ezaugarri morfofuntzionalen (giharren garapena, hezur dentsitatea, nerbio sistema, kolesterola, gizentasuna...) eta oinarrizko ezaugarri fisikoen garapena (indarra, abiadura, erresistentzia, koordinazioa, oreka, erritmoa, trebetasuna...).
- Heziketa.- Balore, ohitura eta jarrera egokien garapena; arduratsuago egin, autokontrola, esfortzu kultura, hobetze sena, autodisziplinatua, talde lana, solidaritatea.
- Garapen psiko-soziala.- Haurren gizarteratzea eta nortasunaren garapena;



autoestimua, tentsioen askatzea, erabakiak hartzea, beldurren eta depresioen gutxitzea, eskola errendimenduaren hobetzea.

- Kirol hastapena.- Eskola kirola gure kirol sistemaren oinarria den neurrian, bertan egindako lanak bereziko garrantzia izango duela etorkizuneko kirol errendimenduan.
- Euskararen normalizazioa.- Hezkuntza arloaren jarraipen natural bezala, eskola kirol esparruan ere, euskara izatea komunikazio hizkuntza normala.

Lau arlotan banatzen dute jarduera: Kirol Jolasak (6-7 urte), Aurrekirola (areto futbola, mini saskibaloia), mini eskubaloia), Multikirola (areto futbola –neskak-, 8ko futbola (mutilak, mini saskibaloia eta mini eskubaloia.) eta espezializazioa (kirol bat edo bi aukeran urte osoan praktikatzeko: eskubaloia, 8ko futbola, saskibaloia, areto futbola, saskibaloia, areto futbola, atletismoa, pilota, tenisa, xakea, errugbia, igeriketa, txirrindularitza eta aerobika)

Aztertu dugu herrian dauden kirol taldeak eta egiten dituzten kirolak. Jarraian hainbat jarduera proposatuko ditugu, ikasleek beren aldetik kirolak beren bizitzan duen presentzia azter dezaten.

JARDUERA₁: *Azaldu zein kirol landu duzun orain arte eskola kirolean eta aurten zein kirol egiten ari zaren.*

JARDUERA₂: *Proiektuan egiten dituzun kirolez gain, beste kirolik egiten duzu?*

JARDUERA₃: *Aipatu ezagutzen dituzun herriko kirol instalazioak*

JARDUERA₄: *Aipatu ditugun kirolez gain, badakizu herrian beste kirolik egiten den?*

Koadernoko 23. orrialdean.

39.- INKESTA GELA

Jarraian gelan galdeketa bat egitea proposatuko dizuegu. Eskatuko diegu agertzeko zer kirol egiten duten eta bakoitzean zenbat ikaskide aritzen den, neskak alde batetik eta mutilak bestetik. Datuekin piramidea osatzeko eskatuko diegu.

Azpiko marra horizontalean lagun kopurua adierazteko erreferentzia dute. Kirol bakoitzarentzako kolore bat aukeratzeko esango diegu, eta alboan kirol bakoitza bere kolorearekin identifikatzeko.

Piramidea osatzen dutenean, nahi izanez gero, datuen gaineko irakurketa egin lezakete. Adibidez: zein da neskek gehien egiten duten kirola? Mutilek gutxien egiten dutena, eta abar. Datuak ehunekotara pasatzen ikasi badute, amaieran, kirol bakoitzeko partaideak ehunekotan adierazteko eskatuko diegu.

JARDUERA₁: *Galdetu gelan: zein kirol egiten duzue eta zenbatekin egiten duzue?*



*Horietatik zenbat dira neskak eta zenbat mutilak? Datuekin osatu piramidea.
Koadernoko 20. orrialdean.*

JARDUERA₂: Piramidea osatuta duzu. Orain saiatu zaitez datuak irakurtzen. Hari begira zein ondorio aterako zenituzke?

JARDUERA₃: Eman ehunekotan, piramidean dituzun kirol bakoitzean parte hartzen duten lagunen kopurua.

Koadernoko 23. orrialdean

40.- HERRIKO HEDABIDEAK.

Albisteak eta berriak dira herrian zer gertatzen den jakiteko bideak. Berri horiek hedabideetan argitaratzen dituzte. Orain, herriko hedabideak ezagutzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Bide batez, ikasleekin hausnartuko dugu zein hedabide erabiltzen ditugun, zein maiztasunez, zein dituzten gogokoen, zein hizkuntzatan erabiltzen dituzten, eta abar.

JARDUERA 1.- Nola jasotzen ditugu berriak, zein bidetatik?

Unitate didaktikoan agertzen dira herrian ditugun hedabideak eta bakoitzari buruz ezaugarri batzuk, eta kasu batzuetan horien azalen irudiak.

Galdetuko diegu ea etxean baduten hor agertzen den baten bat, eta ekartzeko eskatuko diegu. Gaur egun, ikastetxe guztietan egubakoitzeko GOIENA jasotzen dute. Aukera polita izango litzateke hemen agertzen den berriren bat gainerako hedabideetan, (aldizkari digitaletan, irratian edo telebistan) zelan jasotzen duten erkatzea.

Unitatean agertzen den hedabideen inguruko informazioa landutakoan, ondo legoke Interneteko helbideetan sartzea, aldizkarien egituren berri jakiteko.

Koadernoko 24. orrialdean.

41.- SORTU DEZAGUN GURE BERRIA

Sar zaitezte Arrasateko egunkari digital batean eta hautatu gaurkotasuna duen herriko berriren bat. Behean duzun koadroetan antolatu eta idatzi berria. Gero, bildu taldeka, talde bakoitzak hartu dezala arlo bateko (politika, kirolak, ekonomia, kultura) berria eta prestatu berria. Gainerako taldeekin partekatu eta horrela osatuko duzu zure gelako egunkari digitala.



JARDUERA 1.- *Sortu berria nork, zer, noiz, nola eta zergatik galderei erantzunez.*
Prest gaude guk gure albistea, idazteko unitate pedagogikoan dagoen koadroa betetzeko, gero gure egunkari digitala egiteko.
Hor agertzen diren galderei erantzuten saiatuko gara, berria egiten eta ondoan jarriko dugun argazkiari ere testua jarriko diogu.

Kodernoko 24. orrian.

42.- HEDABIDEEI BURUZKO INKESTA

Eta gure ingurukoek zein hedabideren bidez jasotzen dituzten herriko albisteak?
Bada, hori jakiteko, inkesta bat egitea proposatuko diegu ikasleei. Bi galdera, jardueretan jasota proposatuko diegu egitea.

JARDUERA 2.- *Zein hedabide erabiltzen duzu berriak jakiteko?*

JARDUERA 3.- *Zein hizkuntza erabiltzen duzu?*

Nahi dutenei galdetuko diegu. Inkesta egiteko, ondo legoke txantilo bat egitea, eta gero fotokopiatzea. Horrela, ikasleek landa lana errazago egin ahal izan dezaten.

Koadernoko 25. orrialdean.

43.- INKESTAREN ONDORIOAK ATERATZEN

Inkestak zer azaltzen duen. Bakoitzak osatu duen taula begiratu, ondorioa ateratzeko eskatuko diegu: zein hedabide da erabiliena, zein hizkuntza da ugariena hedabide bakoitzean...

Gero, gelako taula guztiak alderatu ditzakegu. Nahi baduzue hustuketa lana egin dezakezue eta gelako taula osatu: grafikoak ere egin ditzakezue.

JARDUERA 1.- *Idatzi hemen taulako datuak, ikusirik ateratzen duzuen ondorioa.*

Koadernoko 26. orrialdean.

44.- ZER IKASI DUZU...

JARDUERA1: *Zer ikasi duzu?*

JARDUERA2: *Gurutzegramak.*

Koadernoko 26. orrialdea.



ERANSKINAK.-

A) LANDARE IZENEN HIZTEGIA

IZENA	GAZTELANIAZ
Abaritza,	<i>Coscoja</i>
Ahabia	<i>arándano</i>
Ainarra arrunta	<i>Brecina</i>
Ainarra burusoila	<i>Brezo común o bruco</i>
Ainarra kantauriarra	<i>Brezo cantábrico</i>
Ainarra purpura	<i>Brezo nazareno</i>
Albitza	<i>Lastón</i>
Alka belarra	<i>Dáctilo</i>
Anbulu zuria	<i>Gamón blanco</i>
Apomahatsa	<i>Nueza negra</i>
Aranondoa	<i>Ciruelo</i>
Argi belarra, alpapa edo luzerma	<i>Alfalfa</i>
Ariketa	<i>Eupatorio</i>
Arkasatsa edo endalarra	<i>Zarzaparrilla</i>
Artea	<i>Encina</i>
Astigarra	<i>Arce</i>
Asun horia	<i>Ortiga amarilla</i>
Asuna	<i>Ortiga</i>
Atxaparra	<i>Madreselva</i>
Azeri buztana	<i>Cola de cabgayubaallo</i>
Azeri mahatsa	<i>gayuba</i>
Azeri mahatsa edo dulkamara	<i>dulcamara</i>
Basa eguzki lorea	<i>carlina silvestre</i>
Basaerramua	<i>Bonetero</i>
Basoko berakatza	<i>Ajo silvestre</i>
Begi belarra edo eufrasia	<i>Eufrasia</i>
Berbena belarra	<i>Verbena</i>
Burdilinda, semelora	<i>Filipéndula</i>
Doriknioa	<i>Escobizo</i>
Eihar frantsesa	<i>Arce de Montpellier</i>
Elorri beltza	<i>Endrino</i>
Elorri triska	<i>Aliaga o aulaga</i>
Ereinetza	<i>Laurel</i>
Erratza	<i>Rusco</i>
Errosta edo gentziana	<i>Gendiana de turbera</i>



Eskinantzia	<i>Hierba de la esquinancia</i>
Estrepa txikia	<i>Jara pequeña</i>
Ezkaia	<i>Tomillo</i>
Ezpela	<i>Boj</i>
Hagina	<i>Tejo</i>
Haltza	<i>Aliso</i>
Haritz amerikanoa	<i>Roble americano</i>
Haritza	<i>robleo</i>
Harrautsia	<i>Redondilla o saxifraga</i>
Hirusta gorria	<i>Trébol de prado</i>
Hirusta zuria	<i>Trébol blanco</i>
Huntza	<i>Hiedra</i>
Hurritza	<i>Avellano</i>
Iberisa	<i>Iberis</i>
Igitai belarra	<i>Linaria</i>
Intsinis pinua	<i>Pino de Monterrey</i>
Intxaurrendoa	<i>Nogal</i>
Ipar ipurua	<i>Enebro</i>
Iparraldeko elorri zuria	<i>Espino albar</i>
Iratze arra	<i>Helecho macho</i>
isatsa	<i>Retama</i>
Iturri belar arrunta	<i>Culantrillo</i>
Kardua	<i>Cardo</i>
Krabelina	<i>Clavel</i>
Kukupraka	<i>Dedalera</i>
Legeltxorra	<i>Lentisco</i>
Mando perrexila edo San Robertoren zaingorraia	<i>Hierba de San Roberto</i>
Masusta	<i>Zarza</i>
Mendiko aingeru belarra	<i>Angélica silvestre</i>
Milorria	<i>Milenrama</i>
Molinia	<i>Molinia</i>
Orein mihia	<i>Lengua de ciervo</i>
Otabera arrunta	<i>Aliaga</i>
Otea edo otaka	<i>Argoma</i>
Ote zuria	<i>Tojo</i>
Otsapagoa	<i>Pudio</i>
Piper belarra	<i>Pimiento silvestre</i>
Plantain ertaina	<i>Llanten mediano</i>
Sagarrondoa	<i>Manzano</i>
Sasi akazia	<i>Falsa acacia</i>



Sasipeko belarra	<i>Hiedra terrestre</i>
Sorgin belarra	<i>Diente de León</i>
Udaberri lorea	<i>Primavera</i>
udareondoa	<i>Peral</i>
Urkia	<i>Abedul</i>
Zauri belarra	<i>Vulneraria</i>
Zuhandorra	<i>Cornejo</i>
zumarra	<i>olmo</i>

B) SENDABELARREN AURKIBIDE TERAPEUTIKOA (UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA)

ZER SENDATZEKO	SENDABELARRAREN IZENA
*AZALA	
Aknea	Kalendula edo ilen kultibatua, gardabera, negakin, azari buztana, lapa-belarra. Onagra, aloea, osina, milorria, plantina, iruntza, salbia, kamamila, urkia, arnika, ezkaia
Alergia	Kamamila, melisa, ezkaia, salbia, labanda, menda, malma, osina, ipurua
Ile erorketa	Erromeroa, ezpela, arnika, azeri buztana, osina, lapa-belarra, salbia.
Zahia	Azeri buztana, artea, ezpela, osina, erromeroa.
kailuak	Kalendula, huntza, lodo belarra,
Zelulitisa	Huntza, Indiako Gaztaina, solda belarra, azeri buztana, gardabera, fukusa, iruntza molrria, osina, intxusa, ipurua.
kuperosisa	Larrosa, kamomilla, malma, Indiako gaztaina.
dermatitisa	Aloea, kalendula edo ilen kultibatua, hamamelisa, plantina, kamamila, Intxaurrondoa, onagra, haritza, negakina, lapa-belarra, gardabera, azeri buztana, osina
desodoretea	Salbia, erromeroa, eukalipto.
ekzema	Labanda, kalendula edo ilen kultibatua, larrosa, kamamila, Indiako Gaztaina, artea, osina, pasmobelarra, hiperikoa, Astallikardoa, parietabelarra, ipurua, azeri buztana.
Uzki-pitzadura	Solda belarra, azeri buztana, artea, labanda edo izpilikua, haritza.
Forunkuluak	Arnika, malma, intsusa, eztul-belarra, huntza.
Granoak	Kalendula, arnika, erromero, kamamila, lapa-belarra, malma, parietabelarra, intxusa, milorria.
zauriak	Altzifrea, azeri buztan, intxaurrondoa, Haritza, Erromeroa, Salbia, kalendula edo ilen kultibatua, artea, eukalipto, osina, labanda, larrosa, pasmobelarra, zaingorria, hiperikoa, bostorria, hamamelisa
herpesa	Melisa, eukalipto, artea, lapa-belarra, iruntza, plantina, yodo-belarra, intxusa, hamalesisa
Inseketuen ziztadak	Kalendula, intxusa, lap-belarra, melisa, malma.



Azala-zartatua	Larrosa, artea, milorria, aloea, kalendula edo ilen kultibatua, kamamila
Biguna	Solda-belarra, erromeroa.
Narritua	Kamomila, larrosa, kalendula edo ilen kultibatua edo ilen kultibatua, parieta belarra, intxusa, hiperikoa.
zorriak	Kamomila, menda, milorria
psoriasis	Hiperikoa, kalendula edo ilen kultibatua edo ilen kultibatua, zaingorria, malma, azeri-buztana, osina, intxusa
erredurak	Aloea, kalendula edo ilen kultibatua edo ilen kultibatua, artea, kamamila, plantina, hiperikoa, pasmobelarra, solda belarra, erromeroa, intxusa, larrosa, artea.
izerdia	Salbia, altzifrea.
garatxoak	Yodo-belarra, baratxuria, pasmobelarra, kalendula edo ilen kultibatua edo ilen kultibatua.
*ZIRKULAZIOA	
Arritmia	Elorri-zuria
arteriosklerosisa	Baratxuria, alkatxofa, kipula, elorri zuria, onagra, gardabera, alpistea, azeri buztana, milorria, mihilua, ipurua.
flebitisa	Indiako gaztaina, ginkgoa, hamamelisa, lapitza, mahatsondoa, astalikardoa, arnika, solda-belarra.
Hematoma	Arnika, iruntza, sola-belarra.
hemorroidea	Indiako gaztaina, ginkgoa, hamamelisa, laitza, osina, milorria, solda-belarra, artea, malma, plantina, parieta-belarra, salbia.
hipertentsioa	Baratxuria, tipula, ginkgoa, azeri buztana, elorri zuria, onagra, sojaren lesitina.
hipotentsioa	Hisopoa, artzai zakua, erromeroa, menda, melisa, salbia, alkandforra.
Zirkulazio txarra	Erromeroa, ezkaia, sola-belarra, salbia, parieta-belarra, elorri zuria, azeri buztana, gardabra, Indiako gaztaina.
Ozpela	Hiperikoa, Indiako gaztaina, azeri buztana, arnika, kalendula edo ilen kultibatua edo ilen kultibatua, sabia, intxusa
Barizeak	Baratxuria, Indiako gaztaina, altzifrea, ginkgo, hamamelisa, pinua, lapitza, milorria, hiperikoa, solda belarra, salbia, kalendula edo ilen kultibatua edo ilen kultibatua, iruntza, osina.
*GIHERRAK/ ARTIKULAZIOAK	
Artritis	Gardabera, solda-belarra, ipurua, osina, kamamila, sahatsa, pareta-belarra, harpagofitua, kalendula edo ilen kultibatua edo ilen kultibatua.
Artrosisa	Harpagofitua, sahatsa, ipurua, solda-belarra, hiperikoa, erromeroa, ezkaia.
Kontusioak	Arnika, kalendula edo ilen kultibatua, solda-belarra, iruntza, hiperikoa, erromeroa, plantina
Minak	Arnika, gaulteria, mostaza, pinua, erromeroa, alkanforra, hiperikoa.
Esginzeak-okerdurak	Arnika, erromeroa, iruntza, sol-belarra, artea, ezkaia, salbia, hiperikoa,



	plantina, kalendula edo ilen kultibatua
hausketak	Solda-belarra, azeri buztana.
inflamazioa	Arnika, altzifrea, lizea, eukalipto, galuteria, harpagofitoa, mostaza, pinua, erromeroa, alkanforra, sahatsa, ezkaia.
lumbagoa	Gaulteria, mostaza, pinua, erromeroa, ezkaia, iruntza.
osteoporosia	Azeri buztana, osina.
erreuma	Indiako gaztaina, arnika, hiperikoa, kalendula edo ilen kultibatua, erromeroa, sahatsa, harpagofitoa, iruntza, mihilua, ezkaia, osina, eukalipto, gardabera, solda-belarra, intxusa.
*NERVIOSO	
Antsitatea	Hiperikoa, labanda, lupulua, melisa, pasiflora, baleriana,
Nekea	Eleuterokoa, ginseng, guaran, te, erromeroa, iruntza, menda, pinua, osina, ezkaia.
Depresioa	Hiperikoa, eleuterokoa, ginseng, erromeroa, melisa.
Buruko mina	Iruntza, eleuterokoa, ginseng, erromeroa, melisa
Lo ezina	Oloa, hiperikoa, labanda, lupulñoa, melisa, pasiflora, baleriana, elorri zuria
Neuralgia, ziatika	Erromeroa, ezkaia, hiperikoa, iruntza, ipurua, baleriana, sahatsa, melisa, kalendula edo ilen kultibatua, pasiflora.
*ARNASKETA	.
Amigdalitisa	Ezkaia, ekinazea, plantina, eukalipto
Asma	Tipula, baratxuria, malma, melisa, baleriana, ezkaia, erromeroa, salbia, eztul-belarra, plantina, mihilua, eukalipto, intxusa, hiperikoa, menda.
bronkitisa	Baratxuria, zedroa, eukalipto, mihilua, ezkaia, plantina, malma, erisimo, ekinazea, erromeroa, menda, iruntza, intxusa, pasmobelarra, linua, eztul belarra
eztarria	Erisimo, plantina, eukalipto, iltzea, malma, mirra, ezkaia, eztul-belarra, artea, solda belarra, larrosa, linua, malma, salba, pasmobelarra, iruntza, intxusa.
laringitisa	Erisimo, malma, eztul-belarra, plantina, pinua, salbia.
sinusita	Eukalipto, menda, niauli, pinua, ezkaia, iruntza, malma, mihilua
eztula	Erregaliza, tila, ezkaia, drosera, eztul-belarra, erisimo, erromeroa, menda, mihilua, pinua, malma, intxusa.
*INMUNOLOGIKOA	
sukarra	Iruntza, ekinazea, baratxuria, eukalipto, intxusa, salbia, erromeroa, sahatsa.
gripea	Ekinazea, eukalipto, ezkaia, intxusa, salbia, eztul-belarra, malma, erromeroa, iruntza.
*LISERIKETA	
bihotzerrea	Lopulua, sahatsa, melisa, tila, milorria, labanda, linua, malma, patata, aza.
Gibela	Astalikardoa, alkatxofa(orburua), erromeroa, parietablarra, iruntza,



	osina, gardabera, menda, kalendula edo ilen kultibatua.
kolesterola	Baratxuria, alkatxofa, lapa-belarra, tipula, sojaren lezitina, mihilua, gardabera, erromeroa, ezkaia, iruntza
Beherakoa	Haritza, tea, masusta, hiperikoa, zaingorria, Indiako gaztaina, osina, salbia, solda-belarra, plantina, azeri buztana, milorria.
Digestio txarra	Txikoria, orburua, angelika, anisa, astalikardoa, gardabera, ipurua, harpagofitoa, mihilua, jengibrea, menda, milorria, piña, poleoa, erromeroa.
Idorreria	Linua
Haize mina	Angelika, anisa, kanela, mihilua, kamamila, melisa, menda, milorria, poleoa, erromeroa, salbia, ezkaia.
zorabioa	Jengibrea, menda.
botagurea	Jengibrea, kamamila, mihilua, menda, melisa, erromeroa, milorria
*UGAL-APARATUA	
Amenorrea	Salbia, sauzgatillo, artemisia, milorria, ipurua, ezkaia, hiperikoa
dismenorrea	Onagra, sauzgatillo, mihilua, milorria, salbia, larrosa, melisa, kalendula edo ilen kultibatua, ipurua, ezkaia, menda, hiperikoa, iruntza.
menopausia	Soja, salbia, onagra, alfalfa, espino, hinojo, milenrama, pasiflora, lupulo, kamamila, erromeroa, hiperikoa, intxusa.
menorragia	Artzai zakua
Hilekoaren aurrekoa	Artzai zakua
Beroaldia	Salbia, artea, mihilua, artea, azeri buztana, milorria, erromeroa, ipurua.
*GENU APARATUA	
zistitisa	Azeri buztana, artua, perexila, sandaloa, pinua, parieta-belarra, osina, linua, hiperikoa, intxusa ipurua
edemak	Gardabera, azeri buztana, osina, intxusa

GEHIAGO JAKITEKO

BIBLIOGRAFIA

*LIBURUAK/txostenak/ artikuluxkak.

HIK HASI aldizkaria. "Herria ezagutzen 2. eta 4. unitate didaktikoak eta beren gida pedagogikoak"

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA: "Arrasate gure herria", Arrasateko udala, 1993.

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL: "Aramaio eta Arrasate: Dos pueblos unidos por la historia", Arabako Aldundia..

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL: "Nire haurtzaroko Arrasate", Arrasateko udala, 1996.

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL: "1949. urtea Arrasate eta mundua", Michelena arte graf. 2009

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL: "Bizi izan juat", Arrasateko udala, 2000



JOSE LETONA.- "Mondragón y sus calles". Gipuzkoako Aurrezki kutxa.1984.urtea. "Jose Letonaren artxibategia".

JOSE LUIS URANGAREN ARTXIBATEGIA. "Arrasateko uholdeak", "Albercas y lavanderas"

JOSE LETONAREN ARTXIBATEGIA. "Inundaciones señalables sufridas por la villa""Traida de agua potable a Arrasate"

ARRASATEKO UDALA. "Mapa toponimikoa".Arrasateko udala eta Eusko Jaurlaritz. 1998

JOSE LETONA: "Pequeña historia del futbol en Mondragón".Arrasateko Udala eta Caja de Ahorros Provincial.1983.

ARKO. "Pilota". Pilotarien batzarra Arrasaten". Arrasateko Udala.1992.

ARRASATEKO UDALA/ARRASATEKO TXIRRINDULARI ELKARTEA: "Euskal Herriko txirrindulari XXXIV itzulia".1994.

AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA.<http://www.euskomedia.org/aunamendi>

JOSE LUIS ORMAETXEA LASAGA: " Arrasateko Toponimia"Euskaltzaindia .1996

JM Velez de Mendizabal, JOSE ANGEL BARRUTIABENGOA, JUAN RAMON GARAI: " Ama Cerrajera""101".2007.urtea.

URTZI MENDIZABAL ETA ROSA AGIRREBEÑEA:"Arrasateko Txoko naturalak".Arrasateko txoko naturalak.2004.

JUAN LEIBAR GURIDI."Don Pedro de Viteri y Arana" 1833-1988 filantropo".Arrasateko udala 2003.

LEIRE PARRA/ISABEL ARAMENDIA."Arrasate, langileek eraikitako herria". Arrasateko Udala.2004.urtea.

ARRASATEKO UDALAREN KULTURA SAILA:Hainbat informazio eta kultura programazioaren gaineko informazioa.

ARRASATEKO UDALAREN ARTXIBATEGIA:Hainbat informazioren gaineko informazioa

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA:"Sendabelarrak.Aurkibide terapeutikoa".

UEU.Aromaterapia eta sendabelarrak ikastaroak.(5).

UDALAKO INGURUGIRO ESKOLA. "Udalaitzpetik ingurugiro boletinak (2., 3., 7., 8., 9.,28., 29.eta 30.zenbakiak. Arrasateko Udalak(1994-2001)

GOIENA ALDIZKARIA; " Ibaiak, garbi egoteaz gain, ibai itxura izan eta bizirik egon behar du" artikulusk" Leire Kortabarria.

Juanjo Olazoila Elordiren bi artikuluxka:" Breve historia del ferrocarril en el Pais Vasco"" Los intentos de los ayuntamientos guipuzcoanos para que funcionase de nuevo el ferrocarril Vasconavarro en 1968.

EROSK1. Consumer aldizkaria: "Atez ateko bilketa".

Oñati zero zabor: Dossier informatiboa.

WEB ORRIAK

<http://www.arrasate-mondragon.org>

"Garagartzako ortu ekologikoen funtzionamenduari buruzko erregelamendua"

"Informazio praktikoa/mapak/herriko zuhaitz inguruko inbentarioa

<http://www.wikipedia.org>

"Udallaitz"

<http://www.mondraberri.com/mondraberri>. Isei Barbero, Koldo Carrillo eta Gontzal Landaren



artikuluxkak.u

"Gaur banatu zaizkie Garagartzako ortu ekologikoen esleipendunei dagokien txartela"

"Ortu ekologikoen elkarteak eta udalak akordioa sinatuko dute"

"Urtzi Mendizabal biologoa: "Udalatx Arrasateko birika da"

"Epeleko araztegia hilabete honetan jarriko dute martxan"

"Udalatxen hiru tunel zulatu nahi dituzte, AHTa pasa dadin"

"Uholdeak Arrasaten 1942an-Jose Mari Velez de Mendizabalen artikulua"

"Arrasatek Herriarteko Txapelketa irabazi du, izugarri sufrituta"

"Arrasateko gimnastak estatuko onenen artean egon dira"

"Herriko gimnastak eskolarteko Gipuzkoako txapelketetan eta san Isidro jaietan izango dira"

"Mondrako nesken aurreneko futbol taldea, 1986.urtean hartutako irudiak". 2. mondrako nesken taldea mende laurdena ospatzen du aurten"

"Mondrako neskak dira Gipuzkoako txapeldun berriak"

"Herriko atletak 5 domina eskuratu dituzte asteburu honetan"

"Bartzelonarako bidean jada Ford Mugarriko mutilak".

"Zero Zabor Taldeak ohartzarazi du zaborraren arazoaren tamainaz"

<http://www.goiena.net>

<http://www.argia.com>

"Udaltx itzulia.Besaideko mugarria"

"Iduri egiten"-Jakoba Errekondoren artikuluxka"

"Urkulu, naturari egokitutako urtegia"-Amaia Ugalderearen artikuluxka"

"Zero zabor eredurantz ala errasuketarantz" Urko Apaolazaren artikuluxka.

<http://www.euskonews.com>

"Historia cronológica de un tren"

"Estatutos de la sociedad Juventud Deportiva de Mondragón"

Juventud Deportiva de Mondragon elkartearen hainbat memoria, batzarre eta bere jarduerari buruzko informazioak"

"Besaide, monumento a los montañeros que nos han dejado"

<http://www.euskomedia.org/aunamendi>

<http://www.luberri.net/mendi>

"udaltx"

<http://www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com>

<http://www.bizikasi.com>

<http://www.diariovasco.com>. Kepa Olidenen artikuluxkak.

"Veinte años a vapor y treinta a electricidad"

"Salvando el último lavadero"

"Arrasate Dragoi Gimnasia taldea cierra una temporada redonda"

"Arrasate eskubaloirekordará un año más a "Pitxi"

"Me gustaria jugar en el primer equipo que es por lo que estoy luchando". Nagore Goñiren artikuluxka.

<http://www.leintzgatza.com>

<http://www.gipuzkoa.net>

"Aizkorri-Aratz"

"Udalatx

<http://www.ingeba.org/liburua>

"Palacio de Monterron"

"Vegetación en el Pais Vasco" Koldo Lopezen artikuluxka.

<http://ahtgelditu.org>

<http://euskalyvasca.com>



<http://www.pesa.net.com>

"Historia"

<http://www.leintz-eskola-kirola.com>

<http://www.arrasaterugby.eu>

<http://www.besaide.org>

<http://www.mondragon.edu/es>

<http://www.arizmendi.eu/web/pages>.

Euskara zuzentzailea.- Karmel Uribarren.

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...

...the ...